

NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA

2020

BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKADI 
BASQUE COUNTRY

ZIELE
REFLEXIÓ
الميديادين
REFLEXION انعكاس
MILESTONES
FITES
INTERNATIONALISIERUNG
NAZIOARTEKOTZEA
INTERNACIONALIZACIÓN
CHALLENGE
REFLECTION
INTERNACIONALITZACIÓ
الرديسيية
ESTRATÈGICA
REFLEXIÓ
HELBURUAK
OBJECTIVES
OBJECTIUS
STRATEGISCHE
MEILENSTEINE
AMBITOS
RETO
ESTRATEGICA
الأهداف
STRATEGIC
ESTRATEGIKOIA
تدويل
REPTA
التحدي
الاستراتيجية
المحطات
HITOS
MUGARRI
OBJETIVOS
BASKENLAND
AMBITS
EUSKADI

Euskadi Nazioartekotzeko
Esparru Estrategia

2020

BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA



LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2014ko maiatza

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

inprimaketa:

Lege Gordailua:

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
1. GOGOETA ESTRATEGIKOKO PROZESUA	9
2. EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA	13
2.1. Euskadiren nazioartekotzearen bilakaera	15
2.1.1. Nazioartekotzea babesteko erakunde-egituraren bilakaera	15
2.1.2. Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardueraren mugarrak	18
2.2. Euskadiren nazioartekotzearen etorkizuna: erronkak eta aukerak	21
3. BASQUE COUNTRY ESTRATEGIA	23
3.1. Euskadiren nazioartekotzea: herrialde-erronka	25
3.2. X. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin bat egitea	27
3.3. Basque Country Estrategiaren ikuspegia	28
3.4. Basque Country Estrategiaren eskema	29
3.5. Nazioartekotzearen bektore komunak	31
1. BEKTOREA. Euskadiren proiektzioa kanpoan	32
2. BEKTOREA. Kanpoko interes sektorialak sustatu eta bultzatzea, eta erronka globalei aurre egiten laguntzea	33
3. BEKTOREA. Europako esparruarekin bat egitea	34
4. BEKTOREA. Jakintza biltzea	35
3.6. Jardun-eremu tematikoak	37
3.7. Jardun-eremu geografikoak	52
4. KANPO HARREMANETARAKO PLANA	59
4.1. Eginkizuna eta Helburu Estrategikoak	61
4.2. Ekintza-ildoak eta Jardunak	67
5. GOBERNANTZA EREDUA, JARRAIPENA ETA AURREKONTU ESPARRUA	93
5.1. Gobernantza-eredua	95
5.2. Jarraipen- eta Ebaluazio-sistema	97
5.3. Ekonomia- eta Aurrekontu-esparrua	98

Aurkezpena

Gizarte ororen etorkizuna mundu global berrian eraikitzen da, eta munduan eta nazioarteko erakunde-dinamika eta dinamika politiko, ekonomiko eta sozial berrietan txertatzen da.

Ikuspegi historiko batetik, berrantolamendu geopolitiko bat eta botere ekonomikoko guneen berrantolamendua gertatzen ari da mende honetako lehen bi hamarkadetan. Aldaketa horren arrazoien artean, honako hauek aipa daitezke: nazioarteko merkataritza-fluxu berriak, hazkunde-kota handiak dituzten herrialdeen agerpena, eta mundu globalean adierazpen eta komunikazio sozialak iraultzen ari diren berrikuntza zientifikoak eta teknologikoak.

Testuinguru horretan, balio handia hartu dute gure gizartearen iraunkortasun ekonomikoari eta ingurumen-iraunkortasunari, harreman multilateral orekatuen ezarpenari edota globalizazio-eredu orekatuagoen proposamenei lotutako sentsibilitate berriek. Euskadik aktiboki parte hartu nahi du errealitate berri horretan. Horregatik, nazioartekotzea bultzatzea lehen-tasunezko herrialde-helburua da Eusko Jaurlaritzarentzat. Horixe da Basque Country Estrategiaren orientazioa.

Helburu hori lortzeko, nazioarteko lankidetzako aliantzak eta estrategiak ezarri behar dira, bereziki Euskadiren eraldaketa soziala eta ekonomikoa lortzeko eta gure herrialdearen pres-takuntza, berrikuntza eta garapenarekin konprometituta dauden sektoreak hazten hasteko garrantzitsuak diren errealitate nazional, eskualde eta erakunde multilateralekin batera.

Basque Country 2020 estrategiak kultura-aldaketa dakar. Herritar guztien eta enpresa, teknologia, ikerketa, hezkuntza edo kulturaren munduari lotutako erakunde eta agente publiko-pribatuen parte-hartzea eskatzen du. Estrategia horren oinarria gogoeta- eta jardun-prozesu partekatua bat da. Prozesu horretan, Herrialdeko erakunde-agente eta agente sozial eta ekonomiko nagusiek hartuko dute parte aktiboki.

Basque Country Estrategiari esker, Euskadiren posizioa eta eragina finkatu ahal izango dugu, eta nazioartean erreferentzia izango den lurralde bihurtuko gara. Egungo eta etorkizuneko mundu global honetan sortzen ari diren erronkei aurre egiteko eta aukera berriak baliatzeko estrategia da.

Herrialde-estrategia da, partekatua eta epe luzerakoa. Legegintzaldi honetan, abian dugu Estrategiaren lehen fasea, eta bat egitera gonbidatu nahi ditugu euskal erakunde eta agente guztiak. Askatasunetik abiatuta, Euskadik hazi egin nahi du, eta aktiboki parte hartu nahi dugun mundu ireki eta globalean posizioa eta aintzatespena irabazi nahi du. Bat gatoz Aguirre lehendakariarekin: «askatasunak baino ezin du mundua batu, eta herriek askatasunean baino ezin izango dute elkar ulertu».

Iñigo Urkullu

Lehendakaria

Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia (Basque Country Estrategia aurrerantzean) Euskadik nazioartekotzeko duen beharrari eta gizarte global eta ireki bat lortzeko helburuari erantzun behar dien tresna da. Kontzeptu bererako, herrialde-estrategia bererako bi izen. Estrategia horrek ekarriko duen kultura-aldaketa kontuan hartuta, epe luzerakotzat hartu da. Horregatik iraungo du 2020. urtera arte, eta horregatik gaindituko du X. Legegintzaldia. Dena dela, aurreikusitako aldaketak lortzeko egin beharreko jardun zehatzei dagokienez, 2016. urtean (X. Legegintzaldia amaitzean) amaituko den lehen fase bat abian jartzea proposatu da.

Hori dela-eta, dokumentuak, alde batetik, Basque Country Estrategiaren definizioa biltzen du 3. kapitulan, eta, bestetik, 2014-2016ko Kanpo Harremanetarako Plana zehazten du 4. kapitulan (X. Legegintzaldiari dagokion lehen fase batean).

Hainbat gizarte-agente eta erakunde-agenteri kontsultatzeko eta horiek parte hartzeko prozesua izan da Estrategia horren ardatz nagusia. Parte-hartzean oinarritutako prozesuari esker, alde batetik Eusko Jaurlaritzaren Nazioartekotzeko Esparru Estrategiaren bektoreak diren helburu eta lehentasunak, eta bestetik Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Kanpo Harremanetarako Plana osatzen duten helburu eta jardun-ildoak identifikatu ahal izan dira.

Gainera, Euskadik nazioartekotzearen eremuan –erakunde-mailan eta enpresa-mailan bereziki– egin duen ibilbidea bera hartu da kontuan, eta interes handiko ikasbideak eta praktikak lortu dira beren kanpoko proiektzioa zabaltzeko prozesuan murgilduta dauden Flandria, Quebec edo Bavariako gobernuek garatutako antolamendu-estrategiei, antolamendu-tresnei eta antolamendu-ereduei dagokienez.

Estrategiaren helburuetako bat Euskadiko agente sozial, ekonomiko eta kultural guztien nazioartekotzea bultzatuko duten jardun-ildo batzuk zehaztea dela kontuan hartuta, parte hartzeko prozesuak oso profil desberdineko agenteak eta horien iritziak bildu ditu. Agente horien artean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia bera, Eusko Jaurlaritzaren sailtako ordezkariak eta nazioarteko jarduera garrantzitsua egiten duten Jaurlaritzaz kanpoko sektore anitzeko beste agente batzuk aipa daitezke.

Horrela, beraz, prozesuaren barruan elkarrizketak egin zaizkie Eusko Jaurlaritzaren sailtako eta Sektore Publikoko (Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia barne) 61 ordezkariari, eta, bestalde, inkesta zehatz bat egin da. Inkesta horretan, nagusiki hezkuntzaren, enpresaren, kulturaren eta zientzia eta teknologiaren eremuko Euskadiko 37 erakunde eta agentek hartu dute parte.

IREKIA plataformaren bitartez, Euskadiren nazioartekotzearen inguruko galderak argitaratu dira aldizka, herritarren iritzia zein den jakiteko eta Basque Country Estrategia lantzeko prozesurako proposatutako ekarpenak biltzeko helburuarekin.

Azkenik, mahai tematikoak egin dira honako eremu hauetan; I) sektore anitzeko interesen sustapena, II) Europaren eraikuntza, III) Euskadi munduan, eta IV) kanpoan den euskal komunitatea. Mahai horietan, nazioartean esperientzia handia duten 29 agentek hartu dute parte. «Euskadiko sektore anitzeko interesen sustapena» eta «Euskadi munduan» gaien inguruan egindako mahaietan, interes estrategikoko ekintzak, eremu geografikoak eta esparru tematikoak identifikatu dira. «Europaren eraikuntza» gaiaren inguruko mahaiak, berriz, Euskadik Europar Batasunean (EB) bete behar duen zereginari buruzko gogoetara eta esparru horretan garatu behar diren eta lehentasunezko interesa duten eremu tematikoen eta jardunen identifikaziora bideratu da. Bestalde, «Kanpoan den euskal komunitatea» izenburuko mahaiaren barruan, Euskaditik kanpo bizi den eta lan egiten duen komunitate horretara iristeko eta harekin lotzeko moduei buruzko gogoeta egin da.

Parte hartzean oinarritutako prozesu zabal horren helburua nazioartekotzearen alderdi guztiei buruzko eztabaida bultzatzea eta honako hauek identifikatzea izan da:

- Euskal agente guztien nazioarteko jarduera garatzeko interes eta lehentasun geografiko eta tematikoak.
- Euskadin ahalmen, berezitasun eta balio diferentziala duten eta kanpora begira eman nahi den irudia proiektatzen laguntzen duten aktiboak eta jardun-eremuak.
- Kanpoan gure garapen jarraitu eta iraunkorrerako lagungarriak izango diren interes sektorialak sustatzeko mekanismo egokiak.
- Euskadiren ahotsa Europara helarazteko eta Europaren eraikuntzan aktiboki parte hartzeko tresna egokiak.
- Kanpoan den euskal komunitatearekiko lotura sakontzeko, eta lotura hori nazioartekotzeko estrategiaren zerbitzura jartzen lagunduko duten tresnak zehazteko baliabiderik egokienak.

Azpimarratu beharra dago, halaber, Estrategia hori eraikitzeko prozesuan Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordeari eta Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordeari deitu zaiela, egindako lana aurkeztu eta kontrastatzeko.

2.1. Euskadiren nazioartekotzearen bilakaera

2.1.1. Nazioartekotzea babesteko erakunde-egituraren bilakaera

Euskadiko erakundeek tradizio historikoa dute nazioarteko goi-mailako harremani dagokienez. Euskadik nazioartean garatutako jarduera Gerra Zibilean hasi zen, Aguirre lehendakariaren Administrazioak Euskadiko autonomia errespetatzen zuten herrialdeekin –eta, batez ere, euskal herritarrak hartzen zituztenekin– harremanak ezartzea dekretatu zuenean. Ildo horretan, 1936. eta 1937. urteetan, Euskadik nazioarteko ordezkariak zabaldu zituen, eta Europako jarduerari eman zien lehentasuna. Horrela, beraz, ordezkariak zabaldu zituen Frantzia (Parisen, Bordelen eta Baionan), Erresuma Batuan (Londresen) eta Belgikan (Bruselan eta Anberesen). Halaber, beste hainbat Ordezkaritza Ofizial zabaldu zituen Amerikan, hala nola AEBn (New Yorken, eta azpiordezkari bat Boisen), Argentinan (Buenos Airesen), Mexikon (Mexiko Hirian), Dominikar Errepublikan (Ciudad de Trujillon eta Santo Domingon), Venezuelan (Caracasen) eta Kuban (La Habanan). Gainera, ordezkariak ofizialik gabe bada ere, hainbat jardun egin ziren Europako hainbat hiritan (hala nola Genevan eta Dublinen) eta Amerikako hainbat herrialdetan, hala nola Uruguain, Txilen, Kolonbian eta Panaman. Egitura horri esker antolatu ahal izan zen harreman-sareak berebiziko garrantzia izan zuen Eusko Jaurlaritzaren erbestealdian.

1939an, erbesteko Eusko Jaurlaritzak bere legitimotasuna onartzen zuten herrialdeekiko lankidetzaloturak sendotzera bideratu zituen bere jarduerak. Eusko Jaurlaritzaren II. Mundu Gerrako nazioarteko jarduerari dagokionez, sailburuordeen sakabanatze geografikoa gertatu zen, aliatuen aldeko jarrera hartu zen, eta ordezkariak kopuruak gora egin zuen. Zehazki, ordezkariak nagusiak eta, horien mende, toki-ordezkaritzak ezarri ziren. Atzerrian ordezkariak ezartzeko bigarren prozesu horretan, ordezkariak nagusiak honako leku hauetan ezarri ziren: New Yorken (haren jurisdikziopean, Antilletako eta Filipinetako toki-ordezkaritzak zeuden), Mexikon, Venezuelan (haren kontrolpean, Erdialdeko Amerikako, Kolonbiako eta Ekuadorko toki-ordezkaritzak zeuden), eta Argentinan (haren kontrolpean, Txile, Uruguai, Paraguai, Bolivia, Peru eta Brasilgo toki-ordezkaritzak zeuden). Jaurlaritzak garai hartan bultzatutako ekimenen artean, honako hauek azpimarratu behar dira: Euskal Ordezkaritzak Londresen Europako Federazioa sortzeko egindako proposamena, Mendebaldeko Europako herrialdeetako Kultura Batasunean parte hartu izana, eta Jose Antonio Aguirre lehendakariak Amerikan zegoen Europako Kontseiluan parte hartu izana, «Coordinación de Nacionalidades Europeas» (Europako Nazionalitateen Koordinazioa) lanarekin, hain zuzen ere¹.

¹ De CASTRO RUANO J.L. eta UGALDE ZUBIRI, A.: *La Acción Exterior del País Vasco* (1980-2003). IVAP. Eusko Jaurlaritza. 2004.

II. Mundu Gerra amaitzean, erbesteko Eusko Jaurlaritzak aktiboki hartu zuen parte Europa eraikitzekeo prozesuan, eta, horri esker, proiektzioa lortu zuen nazioartean. 1947. urtean, Euskal Mugimendu Federalista sortu zen, eta Federalisten Europar Batasunean onartu zuten. Halaber, honako hauek sortu ziren: Nazioarteko Talde Berri Demokrata-Kristauen Euskal Taldea, Europar Federazioaren aldeko Euskal Mugimendu Sozialista, Europako Erkidegoen eta Eskualdeen Biltzarreko Euskal Ordezkaritza eta Europar Ikasketen Euskal Zirkulua. Ildo berean, 1951. urtean, Europar Federazioen aldeko Euskal Kontseilua sortu zen, eta erakunde horri esker, euskaldunek izaera pribatuko korrante europeista eta federalistetan parte hartzeko aukera izan zuten, batez ere Europar Mugimenduan.

1979an Gernikako Estatutua sinatu zenean, autogobernua instituzionalizatzeko, Euskal Administrazio Publikoa antolatzekeo eta Europar eta Europaren mendeko organismo eta erakundeetan parte hartzea ahalbidetuko zuten politika publikoak garatzeko erronkari egin behar izan zion aurre Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanetarako lehen organoa Europar Erkidegoei lotutako Gaien Kabinetea izan zen, 1985ean sortua. Kabinete horren jarduera Europako Ekonomia Erkidegoaren (EEE) eremura eta Euskadiren garapen ekonomikora bideratu zen. Euskal interesak EEEen erabakiak hartzen zituzten erakunde eta organoen aurrean ordezkatu, babestu eta sustatzeko, atzerriko lehen Ordezkaritza inauguratu zen Bruselan, Eusko Jaurlaritzaren mendeko Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuaren (SPRI) bulego gisa hasieran. Geroago, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 26ko 165/1994 Epaiaren ondoren, Bruselako bulegoa Ordezkaritza bihurtu zen. 1996an, ofizialki inauguratu eta legez ezarri zen².

1991. urtean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia sortu zen, Lehendakariari atxikia. Era horretan, erakunde berriak Europar Erkidegoei lotutako Gaien Kabinetea xurgatu zuen, eta, artean ere, lehendakariari laguntzen dio Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen zuzendaritzan eta koordinazioan.

Gainera, euskal diasporarekin harremanak instituzionalizatzeko asmoz, eta Eusko Legebiltzarrak aho batez onartutako 8/1994 Legea betez, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea eratu zen urte horretan bertan, eta Euskal Gizataldeen I. Mundu Batzarra egin zen 1995ean. Harrezkero, 4 urtean behin egiten da lege-aginduz. Legeak ezartzen duenez, eremu horretako Erakunde Ekintzarako Lau Urteko Planaren proposamena landu behar da Mundu Batzarrean, eta, ondoren, Aholku Kontseiluak onartuko du.

2002. urtetik aurrera, kualitatiboki sendotu zen kanpo-harremanetarako egitura. Izan ere, bost ordezkaritza ofizial sortu ziren: Mexikon (2002an), Txilen (2003an), Venezuelan (2003an) eta Argentinan (2003an), Madrilgoaz gain. Geroago, sare hori zabaldu egin zen. Alde batetik, Euskadiko Ordezkaritzak zabaldu ziren Estatu Batuetan (2007an) eta Frantzian (2008an), eta Kolonbia eta Venezuelarako Euskadiko Ordezkaritza berria sortu zen Bogotan, 2008an.

IX. Legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak nazioartean zuen presentzia berrantolatu egin zen. Ildo horretan, Euskadik Argentinan zuen Ordezkaritza Mercosurreko Ordezkaritza bihurtu zen, eta eragin-eremua Brasil, Paraguai eta Uruguaira zabaldu zuen. Era berean, egoitza Bogotan zuen Ordezkaritzak Kolonbia

² Kanpoko Ekintzaren Urtekaria, 2008-2009, IVAP, 2009.

eta Venezuelarekiko harremanen eta Erdialdeko Amerikako herrialdeekiko loturen ardura hartu zuen. Estatu Batuek, Mexikok eta Kanadak osatzen duten NAFTArako Ordezkaritza sortu zen. Azkenik, Santiagoko (Txile) Ordezkaritzak Perurekiko harremanak hartu zituen bere gain. Europan, Frantziako Ordezkaritza inauguratu gabe zegoen oraindik, eta bertan behera geratu zen behin betiko.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak 4 ordezkaritza ditu Amerikan, hain zuzen ere egoitza New Yorken duen Estatu Batuetakoa, egoitza Mexiko Hirian duen Mexikokoa, egoitza Buenos Airesen duen Argentina-Mercosurrekoa, eta egoitza Santiagon eta bulegoa Bogotan duen Txile, Kolonbia eta Perukoa. Europan berriz, Euskadik Europar Batasunerako Ordezkaritza du Bruselan. Ordezkaritza horrek Euskadiko interesak Europar Batasunaren aurrean ordezkatu, babestu eta sustatzen dituen organoaren zeregina betetzen du, eta aukerak detektatzen ditu egoitza Bruselan duten erakunde multilateral eta organoen, eta länderrak eta eskualdeak ordezkatzen dituzten bulegoen aurrean. Halaber, bulego bat du Madrilan, eta, horren bitartez, Estatuko Administrazio Orokorrekin eta bertan dauden ordezkaritza diplomatikoekin etengabeko komunikazioa izateko bide bat du.

Erakunde-alderdia alde batera utzita, Euskadiko enpresa-sarea aitzindaria izan da kanpoko merkaturietan jarduteko garaian. Hori dela-eta, euskal produkzio-sarearen garapena babestu izan duten erakundeek berehala esku hartu dute nazioartean.

Eusko Jaurlaritzak zuzenean enpresen nazioartekotzea sustatzera bideratutako lehen jardunak 80ko hamarkadan egin ziren. Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketa Bultzak (SPRI) garatutako politikak, garai hartan, kanpoko merkataritza nagusiki

merkataritza-sustapenerako programen, kanpoko merkataritzaren arloko prestakuntzaren eta arlo horren inguruko sentsibilizazioaren bidez sustatzea eta bultzatzea zuen helburu.

90eko hamarkadan, merkataritza-transakzioetan oinarritutako ikuspegi horrek nazioartekotzearen ikuspegi integralago batera jo zuen, eta euskal enpresen kanpoko jardura finkatzera bideratutako beste ekimen batzuk egin ziren. Adibidez, merkatu berrietan ezartzeko aukera izan zen, Euskadiko eta atzerriko korporazioen arteko loturak bultzatu ziren, eta atzerriko inbertsio gehiago erakarri ziren.

Horretarako, garai hartako Industria eta Energia Sailak eta SPRIk inbertsio-jardura handia sortzeko moduko ahalmena zuten herrialde gutxi batzuetan oinarritu zituzten ahaleginak. Euskadirekiko lankidetzarako klima egokia sortzeko estrategikotzat hartu ziren herrialdeak honako hauek izan ziren: Alemania, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batua. Herrialde horietan, SPRIk Kanpoko Agenteen sare bat garatu zuen.

XXI. mendean, Eusko Jaurlaritzak enpresen nazioartekotzea babesteko bultzatutako politikak euskal industria-taldean dimentsioa handitzean eta talde horiek nazioarteko berrikuntza-sistemetan txertatzean oinarritu dira bereziki. Ildo horretan, oraindik kanpoko merkatuetan agertu ez den enpresa-ahalmena mobilizatzearen, dibertsifikazio geografikoa bultzatzearen eta euskal ondasun eta zerbitzuen eduki teknologiko eta berritzailea handitzearen alde egin dute politika horiek.

Euskal Administrazioak 80ko hamarkadatik aurrera enpresen nazioartekotzea babesteko abian jarritako programekin batera, euskal industria-sareari nazioarteko jardueran laguntzeko kanpoko sare bat egituratu du arian-arian SPRIk. Gaur egun, SPRIren Kanpoko Sarea 14 herrialdeko hainbat bulegok eta Eus-

kadiko enpresen nazioartekotzeari euskarri operatiboa emateko 55 herrialdetan zabalduko aholkulari-sare batek osatzen dute. Gaur egun, erakunde-ordezkaritza bat duten herrialdeetan, ordezkaritza horrek barnean hartzen du SPRIren enpresa-antena.

Erakunde- eta enpresa-eremuetako politikaz gain, euskara eta euskal kultura eta artea nazioartean zabalteko politika aktibo bat garatu du Eusko Jaurlaritzak. Apustu hori sendotzeko asmoz, 2/2007 Legearen bidez Etxepare Institutua sortu zen, euskararen irakaskuntza, ikaskuntza eta erabilera mundu osoan sustatzeko eta euskal kulturaren diziplina guztiak (literatura, arte eszenikoak, zinema, eskultura, pintura, musika eta abar) kanpoan ezagutarazteko helburu zehatzarekin. Etxepare Institutuak atzerriko profesionalekin dihardu lankidetzan hainbat eremutan (itzulpengintzan, kazetaritza eta ikerketan, besteak beste), gure kulturak nazioartean proiektio handiagoa izan dezan.

2.1.2. Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardueraren mugarriak

Eusko Jaurlaritzak laster hartu zuen nazioartekotzea Euskadiren garapenerako funtsezko faktoretzat, eta, horri esker, urteek aurrera egin ahala hainbat mugarri izan dira nazioarteko jardueran, erakunde-eremuan, enpresa-eremuan, kultura-eremuan eta teknologia-eremuan, besteak beste.

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik nazioartean egindako erakunde-jardunei dagokienez, askotariko arloetan (hezkuntza, kulturaren, ingurumenean, industrian, azpiegiturretan eta osasunean, besteak beste) sinatutako nazioarteko akordioak azpimarratu behar dira. Horrelako lankidetzak Estatuetakota eta eskualdeetako gobernuekin eta nazioarteko erakundeekin ezarri dira nagusiki. Sinatutako akordio ugarien artean, Ipar Irlandarekin osasunaren eta gizarte-laguntzaren arloan sinatutako Elkar Ulertzeko Memorandua (2012) eta Eusko Jaurlaritzaren eta UNESCOren artean kulturaren eta hezkuntzaren arloan lankidetzan jarduteko lortutako akordioa (1997) aipa daitezke.

Gainera, Euskadik aktiboki eta era jarraituan parte hartu du nazioarteko sare, elkarte eta erakundeetan. Eusko Jaurlaritzak Europako eta nazioarteko sare ugarian parte hartu eta hartzen du, eta eskualdeetako gobernuen eta Estatuaz azpiko erakundeen rola eta errealitate soziopolitiko eta ekonomiko berezia babesten ditu. Hona hemen garrantzitsuenetako batzuk: Legegintza Eskumendun Eskualdeen Sarea (REGLEG), Periferiako eta Itsasaldeko Eskualdeen Konferentzia (CRPM), Europako Eskualde Mugakideen Elkarte (ARFE), Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Nazioarteko Sarea (nrg4SD) eta Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzia (ENCORE). Horietatik, nrg4SD sarea –Ingurumen Sailaren gidaritzapean sortu zena eta Nazio Batuen UNEP Programak egiaztatu zuena– EAEko Administrazio Orokorra garapen iraunkorraren alde oro har egindako apustuaren adibide garbia da.

Eskualdeen arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak ere lehentasunezko intereseko eremua izan da. Arlo horretan, Euskadik harreman estuak ditu antzeko interesak eta arazoak dituzten eskualdeekin, hala nola Flandria, Quebec eta Bavariarekin. Flandriarekiko harremanak merkataritza-gaietan (Bilbo-Zeebrugge itsas autobidea abian jartzean, adibidez) eta Europan parte hartzeko aukera sendotzean oinarritu da. Quebec-ekiko lankidetzak, berriz, hainbat eremutan (hala nola hizkuntza-politikan, ingurumenean eta ikerketan) egindako hitzarmenetan gauzatu da, eta Euskadiren eta Bavariaren arteko harremana industria-politikari, I+Gko politikari, ekintzaitzari eta prestakuntzari buruzko informazioa elkartrukatzeko datza nagusiki.

Bestalde, Akitaniarekiko elkarlana mugaz gaindiko lankidetzaren adibiderik garrantzitsuenak da. Akitania-Euskadi Euroeskualdea 2011. urtean finkatu zen, Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea (LLET) eratu zenean, Akitania-Euskadi Lankidetzaren eta Plataforma Logistikoaren bitartez 20 urtetan lankidetzan jardun ondoren. Esparru horrek, halaber, Ipar Euskal Herriko agente, organismo eta erakundeekin harreman estu bat bideratzen lagundu du.

Testuinguru horretan bertan, Europako Kontseiluaren babesarekin, Pirinioetako Lan Erkidegoa (PLE) sortu zen 1983. urtean, Pirinioen inguruari mugaz gaindiko lankidetzarako egitura bat –Europako beste muga batzuetan zeuden antzekoak– emateko helburuarekin. PLEko kideak Aragoi, Katalunia, Euskadi eta Nafarroako Autonomia Erkidegoak, Frantziako Akitania, Languedoc-Rousillon eta Midi-Pyrénées eskualdeak eta Andorrako Printzerria dira. 2005. urtean, Espainiako zuzenbide publikoari lotutako izarra juridikoa hartu zuen PLEk, eta horrek esku hartzera bultzatu zuen, Europako funts eta programen kudeaketan bereziki.

Eusko Jaurilaritzaren beste lehentasun historiko bat kanpoan den euskal komunitatearekiko hurbilketari handiagoa sustatzea izan da, eta oraindik ere bada. Kolektibo horiek eta Euskal Etxeek Euskadirekin zituzten loturak gorde eta zabaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako Legea onartu zen 1994. urtean³. Lege horren xede nagusia honako hau da: erakunde horiek kideen onurarako indartzea, barne-kohesioa eta ekintza asoziatiboaren eraginkortasuna sendotzea, eta atzerrian bizi diren euskaldunei laguntza eta babes ekonomikoa ematea. Lege horren garapenera esker, lege-babesa eman zitzaizen Euskal Etxeei, eta sarea zabalduta egin zen (gaur egun 180 etxe baino gehiago daude 25 herrialdetan).

Garapenerako lankidetzaren arloan, euskal erakunde publikoek nazioarteko elkartasunari lotutako proiektuak babesteko garatutako politikek 25 urtetik gorako ibilbidea egin dute dagoeneko. Euskadin bultzatutako garapenerako lankidetzaren nolana ere, garrantzitsuenetako bat izan da lankidetzaren deszentralizatuaren eremuan, bai aitzindari izateagatik, bai bideratutako baliabide ekonomikoen kuantitateagatik edo egindako esku-hartzeen kopuruagatik. Azpimarratu beharra dago Euskal Autonomia Erkidegoa izan zela lehenengoa aurrekontuei buruzko legean garapenerako laguntza-jarduerak finantzatzeko saldo bat ezartzen.

1996. urtean, Euskal Fondoaren eraketa aurrerapen kualitatiboa izan zen tokiko agenteak nazioarteko jarduerari solidarioan txertatzeko prozesuan, eta erraztu egin zen ekimen berrien garapena, ekintza bateratua eta Euskal Fonda osatzen zuten erakundearen arteko koordinazioa. Gaur egun, Euskal Fondoak 100 kide baino gehiago ditu.

Horrez gain, Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen onarpena eta duela gutxi Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia abian jarri izana (gaur egun Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari atxikitako erakunde publikoa da) funtsezko mugak izan dira euskal gizarteak nazioarteko elkartasunarekin eta pobrezia desagerraraztearekin duen konpromisoa finkatzeko garaian.

Nazioartekotzea enpresa-ikuspegitik kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago gure produkzio-sareak lortutako nazioartekotze-maila. Zenbait adierazle agerian utzi dutenez, euskal enpresak kanpora za-

³ L8/1994 Legea, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanei buruzkoa.

baltzeko apustu garbi batean murgilduta daude. Eustaten datuen arabera, euskal korporazioen urteko esportazioen balioa 20.000 milioi eurotik gorakoa izan zen 2012an (Barne Produktu Gordinaren % 32), eta % 12ko erritmoan hazi da 2009. urtetik aurrera. Sektoreak kontuan hartuta, esportazioak ekipamendu-ondasunei, erdi-manufakturei eta automozioari lotutakoak izan dira nagusiki (guztizko esportazioen % 80). Esportazio-merkatuei dagokienez, euskal produkzioaren xede-herrialde nagusiak Frantzia eta Alemania izan dira, eta EB-15ak esportazioen % 60 hartu du). BEIT herrialdeekiko merkataritza (herrialde horiek gure nazioarteko salmenten % 6 hartzen dute gaur egun) urteko % 10eko erritmoan hazten ari da.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE aurrerantzean) jasotako Atzerriko Zuzeneko Inbertsioa 432 milioi eurora igo zen 2012an⁴, eta energia-hornikuntzaren, telekomunikazioen eta farmazia-produktuen fabrikazioaren sektoreetan gauzatu zen. Euskadik atzerrian egindako inbertsioak 773 milioi eurora iritsi ziren, eta finantza-zerbitzuen, telekomunikazioen eta energia-hornikuntzaren sektoreetan gauzatu ziren⁵.

Dena dela, nazioartekotzearen arloko mugariak ez dira erakunde-eremura eta enpresa-eremura mugatu. Ildo horretan, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloan, azpimarratu beharra dago Euskadiko zentro teknologikoen Europako I+G+Bko proiektuetan izan duten parte-hartze handia. Ikusienez, itzulerak 131 milioi eurotik 190,74rako igoera izan du Europar Batasunaren Ikerketa eta Garapen Teknologikoko VI. Esparru Programatik VII. Esparru Programara (2007-2013) bitarte. Zehazki, VII Programaren esparruan onartutako 406 jardueratan parte hartu du Euskadik.

Era berean, informazioaren teknologien eta komunikazioen eremuan, Eusko Jaurlaritzak «Euskadi Informazioaren Gizartean» lehen Plana sortu zuen 2000. urtean. Plan horretan, kultura-aldaketa bultzatzeko eta teknologia berriak pertsona guztien zerbitzura jartzeko hainbat ekintza proposatu ziren. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Informazioaren Gizartearen arloko lankidetzak akordio bat sinatu zuen 2003. urtean NBErekin eta Prestakuntzarako eta Ikerketarako Nazio Batuen Institutuarekin (UNITAR). Akordio horren helburua honako hau zen: pertsonen Informazioaren Gizartearen onurak lortzeko eskualdeetako gobernuek bete behar duten zeregina zehaztea, eskualdeetako gobernuen arteko benetako lankidetzak ezartzea, eta Nazio Batuek informazioaren gizartearen inguruko tokiko agenteak prestatzeko garatutako programan parte hartzea.

Hezkuntzaren arloan, azpimarratu beharra dago pixkanaka gora egin duela euskal ikasleen agerpenak nazioartean. Ildo horretan, 2010-2011 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutako pertsonen % 1,8k (lehen eta bigarren zikloko, gradu eta masterreko ikasleak barne) Erasmus Programan parte hartu zuen, eta ikasleek ikasketak zein praktikak egiteko mugikortasun-ekintzetan parte hartu zuten euskal erakundeekin kopurua 89ra igo zen (Estatuko zifrarik handiena izan zen)⁶.

Horrez gain, 1997an inauguratutako Guggenheim museoaren eraikuntzan lankidetzak publiko-pribatuaren alde egindako apustua mugaria izan da EAEko hiri-erlaketan eta turismoaren sustapenean. Museoak, batez beste, milioi bat bisitari baino gehiago izaten ditu urtean, eta eragin ga-

⁴ Invest in the Basque Country – SPRI, 2012.

⁵ Eustat.

⁶ Espainiako ERASMUS programari buruzko datuak eta zifrak, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoa (OAPEE).

rrantzitsua izan du euskal ekonomian eta gizartean, turismoa eta gune publikoak berpizteko aukerak bultzatu baititu Bilbon.

Bestalde, Osakidetzak nazioarteko hainbat proiektu garatu ditu osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzarako erakunde publikoen bitartez (hala nola Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Euskal Fundazioaren –BIOEF– eta Biogurutzeta, Biodonostia eta Kronikgune erakundeen bitartez).

2.2. Euskadiren nazioartekotzearen etorkizuna: erronkak eta aukerak

Ingurune globala zein tokikoa aldatu duten faktoreak direla-eta, euskal gizartearen errealitatea ere aldatu egin da. Testuinguru globalean, aldaketa-elementurik garrantzitsuenetako bat 2008an hasi zen munduko ekonomia- eta finantza-krisia izan da. Krisi horrek zalantzas betetako egoera berri bat ekarri du. Krisiak Euskadin beste herrialde edo eskualde batzuetan baino eragin txikiagoa izan badu ere, gure hazkunde-joera alderantzikatu egin du, eta enplegu-maila bereziki hartu du eraginpean.

Hori dela-eta, ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea X. Legegintzaldiko Programaren erronkarik handienetakoak dira. Arlo horietan aurrerapen garrantzitsuak egiteko, gero eta aldakorragoa eta globalizatuagoa den egoerara egokitutako planeamendu berriak behar dira.

Nolanahi ere, egungo egoera ekonomikoa ez da egoera global zein tokiko egoera berrian eragina duen faktore bakarra. Badira munduko ordena berria baldintzatzen duten beste alderdi batzuk ere: biztanleriaren piramidearen alderantzikatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologien aplikazio berriak (osasuna edo hezkuntza gauzatzeko moduan eragin garrantzitsua dutenak), energia-iturri berrien sorruntza, ingurumenarekiko kezka edota kulturaren aintzatespen handiagoa garapenerako faktore gisa.

Testuinguru horretan, nazioartekotzea ekonomia suspertzeko funtsezko ardatz bat da, baina, horrez gain, kontzeptu horrek ordena globalean dituen konnotazioen ondorioz, kultura-aldaketa esanguratsu bat egi-tea eskatzen du.

Hori dela-eta, euskal agente sozioekonomiko eta erakunde-agente guztiei kanpo-harremanen parte aktibo eta garrantzitsu bihurtzeko aukera emango dien sistema bat garatu behar du Euskadik. Agente horiek guztiak deituta daude atzerrian dugun posizioa sendotzeko eta lehentasunezko nazioarteko foroetan eta/edo lurraldeetan gure sektore anitzeko interesak babestu eta bultzatzeko zereginean inplika daitezten. Halaber, funtsezko zeregina beteko dute Europar Batasuneko politika eta araudietan eragina izateko dugun ahalmena indartzen.

Ahalegin horretan aurrerapenak egin badira ere, oraindik bide luzea geratzen da nazioartekotutako euskal agenteen kopurua handitzeko zein behar bezala koordinatutako estrategia bat aplikatzeko.

Horrela, beraz, arrazoiak arrazoi, zenbait jakintza-eremu dagoeneko hasiak dira nazioarteko jarduera bat era autonomoan eta irmoki garatzen, neurri handiagoan edo txikiagoan. Jakintza-eremu horiek (hala nola

enpresa-eremua, kultura, erakundeen kanpo-harremanak edo garapenerako lankidetzak) Euskadiko nazioarteko jardueraren zutabeak izan dira egun arte.

Edonola ere, prozesuaren fase horretan, orain arte nagusiki toki-eremuan jardun duten, baina beste eremu geografiko batzuetan ere jarduteko ahalmen handia duten agenteak Euskadiko kanpo-harremanetan txertatzean datza erronka nagusia. Hori izango litzateke, hain zuzen ere, Euskadin osasunaren, ingurumenaren edota hezkuntzaren arloan metatutako esperientziaren kasua.

Nolanahi ere, nazioartekotze-kultura integratzaile bat sortzeko garaian, oso garrantzitsua da jarduteko jarraibide komun batzuk ezarriko dituen eta EAEko agente guztientzako erreferentzia izango den estrategia bat garatzea, Basque Country Estrategia, hain zuzen ere. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da Euskadiren aktibo nagusietan oinarritutako herrialde-marka bat garatzea. Aktibo horiek hizkuntza-edo kultura-identitateari, industria-izaerari, turismoari, hezkuntza-sistemari edo osasun-sistemari lotutakoak izango dira. Marka-irudi horrek Euskadiko agente sozialen, agente ekonomikoen eta erakunde-agenteen adostasun eta atxikimendu-maila handia beharko du.

3.1. Euskadiren nazioartekotzea: herrialde-erronka

Nazioarteko egungo egoeraren ezaugarri nagusietako bat hazten jarraitzen duen globalizazioa da. Globalizazio horrek herrialdeen arteko mendetasunak areagotzen ditu, eta lankidetzak eskema berriak bilatu behar dira gobernantza globala bermatzeko. Globalizazioaren ondorioz, elkarren arteko konexioen kopuruak igoera esponentziala izan du, eta munduaren ikuspegia eraldatu egin da. Izan ere, globalizazioak oso eragin handia izan du eremu ekonomikoan, politikoan, sozialean, intelektual edo kulturean, teknologikoan eta ingurumenari lotutakoan.

Faktore geoekonomikoek neurri handian baldintzatzen dituzte nazioarteko harremanak. Hori dela-eta, indar ekonomikoaren eragin politikoko funtsezko faktorea da. Azken urte hauetan Asiako eta munduko beste inguru batzuetako ekonomiak bizkor hazi izanak mehatxupean jarri du AEBk, Europar Batasunak eta Japoniak eta Koreak osatzen duten Hirukoaren nagusitasuna, eta indar-erlazioa aldatu dela agerian uzten duen mundu multipolar bat ekarri du. Egoera berri horretan, Europar Batasuna munduko gune ekonomiko nagusia da, eta, ahuleziak gorabehera, nazioarteko funtsezko eragilea da oraindik ere.

Eguno gizarteek erantzun koordinatuak behar dituzten erronka globalei egin behar diete aurre. Ildo horretan, zenbait gairen aurrean (hala nola garapen ekonomikoaren eta iraunkortasuna, genero-berdintasuna, milioika pertsonen bizi duten muturreko pobreziaaren desagerraraztea eta biztanleriaren zahartzea), gobernuek beren mugetatik kanpo bilatu behar dituzte erantzunak. Deskribatutako testuinguru horretan, barneko eta kanpoko politikaren arteko ohiko bereizketak indarra galdu du, eta administrazio publikoek barne eskumenak baliatzeko eginkizunaren luzapen bihurtu dira kanpo-harremanak.

Horrela, beraz, garbi geratu da Euskadiren etorkizuna mundu globalean erabakiko dela. Horregatik, nazioartekotzea, enpresa-premia ez ezik, herrialde-erronka ere bada Eusko Jaurjaritzarentzat, orain eta etorkizunean garrantzi handia izango duen kultura-aldaketa bat ekarriko duen erronka, alegia. Euskal gizartearen etorkizuneko ongizatea, hein handi batean, euskal erakunde, pertsona, enpresa eta agente sozioekonomikoek erronka horri aurre egiteko duten ahalmenaren arabera izango da. Erronka horri aurre egiteko, elkarren mendekoa eta gero eta lehiakorragoa den mundu batera egokitutako politika publikoak zehaztu eta hedatu beharko dituzte administrazio publikoek.

Aurreko kapituluaren islatu dugunez, ukalezina da Euskadik urte hauetan oso ibilbide aipagarria egin duela nazioartean. Dena dela, nazioartekotzea prozesu bat da, eta, etapa berri honetan, jauzi kualitatibo bat

egin behar da eta orain arte lortutako kanpoko proiektzioa finkatu eta sakondu egin behar da, herrialdeko erakunde eta agente guztien parte-hartzearekin. Ildo horretan, euskal gizarteari bere agendetan nazioarteko dimentsio garbi bat txertatzeko egiten zaion gonbidapena da Basque Country Estrategia.

Euskadik eragile globala izan behar du, eta presentzia handiagoa izan behar du nazioartean. Euskadik nazioartean duen proiektzioak baliagarria izan behar du Europako eta nazioarteko testuinguruan gune propio bat lortzeko eta, era horretan, euskal interesak sustatzeko, gure identitatea eta balioak proiektatzeko eta horietan sakontzeko. Aldi berean, pertsonen zerbitzura egongo den nazioarteko ordena bidezkoago eta iraunkorrago bat egiten lagundu behar dugu.

Gaur egun, ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko estrategiaren zerbitzura jarri behar da nazioartekotzea. Enpresen nazioartekotzea atzerriko erakunde-proiektzioarako strategiaren berezko elementua da. Lehendakariak inbestidurako osoko bilkurako diskurtsoan aurreratu zuenez, «Euskadi kanpora irtetea erabakigarria da gero eta irekiagoa den merkatu batean ekonomikoki aurrera egin ahal izateko». Horren ondorioz, enpresa-sarearen lehiakortasuna bermatu nahi da Euskadi nazioarteko esparruan integratzearen bidez, era horretan euskal herritarren ongizatea bermatuko duen giza garapen iraunkor handia lortu ahal izan dadin. Hori dela-eta, nazioarteko lankidetzarako aliantzak eta estrategiak beharko dira enpresa aitzindariak eta euskal ETE lehiakorrak dauden sektoreetan, eta sortzen ari diren eta Eusko Jaurlaritzaren enpresa-politikak lehentasunezko zat hartu dituen sektoreetan.

Euskadiren nazioartekotzea Europar Batasunera bideratu behar da lehenik eta behin. Izan ere, Estatuaz gaindiko gune horrek eragin erabakigarria du gure eskumenak baliatzeko aukerari dagokionez, eta gure produktu eta zerbitzuen merkatu nagusia da. Hori dela-eta, gure ahotsa helaraztea eta Erki-degoko erabaki-prozesuetan zuzenean parte hartzea funtsezkoa da subsidiarotasun-printzipioan eta maila anitzeko gobernantza baten garapenean oinarritutako Europa federal bat osatzeko. Aldi berean, Europar Batasunean dugun presentziari esker, lankidetzari handiagoa lortu behar dugu gure errealitatearekin osagarritasunak dituzten Europako eskualde lehiakor eta berritzaileekin, eta horiekiko sinergiak baliatu behar ditugu.

Euskadik, Europarekin batera, beste eremu geografiko batzuetan duen presentzia areagotu behar du, eta arreta berezia eskaini behar die gorantz doazen herrialde eta eskualdeei. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko strategiaren bidez (estrategia horren alderdi guztiak kontuan hartuta), Euskadiko gobernu kanpoko erakunde eta agenteek erreferentziazko sare transnasionaletan parte-hartze handiagoa izatea lortu nahi da. Egitura horietan parte hartzea lagungarria izango da guztion interesak babestea, kanpora transferitzeko metatu ditugun jardunbide egokiei balioa ematea eta lankidetzari proiektuak garatzea ahalbidetuko duten lankidetzari-dinamika egonkorrak sendotzeko.

Nazioartera zabaltzeak aukera ematen du, halaber, hainbat esparrutako (zientzia- eta teknologia-esparrua, kultura-esparrua, osasun-esparrua, ingurumen-esparrua eta abar) nazioarteko abangoardiarekin loturak ezartzeko eta/edo lotura horiei eusteko, eta ikuspegiak eta jardunbide egokiak parte-katzeko eta jakintza berria biltzeko gune bat sortzea bultzatzen du. Horrela, beraz, nazioartekotzeak gure gizartearen garapen jarraitua eta iraunkorra sustatzeko politika publiko eraginkorragoak diseinatzeko eta hedatzeko laguntzen du. Ildo berean, sendotu egin behar da Euskadi nazioarteko erakunde lan-dinamikan txertatzearen aldeko apustua, eta zuzeneko parte-hartze instituzionala, soziala eta ekonomikoa sustatu behar da foro eta proiektu garrantzitsuetan.

Gure nazioarteko proiektzioan eta mundura zabaltzeko zereginean sakontzeko, beharrezkoak dira estrategia integral bat (Basque Country Estrategia) eta herrialde-marka bat. Marka horrek, gure indar eta berezitasunetatik abiatuta, eragile global gisa, bikaintasun-erreferentzia gisa, bizi-kalitatearen eta gizarte-koehesioaren eredu gisa eta lurralde berritzaile eta lehiakor gisa kokatuko gaitu. Euskal gizartearen balio jakin batzuk (ahaleginaren kultura, konpromisoa, hobetzeko ahalmena, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta justizia soziala, besteak beste) EAEren irudiarekin lot daitezten eta gure nazioarteko aurkezpen-txartel bihurtu daitezten lortu nahi da. Hori lortzeko, ezinbestekoa da kanpoan den euskal komunitatearekiko eta Euskadirekin kidetasuna sentitzen duten pertsonetikiko loturak sendotzea, funtsezko aktiboak baitira gure herrialdeak nazioartean duen posizioa finkatzeko.

Gainera, euskal gizarteak arazo globalak konpontzeko eman beharreko laguntza solidarioa bideratzeaz arduratuko da Basque Country Estrategia, bereziki garapenerako lankidetzaren eremutik abiatuta.

3.2. X. Legegintzaldiko Gobernu Programarekin bat egitea

X. Legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzaren programak hainbat helburu eta ekimen ezarri ditu, honako hiru konpromiso handi hauetan bilduak: Enplegua eta pertsonak (I. Konpromisoa), Bakea eta bizikidetzeta (II. Konpromisoa) eta Euskadirako estatus politiko berria (III. Konpromisoa). Nazioartekotzea zeharka agertzen da I. eta II. konpromisoetan, eta, beraz, Basque Country Estrategia lantzeko zeregina Gobernu Programaren atal horietan kokatu behar da.

I. Konpromisoaren esparruan, Programak autoenplegua eta lanbide-heziketako euskal sistema bultzatzeko eta enpresen lehiakortasuna areagotzeko aukera hartzen du kontuan. Ildo horretan, industria-politikaren euskal eredu berreskuratu behar da, eta nazioartekotzeari lehentasuna eman behar zaio, funtsezko faktorea baita garapen ekonomiko eta lehiakortasun-garapen iraunkor bat sortzeko eta giza garapen bidezko, solidario eta integral bat lortzeko. Horregatik, Programaren I. Konpromisoaren barruan, «Nazioartekotzea bultzatzea» ardatza dago. Ardatz hori, nolahi ere, hainbat helburu estrategikotan eta Euskadiren nazioarteko proiektzioa eta aintzatespena bultzatzera bideratutako hainbat ekimen zehatzetan banakatuta dago.

Ardatz horren barruko helburuak eta ekimenak enpresen nazioartekotzearen ikuspuntutik zein erakunde-proiektzioaren ikuspuntutik formulatu dira, eta Jaurlaritzaren hainbat jardun-eremu hartu dira kontuan, hala nola kanpo-harremanak berak, industria, kultura eta turismoa. Osagarri gisa, 2014ko otsailean onartutako Euskadi 2020: Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programak nazioartekotzearen arloko ekintza-ardatz bat du, eta ardatz horrek bi eremu desberdinetan dihardu, enpresa-eremuan eta erakunde-eremuan, hain zuzen ere.

Testuinguru horretan, Basque Country Estrategiak Programaren I. Konpromisoan txertatutako helburuak jasotzen eta garatzen ditu, eta zeharkako tratamendua ematen die. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardura bideratuko duten bektore komunak identifikatzen ditu.

II. Konpromisoaren esparruan, Gobernu Programak behin betiko ekin nahi die bakearen eta bizikidetzaren helburuei, ETaren indarkeriak hainbat hamarkadatan euskal gizartea zatitu ondoren. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzaren Plan Estrategikoa onartu zuen 2013ko azaroaren 26an. Plan horrek 18 jardun-ildo ditu, eta bakea behin betiko eta atzerakorik gabe finkatzea eta, agente sozial, politiko eta instituzionalekin lankidetzan, bizikidetzaren normalizazioan laguntzea du helburu. Horretarako, Planak lehentasuna ematen dio nazioartean bake-prozesuetan izan diren beste esperientzia batzuetatik ikasteari, eremu horretan dugun esperientzia eta jakintza proiektatu eta eskaintzeari, eta Euskadiren irudia bakearen aldeko konpromisoarekin lotzeari.

Nazioartean esperientziak trukatzera bideratutako ekimenek eta bakearekin konprometituta dagoen herrialdearen proiektzioak Gobernu Programaren II. Konpromisoa betetzen laguntzen dute, eta Basque Country Estrategian bilduta daude.

3.3. Basque Country Estrategiaren ikuspegia

Gaur egungo testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoan, beste inoiz baino neurri handiagoan, Gernikako Estatutuak euskal erakundeei esleitutako eskumenak baliatzeko eginkizunaren luzapen bihurtu da nazioartekotzea. Hori dela-eta, kanpo-harremanak ezinbesteko tresnak dira Euskadiren interesak munduan eraginkortasunez babestu eta sustatzeko.

X. Legegintzaldiko Gobernu Programari jarraiki, Euskadiren nazioartekotzea «herrialde-erronka» da, eta, hori lortzeko, dimentsio globala txertatu behar da jakintza- eta jardun-eremu guztietan. Erronka horren aurrean, ez dugu hutsetik abiatu behar. Produkzio-sarea nazioartekotzea bere jardueran txertatzen aitzindaria izan bada ere, esperientzia hori ez da bakarra izan. Aitzitik, hainbat agenteren bitartez eta hainbat eremutan, jarduera global jakin batzuk egin dira.

Edonola ere, nazioartekotzearen bidean aurrera egiteko, beharrezkoa da euskal agente sozioekonomiko, kultural eta instituzional guztiek era koordinatu eta osagarrian eta ikuspegi komun batetik abiatuta jardutea.

Esparru Estrategia honek Euskadiren nazioartekotzeari dagokionez proposatzen duen ikuspegia honako konpromiso honetan laburbil daiteke:


IKUSPEGIA

Euskadi XXI. mendeko abangoardian kokatzea, Europaren eraikuntzan gune propioa izango duen eragile global gisa, eta bere berezitasunengatik eta giza garapen iraunkor handiagatik aintzatetsita, mundura irekita eta kanpoan den euskal komunitatearekin hertsiki lotuta egongo den herrialde erakargarri, lehiakor eta solidario gisa

3.4. Basque Country Estrategiaren eskema

Basque Country Estrategiak arestian zehaztutako ikuspegia eta Eusko Jaurlaritza osoarenak diren eta jatorria lehendakariak X. Legegintzaldiko Gobernu Programan adierazitako lehentasunetan duten helburu estrategiko batzuk ditu abiapuntu.

1. grafikoa.
Basque Country Estrategia



Iturria: geuk egina.

Gobernu Programan azaldutako helburuak lortzeko, kasu askotan nazioarteko ikuspuntua dakarten ekimenak gauzatu behar dira. Adibidez, lanbide-heziketaren eredu berri bat sortzeko helburua lortzeko neurri gisa, euskal lanbide-heziketa nazioartekotzeko eta Europar Batasunean txertatzeko aukera sustatuko duen ekimen bat ezartzen du Gobernu Programak, eta, era horretan, agerian geratzen da

Europako esparruarekin bat egiteko beharra. Era berean, euskal sorkuntza artistikoa eta euskal kultura bultzatzeko helburuari dagokionez, ingurune global batean jarduteak duen garrantzia aitortzen da, eremu horretan kultura-sorkuntzari eta nazioarteko elkartrukeri lotutako proiektuen finantzaketari eusteko konpromisoa hartzen baita bere gain.

Datozen urteetan Eusko Jaurlaritzaren Sailek eta Sektore Publikoak nazioartean egingo dituzten ekimenak lau jardun-bektore komunetan koka daitezke:

- Euskadiren proiektzioa kanpoan.
- Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea, eta erronka globalei aurre egiten laguntzea.
- Europako esparruarekin bat egitea.
- Jakintza biltzea.

Bektore horiek, nolana ere, X. Legegintzaldiko Gobernu Programan azaldutako helburu guztien ikuspegi lortzen laguntzeko bere gain hartutako asmoen oinarri komun bat irudikatzen dute.

Era berean, «nazioartekotze» kontzeptu integratzaile bat aplikatuta, Jaurlaritzaren jardura osatzen duten jardun-eremu guztiek parte hartu beharko dute Basque Country Estrategia abian jartzean. Hala ere, adierazi beharra dago Estrategia horren eginkizun nagusia erakundeen kanpo-harremanei, enpresen nazioartekotzeari, turismoari eta kulturari lotuta egongo dela.


Esan beharra dago, halaber, Basque Country Estrategiaren esparruan Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jardura jardun-eremuen inguruan planteatzen dela, Sailen arabera egitura organikoari jarraitu ordez. Izan ere, askotan, Sail bereko eremu batzuek, izaera desberdina dutenez gero, premia desberdinak dituzte nazioartekotzearen arloan, eta horrek, ezinbestez, ikuspegi desberdinak dakartza.

Arestian ikusitako grafikoan, Basque Country Estrategiaren jardun-eremuak honako patroi honi jarraiki irudikatzen dira: lehenik eta behin, jakintza-eremuak agertzen dira, hau da, beren izaeragatik Estrategiarekin lotura zuzenagoa dutenak (erakundeen kanpo-harremanak, enpresen nazioartekotzea, kultura eta turismoa), eta, ondoren, gainerako eremuak Eusko Jaurlaritzaren barne-antolamenduaren beraren arabera antolatzen dira.

Azkenik, Basque Country Estrategia abian jartzeak ekintza-ildoak eta eremu jakin batzuetan garatu beharreko jardunak zehaztuko dituzten nazioartekotze-plan sektorialak zehaztu eta onartzea eragin dezake. Adibide gisa, erakundeen kanpo-harremanak (horiei lotutako Plana hurrengo kapituluaren landuko dugu) eta Enpresak Nazioartekotzeko Plana (EAEko enpresa-sareak kanpoan duen presentzia areagotzeko tresnak zehaztuko dituen) aipa daitezke.

1. taula.

Basque Country Estrategiaren eskema



Iturria: geuk egina.

3.5. Nazioartekotzearen bektore komunak

Euskadi mundura zabaltzeak duen garrantzia dela-eta, egungo Eusko Jaurlaritza osatzen duten Sailek eta horiei lotutako Sektore Publikoak datozen urteetan nazioarteko hedadura izango duten jarduerak egitea dute aurreikusita. Zenbait kasutan, lehendik egiten ziren jardun batzuekin jarraituko da, eta area-gotu egingo dira. Beste batzuetan, berriz, atzerrian jarduteko bide berriak ireki nahi dira.

Basque Country Estrategiaren bidez, beste urrats bat egin nahi da, eta koherentzia eta nabarmentasun handiagoa eman nahi zaio Euskadiko administrazio orokorrari. Horretarako, nazioartekotzearen lau bektore komun zehaztu dira. Bektore horiek Gobernu Programan ezarritako helburu estrategikoak lortzeko abian jartzen diren jardun guztien oinarri dira. Lau bektore horiek, gainera, Euskadik herrialde gisa behar duen nazioartekotze-ikuspegia gauzatzen lagunduko dute.

2. grafikoa.

Nazioartekotzearen bektore komunak

NAZIOARTEKOTZEAREN BEKTORE KOMUNAK

1. BEKTOREA. Euskadiren proiektzioa kanpoan
2. BEKTOREA. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea, eta erronka globalei aurre egiten laguntzea
3. BEKTOREA. Europako esparruarekin bat egitea
4. BEKTOREA. Jakintza biltzea

Iturria: geuk egina.

1. BEKTOREA. Euskadiren proiektzioa kanpoan

Euskadik nahi duen ongizate-maila lortzeko, behar bezala kokatu beharra dago mundu globalean, eta, beraz, euskal erakundeek eta agente sozial eta ekonomikoek munduan kokatzeko duten gaitasunaren araberakoa izango da ongizatea.

Gaur egun, enpresak eta herrialdeak lehian ari dira beren nazioarteko testuinguruan gune propio bat aurkitzeko. Lurralde baten berezitasunetan oinarritutako irudi edo marka bat sortzeak («nation branding») eta ondoren kanpoan zabaltzeak eragin handia du lurralde horrek inbertsioak, kalifikazio handiko profesionalak eta turistak erakartzeko duen ahalmenean, baita lurraldeak bere eragin politiko eta ekonomikoa mundu osoan baliatzeko duen ahalmenean ere. Marka, beraz, lehiatzeko abantaila ematen duen elementu bat da.

Euskadi kanpoan kokatzeko eta nazioartean bikaintasun-erreferentzia gisa ezaguna eta aintzatetsia izateko erronkaren aurrean, atzerrira irudi erakargarri bat helarazteko giltzarria da Basque Country marka. Euskadi herrialde txikia da, eta, beste batzuek bezala, aukera berriak detektatu eta jakintza bildu behar du. Edonola ere, ukazina da Euskadik erakusteko eta helarazteko moduko ezaugarri eta gaitasun ugari dituela. Basque Countryk nazioarteko proiektzioaren eta marka-estrategiaren oinarri izan daitezkeen faktore bereizgarriak ditu: hizkuntza eta identitate propioa, balio partekatuak eta errotuak (ahaleginaren kultura, emandako hitzarekiko konpromisoa eta konfiantza, adibidez) eta ibilbide luzea autogobernua- ren edo industria-politikaren arloan, besteak beste.

Basque Country marka aurkezpen-txartela dela esan daiteke, adostasun handia lortu duena eta, beraz, balio handikoa edozein euskal agenterik nazioarteko jardueran laguntzeko tresna gisa. Nolanahi ere, marka hori ekimen pribatuak eta erakunde publikoek sortu eta aplikatuko dute, baina gizarte osoa ekimen horri atxiki dakion, ekimena bere egin dezan eta bere jardun-eremuan parteka dezan lortu nahi da.

Ahalegin horretan, Basque Country markaren aurkezpena hainbat euskarri eta hizkuntzatan landu ondoren, Eusko Jaurlaritza, bere Sailen bitartez, aktiboki saiaturiko da beste erakunde batzuen eta enpresa eta gizarte-agenteen eta kulturaren, turismoaren, hezkuntzaren eta abarren arloko agenteen atxikimendua lortzen, marka nazioartean erabil eta zabal dadin.

Halaber, EAEko administrazio orokorraren jardun-eremu guztietan, aktiboki lagunduko da nazioartean behar bezala kokatzen. Horretarako, Euskadi alderdi eta politika publiko batzuetan erreferentzia dela edo izan nahi duela kontuan hartuta, alderdi eta politika horiek nazioarteko foro eta sareetan zabalduko dira.

Nolanahi ere, Basque Country marka sortzeko lana zeregin kolektiboa da, eta herrialdeko erakunde guztiak gonbidatuta daude laguntzera. Horretarako, Euskadi nazioarteko erreferentzia bihurtzeko moduko jakintza diferentzialaren eta eredu eta politika publiko berritzaileen ekarpena egin dezake bakoitzak, bere eremuan.

2. BEKTOREA. **Kanpoko interes sektorialak sustatu eta bultzatzea, eta erronka globalei aurre egiten laguntzea**

Egungo egoera ekonomikoak krisialdi bortitza, zalantza eta indarrean dagoen eredu ekonomikoaren eraldaketa ditu ezaugarri bereizgarri, eta, hori dela-eta, ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea lehen-tasunak dira Eusko Jaurlaritzarentzat. Euskadin berriz ere hazkundera izateko eta enplegua sortzeko, beharrezkoa da lehiakortasuna hobetzea, gizarte-, ekonomia- eta enpresa-sarea indartu eta garatzea, eta enpresek eta beste agente sozioekonomiko batzuek nazioarteko merkatuetan jarduteko ahalmena izatea. Premisa horretatik abiatuta, aukerak detektatzera eta euskal agenteak nazioartekotzeko prozesua babes-tuko duten mekanismoak identifikatzera bideratuko da euskal administrazioak eremu guztietan garatuko duen kanpoko jardura.

Ilido horretan, Eusko Jaurlaritzaren Sailek eta horiei lotutako Sektore Publikoak konpromisoa hartu dute produkzio-ahalmen, kultura-ahalmen, merkataritza-ahalmen edo turismo-ahalmenei lotutako nazioarteko interesak lortzea ahalbidetuko duten politikak eta tresnak abian jartzeko. Era berean, toki-mailako «egiten jakitea» sustatzeko agente gisa jardungo dute kanpoko jardura betetzean. Ilido horretan, ordezkari-lanetan jardungo dute, eta ateak zabalduko dituzte Euskadiko hainbat foro sektorialetan bildutako jakintza eta esperientziara.

Gaur egun nazioarteko harremanak Euskadiko sektore anitzeko interesen babesean hartzen ari diren garrantzia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak alde biko harremanak ezarri eta akordioak lortu nahi ditu beste herrialde eta/edo eskualde batzuekin, eta, besteak beste, interes komunak babestea eta lankidetzaren proiektuak formulatzea bilatuko du. Gainera, gure eredu, produktu edo zerbitzuak esportatu edo erakusteko garaian EAEk lehenetsitako merkatu berrietara irekitzeko aukera erraz dezakete aliantza horiek.

Era berean, nazioarteko erakundeetan eta erakunde multilateraletan duen presentzia sendotu nahi du Euskadik, jakintza elkartrukatu eta/edo eskualdatzeko, ondasunak eta/edo zerbitzuak esportatzeko eta nazioartean proiektuak garatzeko aukerak sor ditzaketen agenteak baitira erakunde horiek.

Euskadi eragile globala izateak esan nahi du gizarte gisa arazo globalak konpontzeko garaian zeregin aktibo bat hartu behar dugula gure gain. Hori dela-eta, kanpoan ditugun interesen babesaz gain, euskal agenteek eta EAEko administrazio orokorrak milioika pertsonen pobrezia- eta bidegabekeria-baldintzak desagerraraztearekin dugun konpromiso solidarioa bideratzeko sustatutako jardun guztiak biltzen ditu bektore honek.

3. BEKTOREA. **Europako esparruarekin bat egitea**

Europar Batasuna eta haren eraikuntza-prozesua lehentasunez jardun beharreko bektorea da Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanetarako.

Europar Batasuna, euskal ondasun eta zerbitzuak esportatzeko merkatu nagusia ez ezik, Euskadin aplikatu beharreko arau asko zehazten diren gunea era bada. Europar Batasunean, halaber, erabakiak hartu eta planteamendu estrategikoak eztabaidatzen dira, eta, aldi berean, euskal administrazioak abian jartzen dituen politikak eta haren eskumenak berak bete-betean eraginpean hartzen dituzten etorkizunerako joerak eta lan-esparruak ezartzen dira. Hori dela-eta, beharrezkoa da European tokia hartzea, aktiboki parte hartzea eta eraikuntzan ahotsa izatea.

Esparru horretan, Jaurlaritzaren ekintza, lehenik eta behin, honako apustu honetan datza: Erkidegoan hartzen diren eta gure autogobernua zuzenean eraginpean hartzen duten erabakiak hartzeko foro nagusietan euskal erakunde eta agenteen presentzia sendotzearen aldeko, eta Euskadirentzat lehentasunezko interesa duten beste gune batzuetan euskal erakundeen parte-hartzea sustatzearen aldeko apustua, hain zuzen ere. Horrela, beraz, datozen urteei begira, funtsezkoa da Estatuko Administrazio Orokorrarekin akordioak bilatzea, Euskadik Erkidegoko erakundeetan eta gure eskumeneko gaiei buruz eztabaidatzen duten Europako Kontseiluaren erakundeetan duen parte-hartzea areagotu eta hobetu ahal izan dadin. Horren bidez lortu nahi den helburua honako hau da: foro horietan parte hartzearen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Sailek, Europako politikak goiz ezagutzeaz eta beren politikak hartutako araudi eta esparruekin lerrotzeaz gain, Europako politikak konfiguratzekeo prozesuan parte hartzea.

Halaber, Europar Batasunean sustatzen diren programa eta proiektuetan euskal agenteen parte-hartzea bultzatzea beste lehentasun bat da, horrek aukera ematen baitu Euskadi Europako esparru komunean integratzekeo prozesua optimizatzekeo eta Erkidegoko baliabideak herrialdera itzultzekeo.

Helburu horiekin, beharrezkoa izango da eskuragarri dauden kanalak behar bezala erabiltzea (partenariatuak, aliantza estrategikoak, foroak, sareak, kanal informalak eta abar), interes estrategikoak duten programa eta proiektuetan dugun presentzia sendotzekeo.

Azkenik, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzeta lehentasunez jardun beharreko esparru bat da, gizartean eta ekonomikoki kohesionatuta egongo den gune bat sortzea eta Euskadiren antzeko eskualdeekin gaitasun eta interes komunak bateratzea ahalbidetzen baitu, Europako esparruan dugun ahalmena eta eragina sendotzekeo..

4. BEKTOREA. **Jakintza biltzea**

Ingurune aldakor batean bizi gara, eta aurrea hartzen, egokitzen, berritzen eta funtzionamendu-eskema zaharrak berrikusten jardun behar dugu etengabe. Gainera, aurrerapen teknikoei esker, bizkor eta merke eskura ditzakegu beste lurralde batzuetan sortutako esperientziak eta jakintzak.

Euskal gizarteak beste gizarte garatu batzuek dituztenen antzeko erronkei aurre egin behar diela kontuan hartuta, bidezkoa da administrazioaren nazioarteko jardunaren zati handi bat herrialde eta lurralderik aurreratuenak erronka horiei aurre egiteko zer neurri hartzen ari diren ikustera bideratzea. Jakintza biltzeak, erreferentzia berritzaileak bilatzeak eta ikasteko aukera emango diguten beste errealitate osagarri batzuekin aliantzak ezartzeak bektore komun bat osatzen dute Eusko Jaurlaritzaren Sailen eta Sektore Publikoaren nazioarteko harremanetan.

Basque Country mundu globalean erreferentziazko eragile izateko, Eusko Jaurlaritzak zeregin aktiboa bete beharko du bere indarrak eta ahuleziak abangoardian dauden herrialdeekin kontrastatzean. Testuinguru horretan, jakintza etengabe biltzeko eta kanpotik etengabe ikasteko aukera erraztuko duen dinamika bati heltzeak ziurtatu egingo du Euskadiko Administrazio Publikoaren esku-hartzea jardunbide berritzaile egokietan oinarrituta egongo dela.

Ildo horretan, X. Legegintzaldiko Gobernu Programan bildutako politika publikoetako eta esku-hartzeko ereduak asko abian jarri eta/edo sendotzeko, mesedegarria izango da arlo horretan erreferentziak diren herrialde edo eskualdeek duten esperientzia eta jakintza ezagutzea. Horren ondorioz, EAEko administrazio orokorrak haren jarduera osatzen duten eremu tematiko askotan aplikatu beharreko nazioarteko jardunbide egokiak eta jakintzak biltzea aurreikusi du datozen urteetarako. Ildo horretan bertan kokatu behar da talentua txertatzearen eta Euskadi leku erakargarri bihurtzearen aldeko apustua. Euskadi horretan, prestakuntza- eta kalifikazio-maila duten gazte profesionalak beren aurreikuspenekin bat etorriko den lanbide-garapena lortu ahal izango dute.

Bektore honen esparruan, bikaintasun-eredu diren herrialde eta eskualdeekin alde biko harremanak ezartzea eta eduki egokiak izango dituzten eta jakintza eta esperientzia elkartrukatzeko proiektu bateratuen garapena ekarriko duten lankidetzak-akordio egonkorren gauzatzea lehentasunezko tresnak izango dira Euskadiren kanpo-harremanetarako.

Gaur egun, nazioarteko erakundeek eragile garrantzitsu gisa dihardute Euskadik ere aurrean dituen mugaz gaindiko erronkei erantzutera bideratutako planteamendu estrategikoak eta politika publiko berritzaileak zehazteko garaian. Eta erakunde horien agenda osatzen duten gaiak aurrez ezagutzea eta interes handiko arloetako estrategia eta politika horiek zehazten aktiboki parte hartu ahal izatea ere Basque Country Estrategiarako lehentasunezko hartzen da.

Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan eta orain arte azaldutako nazioartekotzearen lau bektore komuneko esparruan egingo dituen jarduerak lagungarriak dira, ondorengo irudian ikus daitekeenez, Gobernu Programan jasotako nazioartekotzearen helburu estrategikoak lortzeko.

2. taula.

Nazioartekotzearen bektore komunek X. Legegintzaldiko Gobernu Programaren helburu estrategikoetan duten eragina



Iturria: geuk egina.

Lehen bektorearen kasuan (Euskadiren proiektzioa kanpoan), ekimen pribatuak, erakunde publikoek eta euskal gizarte osoak Basque Country marka sortzea eta nazioartean hedatzea bultzatuko du, beste zenbait jardueraren artean, Estrategia honek. Eta, hori guztia, inbertsioak, kalifikazio-maila handiko profesionalak eta turistak erakartzeko dugun ahalmenean eta mundu osoan eragin politiko eta ekonomiko izateko edo ondasunak eta zerbitzuak esportatzeko dugun aukeran eragina izateko helburuarekin. Era horretan, besteak beste herrialdea kanpoan proiektatzeko, industria globalizatzeko eta ETEen esportazio-oinarria zabaltzeko helburu estrategikoetan lagunduko da.

Basque Country Estrategiak, interes sektorialak sustatu eta erronka globalei aurre egiten laguntzeari dagokionez, nazioartean euskal agente sektorialen ordezkari gisa jardutera eta gure sare sozioekonomiko eta enpresa-sarerako estrategikoak diren merkatu eta eremu tematikoetan egindako foro sekto-

rialetan Euskadik jaso duen jakintzara eta esperientziara irekitzera gonbidatzen ditu EAeko erakunde publikoak. Horrelako jarduerak nazioartekotzearen bigarren sektore komunean kokatuta daude, eta eragina dute ETEen esportazio-oinarria zabaltzeko eta industria globalizatzeko helburuetan. Bigarren sektore horrek, gai globalen kudeaketaren hobekuntzan rol aktibo baten garapena ere bultzatzen duenez gero, zuzeneko eragina du garapenerako lankidetzari lotutako helburuetan.

Hirugarren sektorearen kasuan (Europako esparruarekin bat egitea), euskal agenteek Europar Batasunak sustatzen dituen ekimenetan (hala nola Horizon 2020 programan edo espezializazio adimendunaren estrategietan –RIS3–) parte hartzeko aukera sustatzea proposatzen du Estrategiak. Jarduera hori lagungarria izango litzateke, adibidez, Gobernu Programan jasotako Euskadiko ZTB sistema (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza) nazioartekotzeko helbururako.

Azken sektoreari dagokionez (Jakintza biltzea), talentua txertatzera eta Euskadi prestakuntza- eta kualifikazio-maila handia duten gazteentzako leku erakargarri bihurtzera bideratutako ekimenak jasotzen ditu, besteak beste, Basque Country Estrategiak. Halaber, jakintza eta esperientzia elkartrukatzeko baterako proiektuen garapena ekarriko duten lankidetzak-akordio egonkorren gauzatzea sustatuko da. Horrela, beraz, laugarren sektoreak X. Legegintzaldiko Gobernu Programaren hainbat helburu estrategikotan izango du eragina, hala nola nazioarteko prestakuntza bultzatzeko eta kanpo-harreman aktiboak ezartzeko helburuetan.

3.6. Jardun-eremu tematikoak

Esparru Estrategia honen lehentasunezko helburua herrialde-erronka bati erantzutea da, Euskadi osoaren nazioartekotzean sakontzeko erronkari, hain zuzen ere. Praktikan, asmo hori lortzeko beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzaren ekintzaren ia eremu guztiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, Estrategian inplikaturik egotea, eta datozen urteetan adierazitako lau sektoreetako batzuei erantzungo dieten nazioarteko jardunak egingo direla aurreikustea.

Garbi dago jardun-eremu batzuek, iraganeko ibilbideetatik zein beren izaeretatik beragatik, beste batzuek baino rol aktiboagoa beteko dutela nazioartean. Ildo horretan, nazioartean abian jarri beharreko ekimenetako asko erakunde kanpo-harremanei, enpresa-sareak eta turismo-sektoreak behar duten nazioarteko sustapenari eta euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko sustapenari lotuta egongo dira. Hala ere, ondoren adieraziko dugunez, datozen urteetan Jaurlaritzaren ia ekintza-eremu guztien zeharkako elementu bihurtuko da nazioartekotzea.

Kanpo-harremanen eremua

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia lehendakariari egungo Eusko Jaurlaritzaren ekintzaren lehentasunezko helburu bat (hots, Euskadi osoaren nazioartekotzea) planifikatu, bultzatu eta koordinatzen laguntzen dion organoa da.

Testuinguru horretan, sailen artean eta erakundeen artean koordinazio eta lankidetzaren handiagoa lortzeko eta Euskadiko sektore anitzeko eragile guztiekin nazioarteko proiektuak bateratzeko aukera bultzatzeko lan egingo du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, era horretan Euskadik nazioartean presentzia eta proiektu handiagoa izan dezan.

Era berean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, alde batetik, nazioartean behar bezala kokatzeko, Euskadik atzerrian dituen sektore anitzeko interesak babesteko eta jakintza eta esperientziak elkartrukatzeko ingurune apropos bat sortzen lagunduko du, eta, horretarako, hainbat ekintza-ildo garatuko ditu. Horien artean, honako hauek azpimarra daitezke: herrialde edo eskualde estrategikoekiko eta nazioarteko erakundeekiko harremanen ezarpena, eta euskal agenteek sare tematikoetan zein eragin handia duten nazioarteko proiektu eta ekimenetan parte hartzeko aukeraren sustapena (1., 2., 3. eta 4. sektoreak). Gainera, Eusko Jaurlaritzaren sailen eta Sektore Publikoaren esanetara jarriko da, eta babes integraleko zerbitzuak eskainiko dizkie nazioarteko testuinguruan eta lehentasunezko hartzen dituzten eremu tematiko eta geografikoetan egiten dituzten jardueretan (1. sektorea).

Bestetik, Basque Country Estrategian zehaztutako lau sektoreen barruan kokatutako ekintzak egingo ditu Idazkaritzak, bere eskumen-eremuen esparruan: kanpoan den euskal komunitatearekiko harremanak, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanak eta garapenerako lankidetzaren.

Ilde horretan, esleitu zaizkion funtzio guztiak beteko dituela eta Basque Country Estrategian eraginkortasunez lagunduko duela ziurtatzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, dokumentu honen bidez, Kanpo Harremanetarako Plan propioa zehaztu du, honako helburu hauei erantzuteko: Euskadi munduan proiektatzea (1. sektorea), sektore anitzeko interesak sustatzea (2. sektorea), Euskadik Europa eraikitzekeko prozesuan parte har dezan bultzatzea (3. sektorea), kanpoan den euskal komunitatearekiko loturak garatzea (1. eta 2. sektoreak), mundu bidezkoago bat eraikitzen laguntzea (2. sektorea) eta Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea (1., 2., 3. eta 4. sektoreak).

Enpresen nazioartekotzearen eremua

Enpresen nazioartekotzea hertsiki lotuta dago Euskadiren kanpoko proiektioarekin. Horregatik, X. Legegintzaldiko Gobernu Programak euskal industriaren nazioartekotzea sustatzera bideratutako helburu estrategikoak finkatzen ditu, dokumentu honen 1. taulan ikus daitekeenez.

Testuinguru horretan, industria-eremuari dagokionez, enpresei nazioartekotzeko prozesuan laguntzeko ekimen ugari egitea aurreikusi da. Era horretan, laguntza emango da Euskadiren proiektioari eta interes sektorialen sustapenari lotutako sektoreetan (hots, 1. eta 2. sektoreetan), azken sektore hori bereziki kontuan hartuta.

Ekimen horiek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak zuzendutako Enpresak Nazioartekotzeko Plan Estrategikoan (2014-2016) kokatu behar dira. Plan hori abian jartzearen bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira: i) kanpoko jardueraren babesteko sistema finkatzea eta bultzatzea; ii) euskal enpresei nazioarteko merkatuetan sartzeko babes berezia ematea, iii) euskal ondasun eta zerbitzuek nazioartean

duten lekua sendotzeko sektoreak eta klusterrak babestea; iv) nazioarteko merkatuetan jarduteko giza kapitala sortzea; v) inbertsio estrategikoak erakartzea, eta vi) nazioarteko finantzaketa eta lankidetzak multilateralak. Plan horrek, praktikan, euskal enpresen nazioartekotzea babesteko programa multzo integral bat dakar (1. eta 2. bektoreak).

Adierazitako helburuen haritik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, SPRIrekin eta haren kanpoko sarearekin lankidetzan, Europako eta nazioarteko sareetan parte hartzen jarraitzea eta euskal industria-sektorean beste eskualde eta herrialde batzuekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzak hitzarmenak ezartzea du aurreikusita. Esku-hartze horien bidez, Euskadik kanpoan duen irudia indartu, gure enpresa-interesak babestu eta jakintza berria bilduko da (1., 2., 3. eta 4. bektoreak).

Horrez gain, industria-politika eta kluster-politika, besteak beste, beste herrialde eta eskualde batzuetara esportatzeko moduko erreferentziak dira. Era berean, Euskadiko sektore estrategikoetan (hala nola automozioan, aeronautikan edo makina-erremintan) diharduen industriaren jakintza eta «egiten jakitea» balio handiko aktiboak dira Euskadiren irudia munduan proiektatzeko garaian (1. bektorea).

Kulturaren eremua

Euskal kultura, hizkuntza eta kirola funtsezko elementuak dira nazioartean kokatuko gaituen herrialde-marka bat osatzen. Kultura eremurik egokienetako bat da munduari ezaugarri bereizgarriak dituen komunitate bat dagoela helarazteko, Europaren eraikuntzari globalizazioa eta aniztasuna uztartzen dituen ikuspegi baten ekarpena egin diezaiokeen komunitate bat, alegia. Ildo horretan, sektoreak nazioartekotzeko dagokionez dituen berezko premiak alde batera utzita, kultura funtsezko elementua izan daiteke –eta izan behar du– Jaurlaritzaren beste eremu batzuetako ekintzetan laguntzeko garaian. Zentzu horretan, Etxepare Institutuaren zeregina indartu behar da gure markaren nazioarteko garapena babesteko tresna baita.

Eremu horretan, helburu nagusiak honako hauek dira: Euskadiko kultura sustatzea, euskal gizartearen balioen eta dinamismoaren erakusgarri (1. bektorea), sorkuntza-industriei lotutako enpresa-sarea nazioartekotzea (2. bektorea), «Europa sortzailea» plan estrategikoaren garapenean nabarmentzea (3. bektorea), eta Euskadiko eta nazioarteko kultura-agenteen arteko topaketarako eta elkarren artean jakintza helarazteko guneak antolatzea (4. bektorea).

EAEkoak diren eta nazioarteko proiektzioa duten erakundeak eta ekitaldiak (Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Gasteizko Jazzaldia, Europako Kultura Hiriburutza eta abar) eta zenbait aktibok duten ahalmena (hala nola «Balenciaga-Chillida-Guggenheim» triangeluarena) funtsezko elementuak dira Basque Country markaren oinarriak finkatzeko (1. bektorea). Halaber, nazioarteko sareek eta gure herrialdeko kultura- eta kirol-agenteen nazioarteko jarduerak zeregin erabakigarria bete dezakete markaren etengabeko proiektzioan. Ildo horretan, sortzaile gastronomikoen jarduera kulturaren beste eremu batzuekin behar bezala lotzea erabakigarria izan daiteke.

Aldi berean, garrantzitsua da euskal kultura-sorkuntzak sustatzeko, nabarmentasun handia lortzeko eta euskal kulturaren preskriptore gisa eragina izan eta jardun dezaketan agenteekin loturak ezartzeko

aukerarik onenak eskaintzen dituzten azoka, jaialdi eta ferietan kulturaren arloko agente eta industriek presentzia handiagoa izatea (2. bektorea). Era berean, kultura-sorkuntzaren diziplina guztietan (musikan, zineman, arte eszenikoetan, arte plastikoetan edo literaturan) hitzarmenak sinatzeko eta sareetan parte hartzeko aukeran sakondu nahi da. Landu nahi den beste ekintza-ardatz bat kirolaren nazioarteko jarduerari lotutako interesen babesa da (1. eta 2. bektoreak).

Bestalde, oso garrantzitsua da «Europa sortzailea» Plan Estrategikoaren (2014-2020) programak egituratzeko bidean erabakitasunez eta ahots propioarekin aurrera egitea. Zalantzarik gabe, Europar Batasunak aukera ugari eskaintzen dizkio euskal kultura-sektoreari, eta funtsezko eta lehentasunezko eremua izango da. Era berean, Akitania-Euskadi Euroeskualdean eremu horretan egindako baterako lana sustatu nahi da (3. bektorea).

Jakintza biltzearen ikuspegitik, garrantzitsua da beste inguru batzuetan erabilitako kultura-sustapeneko ereduak buruzko informazioa lortzea eta Europako kultura-politikak eztabaidatzen eta prestatzen diren foroetan parte hartzea (Bilbon egiten den Avignongo Foroan, adibidez). Halaber, garrantzitsua da sortzaileen egoitza mota guztiak babesteko ildoak sendotzea. Izan ere, ahalmen handia dute euskal agenteak beste herrialde batzuetako agente eta preskriptoreekin harremanetan jartzeko, eta, era horretan, indartu egiten da nazioartera neurri handiagoan irekitzeko pentsamoldea (4. bektorea).

Turismoaren eremua

Euskadiko turismo-sektorearen garapenaren zutabeetako bat Basque Country Estrategia da, eta, horri lotuta, Basque Country marka nazioartean finkatzeko prozesua, Euskadik duen profilerak hobekien egoitza dauden eta konektibitate ona eta masa kritiko handia duten herrialdeetan nagusiki (1. bektorea). Estrategia hori, nolana ere, Euskadi «Basque Style» izenekoan (gastronomia, kultura eta identitate propioan) eta helmugako aniztasunean (minutu gutxi batzuetan abangoardia eta natura eskaintzen dituen produktu anitzeko helmugan) oinarrituta dagoen euskal berezitasunari lotutako balio diferentzial handia duen herrialde abegikor eta ireki gisa kokatzean oinarrituta dago.

Euskal Turismoaren Estrategiak (2020) nazioartekotzea, helmuga kudeatu eta sustatzeko teknologia berriak eta berrikuntzaren aldeko apustua ezartzen ditu euskal turismo-enpresen lehiakortasun-faktore gisa. Ildo horretan, berrikuntza teknologikora bideratuta dagoen eta gizarte- eta zerbitzu-ikuspegia duen Europako Batzordearen Horizon 2020 esparru-programak hainbat aukera eskaintzen ditu sektorerako. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Basquetour agentziaren bitartez, asmo hori betetzeko tresnak prestatzen ditu (1., 2. eta 3. bektoreak).

Euskadik erreferentzia izan nahi du turismo enogastronomikoan. Halaber, kongresu eta bileren turismoa, hiriko turismoa edo city break-ak eta natura- eta landa-turismoa bultzatu nahi ditu. Horren bidez, eskaintza dibertsifikatu, bizitzaren artera bideratutako turismo sofistikatu bat atsegin duten turistak erakarri, eta, aldi berean, Euskadik kanpoan duen irudia hainbat profiletako agenteen aurrean behar bezala kokatu nahi da (1. bektorea).

Turismoa indartzeko prozesu horretan, Basquetour agentziak jakintza biltzea eta erreferentziazko beste herrialde batzuekin harremanak ezartzea du helburu, era horretan turismoa antolatu, kudeatu eta erakartzeko eredia hobetu ahal izan dadin. Eta, hori guztia, Europako sarean, hainbat erakunderen (hala nola Turismoaren Mundu Erakundearen –TME-) eta «helmuga adimendun» gisa finkatzeko estrategiak dituzten beste helmuga batzuen bitartez (4. sektorea).

Bakegintzaren eta bizikidetzaren eremua

ETAk 2011ko urrian indarkeriaren amaiera iragarri izanaren ondorioz, egoera historiko baten aurrean gaude legegintzaldi honetan. Hainbat hamarkadatan terrorismoa, indarkeria, giza eskubideen urraketak eta zatiketa jasan ondoren, bakearen eta bizikidetzaren helburuak behin betiko lortzeko aukera du euskal gizarteak.

Prozesu horretan laguntzeko, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia sortu du Eusko Jaurlaritzak. 2013ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetzeta Plana (2013-16) onartu zuen. Sailen artean jarduteko 18 ildoko plan estrategiko bat da, eta bi helburu nagusi ditu: bakea behin betiko eta atzerakorik gabe finkatzea eta, agente sozial, politiko eta instituzionalekin lankidetzan, bizikidetzaren normalizazioan laguntzea.

Plan horren barruan, nazioartekotzearen dimentsioak alderdi bikoitza du: ikastea eta irakastea. Ikaskuntzaren alderdiari dagokionez, jakintza bildu behar dugu nazioartean bake-prozesuen inguruan izan diren esperientzietatik (4. sektorea), eta helburu horiek bultzatzeko babes behar dugu (2. sektorea). Transferentziaren alderdiari dagokionez, Euskadik bere esperientzia eta jakintza proiektatu eta eskaini nahi du (1. sektorea), eta, horretarako, bakearekiko konpromisoarekin lotuko dugu gure irudia. Bi alderdiak konbinatuta, Bake eta Bizikidetzeta Planak Europako esparruarekin estrategikoki bat egiteko jardun-ildo bat zehaztu du espezifikoki (3. sektorea).

Garapenerako lankidetzaren eremua

Garapenerako lankidetzeta Basque Country Estrategiaren funtsezko osagaia da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia nazioarteko elkartasunaren eremuko ekintzak planifikatu eta kudeatzen dituen erakundea da, eta Garapen Lankidetzarako Gida Plan Estrategiko bat du. Plan horrek esku-hartze guztien oinarri diren lehentasun sektorialak, geografikoak eta zeharkakoak zehazten ditu, baita garapenerako hezkuntzaren arloko lan-ildo bat ere, kontzientzia kritikoa sustatzeko. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako garapenerako lankidetzak genero-zeharkakotasuna eta emakumeak ahalduntzeko finantza-erreserba bat hartzen ditu kontuan bere esku-hartzeetan (2. sektorea).

1. sektoreari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia erreferentziazko elementua da Euskadiren nazioarteko proiektioan, eta kanpo-harremanen erantzukizun-arloan txertatuta dago.

Horretarako, euskal gizarteak munduko egiturazko pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztearen alde erakutsitako elkartasun indibiduala, kolektiboa eta instituzionala helarazten du.

Lankidetzaren deszentralizatuaren espezifikotasunetik eta euskal lankidetzaren identitatetik abiatuta, munduko egungo testuingurura egokituko da eta testuinguru horretan antolatuko da. Ildo horretan, jarraipen berezia egingo die sortzen ari diren joera globalei. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, bere nazioartekotze-prozesuaren barruan eta nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan, Europar Batasunarekiko harremanak estutzeko helburu estrategikoa lortu nahi du, Europako esparruarekin bat egitearen inguruko 3. sektoreari jarraiki.

Azkenik, 4. sektoreari dagokionez, euskal lankidetzak jakintzak eta harremanak bultzatu, eta gizarteak harremanetan jarri nahi ditu. Horretarako, gaitasunak eta lankidetzaren teknikoak bi norabidetan indartu behar dira (helaraz ditzakegun esperientziak ez ezik, guretzat ikasbide izan daitezkeen esperientziak ere badauden uste osoarekin). Era berean, lankidetzaren ikaskuntzara bideratu behar da, eta ikerketa, berrikuntza, ebaluazioa eta komunikazioa sustatu behar dira.

Genero-berdintasunaren eremua

Genero-berdintasunaren eremuan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gidaritzapean, orain arte nazioarteko lankidetzaren eremuan egindako lanean aldaketa estrategikoa bat sustatzea da helburu nagusia, esku-hartze global, koherente eta sistematizatu baterako oinarriak finkatu daitezkeen.

Horretarako, lehentasuna emango zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan funtsezkoak diren nazioarteko erakundeekin (hala nola NBE-Emakumeak erakundearekin, Genero Berdintasunaren Europako Institutuarekin eta Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin) esparru eta/edo dinamika egonkorrak ezartzeari. Erakunde horiek, duten garrantziagatik edo ezaugarriengatik, helburu bikoitza betetzen lagun dezakete: alde batetik, Euskadin eremu horretan egindako lan aitzindaria atzerrian proiektatzea eta kalitateari eta giza garapen iraunkorrari lotutako «Basque Country berdintasun-marka» zabaltzea (1. sektorea); bestetik, orain arte egindako lana sendotzeko jakintza eta jardunbide egokiak biltzea (2. eta 4. sektoreak).

Ildo horretan, NBE-Emakumeak erakundearekin alde biko lankidetzaren esparru bat ezartzea aurreikusi da, jakintza, esperientziak eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko lankidetzaren bide egonkorrak eta iraunkorrak egon daitezkeen eta, hala badagokio, baterako jardunak egin ahal izan daitezkeen (1., 2. eta 4. sektoreak).

Horrez gain, beharrezkotzat hartzen da Iberoamerikako Idazkaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan informazioa, esperientziak, metodologia eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko izenpetutako lankidetzaren esparru-akordioan hartutako konpromisoak garatzea (1., 2. eta 4. sektoreak).

Europar Batasunaren testuinguruan, Euro Gender Sarean eta Genero Berdintasunaren Europako Institutuak babestutako lankidetzaren eta elkartrukeko gainerako guneetan parte hartzeko aukera Emakun-

deren lehentasunezko beste ekintza-esparru bat da. Era berean, alde batetik Emakundek parte hartzen duen Europako funtsen (hots, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren –EGEF– eta Europako Gizarte Funtsaren –EGIF–) programa operatiboen jarraipen-batzordeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako estrategia sendotzea aurreikusi da, eta, bestetik, Eskualdeen Batzordearekiko lankidetzaz-ildoari berriz ekitea.

Administrazio publikoaren eta justiziaren eremua

Eremu honetan, nazioarteko jarduna hiru bektoreren inguruan garatuko da: erreferentziatzko elementuak kanpora proiektatzea (1. bektorea), Europaren eraikuntzan laguntzea (3. bektorea) eta jakintza eta jardunbide egokiak biltzea (4. bektorea).

Administrazio Publikoaren eremuari dagokionez, gardentasunean (Open Government), kudeaketa publikoan eta Open Data izenekoan eskuratutako jakintzari eta esperientziari esker, Euskadi erreferentziatzen hartu da Europar Batasunean, Estatuaren eta Europako hegoaldeko gainerako herrialdeen gainetik. Eremu juridikoari dagokionez, berriz, Euskadi arau-kalitatean, parte-hartzean oinarritutako demokrazian eta maila anitzeko gobernantzan erreferentzia bihurtzeko ahalmena badago, Europar Batasunaren esparruan bereziki (1. bektorea).

Abiapuntu horrekin, eta Euskadi arestian adierazitako arloetan erreferentzia bihurtzeko asmoz, Herri Administrazio eta Justizia Sailak Amerikako Estatuaren Erakundearekiko (AEE) hitzarmenari lotutako lankidetzaz- eta jarraipen-esparrua zabaltzea aurreikusi du (1. eta 4. bektoreak). Izan ere, Euskadi Europako gobernantzaren adibide pilotu izan daiteke estatu horientzat.

Era berean, Europar Batasuna eraikitzeke prozesuan laguntzen jarraituko da eremu horretan. Horretarako, Eskualdeen Batzordean parte hartuko da bereziki, ahal den heinean ekarpenak egingo dira Europako Batzordeak edo Europako Kontseiluak eskualdeen parte-hartzerako gaitutako bideetan, eta subsidiarotasun-printzipioaren aplikazioan lagunduko da. Halaber, berrikuntza soziala bultzatuko da, eta Euskadiko berrikuntza sozialaren eragileen eta Europako eta nazioarteko beste erakunde batzuen artean sinergiak sortzeko ahaleginak egingo dira (3. bektorea).

Jakintzaren bilketaren alderdian bereziki, harremanak ezarri nahi dira beste eskualde batzuekin, eta beste eremu geografiko batzuek zenbait arlotan (hala nola gardentasunean, parte-hartzean oinarritutako demokrazian, meritokrazian, nabaritasunetan oinarritutako erabaki-prozesuetan, jakintza zientifikoa prozesu horietan integratzeko aukeran, gobernu elektronikoan edo kudeaketa deszentralizatuaren ereduetan) dituzten jardunbide egokiak aztertu nahí dira (4. bektorea).

Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremua

Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren inguruko politiken esparruan, Europako gehieneko estandarrekin bat egitea da nazioarteko lehentasuna. Erakunde-ikuspuntutik, Europako Batzordearen Eskualde

Politikako, Enpresa Politikako eta Berrikuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiekiko harremanak estutu nahi dira. Helburua Europar Batasunak zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremuan eskaintzen dituen aukerak egokiro baliatzea da, bereziki Horizon 2020 programa berriaren esparruan I+G+Bko proiektuak finantzatzeko Erkidegoko funtsen kudeaketari dagokionez (3. bektorea).

Datozen urteetako agendan funtsezkoa izango den elementu bat espezializazio adimendunaren euskal estrategia (RIS3) ezartzeko eta inplementatzeko beharra da, hau da, Europako Batzordeak 2014-2020ko Programa Operatibo berriaren barruan egitura-funtsak esleitzeko jarritako ex ante baldintza. Ikuspuntu tematikotik, automozioan, ingeniartzan, osasunean edo teknologia hibridoetan oinarrituko da nazioarteko ekintza (3. bektorea).

Energiaren eremua

Eremu honetan, euskal energia-estrategia babesteko tresnatzat hartzen da nazioarteko jarduera. Estrategia horrek hiru jardun-arlo ditu: sektore kontsumitzaileak, energia-hornidura, eta industriaren garapen teknologikoa. Zehazki, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak aurreikusitakoaren arabera, nazioarteko proiektuak garatzeko erakunde-babesa emango dio sektoreko industria-sareari, euskal trakzio-enpresak nazioartean finkatu ahal izan daitezen, eta sortzen ari diren energia-eremuetan enpresa-jarduera garatu ahal izan dadin (2. bektorea).

Euskadik kanpoan duen proiektioari dagokionez, azpimarratu beharra dago Eusko Jaurlaritzak itsas energiaren alde egindako apustu estrategikoa. Izan ere, esparru horretan inbertsio handiak egiten ari dira erakusteko azpiegiturak egin daitezen, eta Euskadi sektore horri lotutako jakintzaren nazioarteko erreferentzia bihurtzen ari da (1. bektorea).

Euskadin nazioarteko kongresuak eta jardunaldiak antolatzeaz gain, lankidetzan estuan jardungo da Europako beste eskualde batzuekin, esperientziak elkartrukatzeko eta baterako proiektuak egiteko (1. eta 4. bektoreak).

Nekazaritzaren eta arrantzaren eremua

Eremu horretan egingo den nazioarteko jarduera nagusia honako hau izango da: prospekzio-bidaiak eta prospekzio-misioak antolatzea, eta finantzaketa-aukera eta finantzaketa-iturri berriak bilatzea, euskal industriak sektore horietan dituen interesak bultzatzeko (2. bektorea).

Halaber, alderantzizko misioak antolatzen jarraitzea aurreikusi da. Misio horien bidez, teknologia berriak eta berritzaileak kudeaketa-eredu propioetan aplikatzearen eremuan arrakasta izan duten eta esporta daitezkeen esperientziak erakutsi ahal izango dira. Adibidez, baxurako itsasontzien jarraipena egiteko erregistroen sistema teknologikoen garapena eta tsunamiak detekta ditzaketen balizei lotutako garapen berriak aipa daitezke (1. bektorea).

Horrez gain, eremu horri lotutako enpresa-sareak nazioartean duen posizioa finkatzeko asmoz, bazkide berriak identifikatzea, nazioarteko erakundeekin aliantza estrategikoak eta lankidetzak akordioak sinatzea eta bikaintasun-sareetan, plataforma teknologikoetan eta adituen foro eta batzordeetan parte hartzea aurreikusi da. Era horretan, gainera, Basque Country marka indartuko da (1. sektorea).

Enpleguaren eta gizarte-politikaren eremua

Enpleguaren eremuan, erreferentzia gisa baliagarriak izan daitezkeen Europako beste herrialde batzuetan ezarrita dauden enplegu-zerbitzuen eta lan-harremanen ereduak buruzko jakintza eskuratzeko baliabideetat hartzen da nazioartekotzea (4. sektorea). Zeregin horrez gain, Europako Gizarte Funtsean (EGIF) parte hartuko da Programa Operatiboaren bitartez, baita enpleguari lotutako Europako hainbat programa eta ekimenetan ere (3. sektorea).

Gizarte-politiken eremuan, Europako esparruan oinarrituko da nazioarteko jarduerak. Izan ere, gizarte-zerbitzuen eredu aurreratuak ezarri dira esparru horretan, eta jardunbide egokiak lor daitezke eredu horietatik (3. sektorea). Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ustez, Euskadik gizarte-ekonomiaren, kooperatibismoaren eta gizarte-berrikuntzaren sustapenaren arloan duen esperientzia kanpora helarazteko moduko aktibo garrantzitsua da, eta Euskadik arlo horretan nazioartean duen lekua sendotzen lagun dezake (1. sektorea).

Dagoeneko parte hartzen da jardun-eremu horri lotutako Europako sareetan eta programetan, eta etorkizunean ere parte hartuko da (3. sektorea).

Etxebizitzaren eremua

EAEko etxebizitza-politika eta etxebizitzaren kontzeptu soziala eredu interesgarriak dira beste herrialde eta eskualde batzuentzat. Hortaz, Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak nazioartean erakutsi nahi ditu eremu horri lotutako esperientziak, era horretan Euskadi behar bezala kokatzen laguntzeko (1. sektorea). Halaber, beharrezkotzat hartzen da Europako politikerak hurbiltzea eta Europako herrialde eta eskualdeekin harremanak ezartzea, era horretan etxebizitzaren finantzaketari eta eraikuntza-arloko energia-efizientziari lotutako erreferentziako ereduak ikasteko (4. sektorea).

Hezkuntzaren eremua

Hezkuntzaren eremuan, jarduerak prestakuntzaren nazioartekotzean oinarrituta egongo dira, eta, horretarako, lau alor desberdinetan jardungo da: Haur eta Oinarrizko Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza (derrigorrezkoa eta derrigorrezkoaren ondokoa), Lanbide Heziketa eta Unibertsitate Hezkuntza.

Oinarrizko Hezkuntzaren eremuan, «Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko europar lankidetzarako 2020ko esparruan» ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak uztartzeko asmoari erantzuten dion HEZIBERRI 2020 Planaren garapenaren inguruan jardungo da. Planak gure testu- inguru eta inguruneke hezkuntza-erronkei erantzuten die, eta hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruaren sorkuntza du abiapuntu, etorkizuneko belaunaldiak Euskadin eta munduan bizitzeko ongi prestatuta egon daitezen. Era berean, Bigarren Hezkuntzaren eremuan garatutako hezkuntza-jarduerari Europako dimentsioa emateko lan egiten jarraituko da, eta, horretarako, mugikortasun-proiektuak eta lankidetzaproiektuak sustatu eta bultzatuko dira Erasmus+ (2014-2020) programaren esparruan (3. sektorea).

Bestalde, Euskadiko Lanbide Heziketaren 2015eko Agenda Estrategikoaren ekintza-ildoetako bat Lanbide Heziketan nazioartekotzearen arloa babestea eta zabaltzea da. Zehazki, honako helburu estrategiko hauek ditu: i) beste herrialde batzuetan instalazioak dituzten euskal enpresak lanbide-heziketatik abiatuta babesteko beharrezkoak diren prozesuak aztertu, planifikatu eta ezartzea, eta ii) ikasleen nazioarteko esperientzia sustatzea, eta, horretarako, instalazio nagusia EAEn izanik ere beste herrialde batzuetan ezarrita dauden enpresetan praktikak egitea. Helburu estrategiko horiek lortzeko, programetan (Europako programetan bereziki) parte hartzeko aukera sustatuko da datozen urteetan (3. sektorea), eta nazioarteko sareetan beharrezkoa den presentzia sendotuko da, asmo bikoitzarekin: nazioartean Euskadiko lanbide-heziketa erreferentziazko eredu gisa proiektatzea, eta jakintza transferitu eta elkartrukatzea (1. eta 4. sektoreak).

Ikaskuntzaren ikuspegitik aurreikusitakoaren arabera, nazioarteko jardunbide egokiak txertatuko dira fabrikaziorako prestakuntza-prozeduretan eta kalifikazioko sistema eta ereduetan (4. sektorea).

Unibertsitate-mailan egiaztatu denez, erlazio garbia dago unibertsitateek aldizka egiten diren sailkapenetan duten postuaren eta nazioartekotze-mailaren artean, hau da, nazioartekotze-maila handiagoa dutenak daude hobekien kokatuta. Hori dela-eta, euskal unibertsitateen nazioartekotzea sustatzea izango da jardunaren lehentasuneko helburua. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak UPV/EHUko eta Bordeleko Unibertsitateko Mugaz Gaindiko Euroeskualde Campusa (ehubaq) bultzatzen jarraituko du, hezkuntza-sailkapenetan eta ikerketa- eta berrikuntza-sareetan erreferentziazkoa izango den nazioarteko campus bat ezartzeko helburuarekin. Mugaz Gaindiko Euroeskualde Campusaren garapena funtsezkoa da Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campuserako (3. sektorea). Halaber, aurreikusitakoaren arabera, titulazio-eskaintza partekatua, ikasleen mugikortasuna eta euskal produkzio eta argitalpenak nazioartean presentzia izateko aukera eskainiko duten nazioarteko lankidetzakordioen ezarpena bultzatu, eta programetan parte hartuko da (2. eta 3. sektoreak).

Bestalde, jakintza biltzearen ikuspegitik, interes handia dago unibertsitate-diasporarekin hezkuntza-ereduak eta lan-eskemak ezagutzeko. Gainera, gure zientzia-sistemaren nazioartekotzeak IKER-BASQUEren bitartez ikerketa-talentuak erakartzeko programa hartzen du kontuan ardatz estrategiko gisa, Euskadi I+G+B arloan potentziarik garrantzitsuenen artean kokatzeko. Ahalegin horretan laguntzeko, euskal sistemako unibertsitateetan eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroetan bikaintasun-ikertzailen adskripzioa sustatuko da (4. sektorea).

Hizkuntza-politikaren eremua

Eremu honetan, euskararen nazioartekotzea da helburu nagusia. Helburu horrekin, nazioartean euskara irakastera zuzendutako lektoretzak eta katedrak sustatuko dira, mekanismo egokiak baitira ospe handiko ikertzaileen sareak sortzeko, sare horietan sartzeko eta sare horien erabilera zabaltzeko. Gainera, Euskararen Nazioarteko Eguna funtsezko elementua da euskara munduan proiektatzeko eta kanpoko euskal hiztunen eta euskal jatorriko pertsonen komunitatea trinkotzeko garaian (1. eta 2. sektoreak).

Halaber, HABEren bitartez eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin koordinatuta, euskal etxeetan euskara ikasteko sarea indartzen jarraituko da, kanpoko euskal komunitateak egituratzeko ardatzetako bat baita (2. sektorea).

Garatutako hizkuntza-politikari eta euskararen sozializazio-prozesuari esker, euskal hiztunen kopuruak nabarmen egin du gora, eta, horren ondorioz, politika hori beste errealitate batzuetara eramateko moduko erreferentzia bihurtu da (1. sektorea).

Era berean, lehentasunezko ekintza-esparruak izango dira honako hauek: euskararen irakaskuntza eta Euskadiko hizkuntza-politika sustatzeko hitzarmenak ezartzea, eta arlo horretan erabakitzeko ahalmena duten nazioarteko foro eta erakundeen aurrean (Network to Promote Linguistic Diversity) eremu urriko hizkuntzak sustatzeko sareetan parte hartzea (2. sektorea).

Halaber, lankidetzak hitzarmenak sustatu eta bultzatuko dira eremu urriko hizkuntzak eta hizkuntza gutxiak dituzten lurraldeetako gobernuekin eta eskualdeekin, hizkuntza horien erabilera sustatzera bideratutako hizkuntza-politikaren arloan jakintza eta esperientziak elkartrukatzeko (2. sektorea).

Iparraldean euskara sustatzeko aukerari dagokionez, zabalik eta abian jarraitzen du EEP erakundearekiko (Office Publique de la Langue Basque/Euskararen Erakunde Publikoa) lankidetzak-ildoak, eta, zehazki, gaur egun indarrean dagoen hainbat urtetarako esparru-hitzarmenaren urteko eranskinetan islatzen da ildo hori (3. sektorea).

Segurtasunaren eremua

Segurtasunaren eremuan, beste segurtasun-agentzia eta erakunde batzuekin alde biko zuzeneko harremanak ezarri nahi dira, prestakuntza- eta lanbide-mailako informazioa eta esperientziak elkartrukatzeko eta Europako erabaki-foro formaletan zein sare edo foro profesionaletan parte hartzeko bidea izan baitaiteke (2. eta 4. sektoreak). Harreman horien barruan, beste segurtasun-agentzia batzuekin harremanetan jartzeko bide berriak zabaldu eta mantenduko dira, eta, horretarako, nazioarteko polizia-lankidetzaren eta lankidetzak judizialaren arloan erreferentziatzeko beste erakunde batzuekin (EUROPOL, SIRENE, INTERPOL, EUROJUST eta abarrekin) egiten den lana baliatu eta sustatuko da, betiere EBk justiziaren eta herrizaingoaren arloan egindako gomendioetan eta hartutako erabakietan oinarrituta. Era berean, Estatu Espainoleko ordezkariak diplomatikoetan txertatutako segurtasun-agentzien ordezkariarekiko harremanak sendotuko dira, Ertzaintzak esleituta dituen funtzioak eta eskumenak garatzeko, nazioarteko beste ekitaldi mota batzuk (kultura- eta kirol-arlokoak) ahaztu gabe.

Euskadiko polizia-kidego propioa Ertzaintza da, eta beste herrialde batzuetako segurtasun-kidegoetarako erreferentziarako eredu bihurtzen duten ezaugarri propioak ditu, hala nola ex novo sortu izana, historia, tamaina eta antolamendua, kalitatea kudeatzeko sistemetan oinarritutako kudeaketa eraginkorra, genero-indarkeriaren tratamendu eredugarria eta beste alderdi operatibo batzuk (1. sektorea).

Osasunaren eremua

Osasunaren eremuan, nazioartekotzearen arloko lehentasunezko jardun-ildoak antzeko problematikak dituzten herrialde edo eskualdeekin harreman egonkorrak eta hitzarmenak ezartzera bideratuta daude, jakintza zein sektoreko profesionalak elkartrukatzeko helburuarekin.

Euskal osasun-sistema honako alderdi hauei lotutako estrategiak garatzen ari da: zahartze aktiboa eta kronikotasuna, zainketen bateratzea (osasun-erakunde bateratuetan eta eremu soziosanitarioaren garapenean islatua), arriskuen estratifikazioa, pazienteen ahalduntzea, eta eredu presentzialaren eta ez-presentzialaren konbinazioa. Nolanahi ere, IKTak erabiliko dira jardun ugari errazteko tresna gisa (errezeta elektronikoa, telemedikuntza eta abar). Gainera, gai horiei eta beste alor batzuei (hala nola medikuntza pertsonalizatuari edo berrikuntzaren kudeaketari) lotutako jakintza eta esperientzia elkartrukatzeari emango zaio lehentasuna (1., 2. eta 4. sektoreak).

Kanpoarekin ezarritako harremanek, nazioartean behar bezala kokatzen laguntzeaz gain (adibidez, Euskadi kalifikaziorik handieneko «Reference Site» bat da Europako EIP-AHA ekimenaren barruan), Euskadin osasun-sistemaren ikerketa eta berrikuntzaren arloan finkatuta dauden ahalmenak bultzatuko dituzte, zenbait aktibo (hala nola biobankua) edo Osasun Ikerketako Institutuak barnean hartuta.

Bestalde, Osasun Sailaren lehentasunen artean, honako hauek aipa ditzakegu: Euskadik Horizon 2020 eta Innovative Medicine Initiative (IMI) programetan duen parte-hartzea areagotzeko aukera emango duten Europako I+Gko proiektu, partzuergo eta sareetan parte hartzea, eta DG SANCO eta DG CON-NECTekin lotutakoak sendotzea (3. eta 4. sektoreak).

Ingurumenaren eta lurralde-politikaren eremua

Ingurumenaren eremuaren nazioartekotzea hainbat ikuspegitik lantzen da. Erakunde-mailan, «ekonomia berde» kontzeptua garatzen ari da, eta EAEn parte-hartzea duten sare eta proiektu sektorialetan presentzia areagotzeko ekintzak inplementatzen ari dira. Era horretan, Euskadi nazioartean behar bezala kokatzen laguntzeaz gain, Europako erakundeetan zein nazioarteko organismoetan sortzen diren aukerak egokiro baliatu nahi dira (1. eta 2. sektoreak).

Enpresa-ikuspuntutik, ingurumen-sektoreari lotutako euskal industriaren nazioartekotzeari euskarria emango dion eta sortutako aukerak bultzatuko dituen metodologia bat zehaztuko da. Ingurumen eta

Lurralde Politika Sailaren ustez, iraunkortasunean oinarritutako lurralde-kudeaketaren esparruan metatutako esperientzia –hondakinei eta urei lotutako bektoreetako jakintza espezifikoak baztertu gabe– euskal produkzio-sarea bultzatzeko ahalmena duten beste estatu eta eskualde batzuetara esportatzeko moduko aktiboak dira (2. bektorea).

Finantza-ketaren ikuspuntutik, Euskadirako ingurumen-proiektu estrategikoak garatzen lagunduko duten nazioarteko iturriak identifikatuko dira (2. bektorea).

Lurralde-politikaren eremuan, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak bultzatzea izango da Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko ekintzaren elementu nagusia, eta Pirinioetako Lan Erkidegoaren esparruan mugaz gaindiko eskualdeekin baterako ekintzak egiteko aukera aurreikusten da. Ildo berean, Euskadik paisaiaren inguruko datu espazialen azpiegituren, katalogoen eta zehaztapenen garapeneren arloan duen jakintzak interes berezia du mugaz gaindiko guneetako lurralde-politikak kudeatzeko (3. bektorea).

Era berean, ingurumen-estrategien eta paisaiaren kudeaketa eta tratamenduaren arloan beste eskualde batzuetatik ikasteko baliabideak jartzen ari dira (4. bektoreak).

Garraioaren eremua

Garraioaren eremuan, sektoreko euskal enpresei parte hartzen duten nazioarteko proiektuetan laguntzea da nazioarteko agendaren helburua (2. bektorea). Euskadin jakintza-masa kritiko handia eta trenbide-proiektu baten balio-kate osoa –plangintzarekin hasi eta ustiapenarekin amaitzeraino– beren gain hartzeko ahalmena duten enpresak daude, eta hori kontuan hartu beharreko balioa izango da Euskadi nazioartean behar bezala kokatzeko eta sektoreko interesak nazioartean sustatzeko garaian (1. eta 2. bektoreak).

Gainera, Europako zein nazioarteko sare eta proiektu sektorialetan parte hartzen jarraitu nahi da. Sare eta proiektu horietan, mugaz gaindiko lankidetzak ekintza-esparru garrantzitsua izango da, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen esparruan batez ere (3. bektorea).

Laburpen gisa, ondorengo taulak Basque Country Estrategiak hartzen dituen jardun-eremuen inguruko nazioarteko jardueraren oinarri izango diren gaiak biltzen ditu eskematikoki.

3. taula.

Nazioartekotzerako eremu tematikoen zerrenda

	Ikasteko eremu tematikoa	Irakasteko eremu tematikoa
Kanpo-harremanak	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde arteko lankidetzak • Eraginkortasuna eta koherentzia herrialdeko kanpo-harremanen koordinazioan 	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak • Kanpoan den euskal komunitatearekiko harremanak
Enpresen nazioartekotzea	<ul style="list-style-type: none"> • Klusterren arloko politika berriak 	<ul style="list-style-type: none"> • Klusterren arloko politika • Industria-politika • Sektore estrategikoak/trakziokoak: <ul style="list-style-type: none"> – Makina-erreminta – Aeronautika – Automozioa
Kultura	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura-sustapenaren eredua 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal kultura-sorkuntzak • Guggenheim, Chillida, Balenciaga triangelua • Kirola
Turismoa	<ul style="list-style-type: none"> • Turismoa antolatu eta kudeatzeko eredua • Berrikuntza teknologikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Negozio-turismoa • Turismo enogastronomikoa • «City break-en» inguruko turismoa • Natura- eta landa-turismoa
Bakea eta bizikidetzak	<ul style="list-style-type: none"> • Giza eskubideekiko konpromisoaren erreferentziak • Bizikidetzak-esparruen eredua 	<ul style="list-style-type: none"> • Bake-kultura sustatzeko sail arteko strategiaren eredua • Giza eskubideekiko konpromisoaren erreferentziak
Garapenerako lankidetzak	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko elkartasunaren eremuko jardunak eta esku-hartzeak kudeatzeko eredua 	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzak deszentralizatuko agentzia baten berezko eredua
Genero-berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzio- eta hezkuntza-ereduak 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen ahalduntzea eta erakunde-mailako balioen aldatzea babesteko egitura berezien garapena
Administrazio publikoa eta justizia	<ul style="list-style-type: none"> • Gardentasuna: Open Government • Parte-hartzean oinarritutako demokrazia • Meritokrazia • E-Government • Politika publikoen ebaluazioa eta gardentasuna • Kudeaketa deszentralizatuko gobernu-ereduak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gardentasuna: Open Government • Kudeaketa publiko eraginkorra • Arau-kalitatea • Parte-hartzean oinarritutako demokrazia eta maila anitzeko gobernantza • Politika publikoen ebaluazioa eta gardentasuna
Zientzia, teknologia eta berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Zientzia, teknologia eta berrikuntzako estrategia berriak • Espezializazio adimendunaren estrategiak • Informazio sektoriala: <ul style="list-style-type: none"> – Automozioa – Ingeniaritza – Osasuna – Teknologia hibridoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Politika, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea

	Ikasteko eremu tematikoa	Irakasteko eremu tematikoa
Energia		<ul style="list-style-type: none"> • Energiaren Euskal Agentziaren eredia: inbertitzeko eta kudeatzeko ahalmena • Itsas energia
Nekazaritza eta Arrantza		<ul style="list-style-type: none"> • Garapen propioarako sistema teknologikoak <ul style="list-style-type: none"> – Baxurako itsasontzien jarraipena egiteko erregistroak – Tsunamiak detekta ditzaketen balizak
Enplegua eta gizarte-politikak	<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu-zerbitzuen ereduak • Lan-harremanen ereduak • Gizarte-zerbitzuen eredia 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-ekonomia – Kooperatibismoa
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Finantzaketa • Energia-efizientzia eraikuntzan 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza-politika
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-eredua • Unibertsitateen nazioartekotzea • Unibertsitate-diaspora • Fabrikaziorako prestakuntza-prozedurak • Kalifikazio-sistemak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketaren eredia • Katedrak • Ikerketa
Hizkuntza-politika		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-politika
Segurtasuna		<ul style="list-style-type: none"> • Ertzaintza: <ul style="list-style-type: none"> – Antolamendua – Kudeaketa-eredua – Genero-indarkeriaren tratamendua
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Zahartze aktiboa • Medikuntza pertsonalizatua • Osasun-sistemaren eraldaketa • Berrikuntzaren kudeaketa • Osasun-sistemaren esportazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-sistema • I+G+Bko gaitasunak • Zainketen bateratzea • Pazienteak ahalduzko eredia • Osasun-arloko esku-hartze ez-presentzialaren eredia • Historia kliniko bakarra • Errezeta elektronikoa
Ingurumena eta lurralde-politika	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresei laguntzeko estrategiak • Ingurumen-estrategia • Ekonomia berdea • Paisaiaren tratamendua 	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen-politika • Hondakinen kudeaketa • Lurralde-estrategia iraunkorrek garatzeko gaitasuna eta jakintza
Garraioa		<ul style="list-style-type: none"> • Trenbide-garraioko proiektu baten balio-kate osoa garatzeko gaitasuna eta jakintza: plangintza, diseinua, obraren egikaritzea, kudeaketa

Iturria: geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren Sailen eta kontsultatutako agenteen informazioan oinarrituta.

3.7. Jardun-eremu geografikoak

Basque Country Estrategia honen ondorioetarako, Euskadiko sektore anitzeko interesen zati handi bat biltzen duten eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan nazioartean era proaktiboan egingo dituen ekimen gehienak jasoko dituzten herrialde eta eskualdeak hartzen dira nazioartekotzerako eremu geografiko estrategikotzat. Lehenespen-zeregin horrek Euskadiren nazioarteko proiektzioa era koordinatu eta koherentean egiteko aukera emango duen gune komun bat sortzeko edo gutxieneko elementu komun bat identifikatzeko borondateari erantzuten dio. Era beran, kanpo-jarduera egokitu bat garatu nahi da, haren ondoriozko konpromisoei dauden gaitasunekin erantzuteko gai izango den kanpo-jarduera bat, hain zuzen ere.

Logikoa denez, jarduera horrek ez du izaera mugatzailea izan behar, hau da, ez dakar atal honetan kontuan hartu gabeko herrialdeetan sortzen diren aukerak edota sail batzuek esparru honen babesean zehazten dituzten nazioartekotze-plan sektorialetan jasotako lehentasun geografikoetan agertzen diren berritasunak kontuan hartu behar ez direnik. Adibidez, nabarmena da jardueraren izaera dela-eta garapenerako lankidetzaren arloko politikak lehentasunezko jardun-mapa propio bati erantzuten diola. Mapa horretan, gurekin lankidetzeta-lotura historikoak ezarri dituzten herrialde pobretuek eta ohiko bazkideek (hala nola Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoak) protagonismo berezia dute.

Nolanahi ere, Estrategia hau zehazteko asmoz parte-hartzean oinarrituta egindako prozesuan lortu den informazioaren analitika sortu dira dokumentu honetan ezarritako lehentasun geografikoak. Horrela, beraz, euskal agenteek eta euskal administrazioak diharduten eremu tematiko edo sektorialen zati handi baterako aukera-eremu diren herrialde eta/edo eskualdeen zerrenda biltzen du atal honek, eta bi lehentasun-mailatan bereizita agertzen dira.

Lehen mailaren barruan, lehentasunezko aukera-eremu geografiko gisa identifikatu diren herrialde eta eskualdeak daude, hau da, Eusko Jaurlaritzaren sailentzat, haren Sektore Publikoarentzat eta kontsultatutako kanpoko agenteentzat interesik handiena dutenak. Bigarren maila, berriz, nazioartekotzeko lehenetsitako lurraldeek osatzen dute. Herrialde horietan, jardun-eremuen ehunekoa txikiagoa da. Testuinguru horretan, Estrategia hau lantzeko garatutako eta parte-hartzean oinarritutako prozesuan inplikaturik dauden sailek eta agenteek bi motibazio desberdinen arabera identifikatzen dituzte beren lehentasunak. Alde batetik, ikasteko eta konparatzeko motibazioa, hau da, Euskadirentzat erreferentzia diren beste herrialde edo eskualde batzuen esperientziak eta jardunbide egokiak ezagutzeko, eremu pribatuan zein politika publikoen eremuan. Bestetik, jakintza irakatsi eta elkartrukatzeko motibazioa, hau da, beren espezifikotasunagatik, izaera berritzaileagatik edota sortzen duten eragin sozial eta ekonomikoagatik balio erantsia gaineratzen duten politika publikoen diseinu, egikaritze eta kudeaketaren arloan euskal agente sozioekonomikoek eta Administrazioak berak metatutako esperientzia eta egiten jakite espezifikoa nazioartean transferitzeko motibazioa. Irakatsi eta elkartrukatzeko horren barruan, halaber, euskal enpresa-sarearen esportazio eta inbertsioaren xede diren merkatuak eta Euskadiko aktiboan agerpena identifikatzen dira.

Ondorengo taulan, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jarduerarako lehentasunezko eta lehenetsitako eremu geografiko, herrialde eta eskualdeak agertzen dira, ikasteko eta konparatzeko motibazioari zein irakatsi eta elkartrukatzeko motibazioari dagokionez.

4. taula.

Eusko Jaurlaritzaren jardun-eremu geografikoak

JARDUN EREMU GEOGRAFIKOAK		Lehentasunezko herrialde eta eskualdeak		Lehenetsitako herrialde eta eskualdeak	
		Ikasi eta konparatu	Irakatsi eta elkartrukatu	Ikasi eta konparatu	Irakatsi eta elkartrukatu
EUROPA 	Herrialdeak	Europar Batasuna Eskandinaviako herrialdeak Alemania Danimarka Frantzia Erresuma Batua	Europar Batasuna Eskandinaviako herrialdeak Alemania Frantzia Erresuma Batua	Holanda Irlanda	Errusia Turkia
	Eskualdeak	Akitania Bavaria	Eskozia Flandria		
AMERIKA 	Herrialdeak	Estatu Batuak	Estatu Batuak Latinoamerika Mexiko Brasil Kolonbia Peru	Kanada	Argentina Txile
	Eskualdeak			Querétaro	
ASIA 	Herrialdeak	Korea India Singapur	Txina India	Japonia	Malaysia Indonesia Vietnam
	Eskualdeak			Jiangsu	
AFRIKA 	Herrialdeak		Hegoafrika		
EKIALDE ERTAINA 	Herrialdeak			Israel	Golkoko herrialdeak

Iturria: geuk egina.

Lehen lehentasun-mailan, Europa (eta, zehazkiago, Europar Batasuneko nazioz gaindiko esparrua) Euskadiren nazioartekotzearen lehentasunezko intereseko esparru bat da. Izan ere, Erkidegoko politikekin bat egitea Estrategia honen bektoreetako bat da. Euskal erakunde eta agente guztiek Europa eraikitzeke prozesuan egindako ahaleginak eta izandako inplikazioa esparru horren lehentasun-izaeraren erakusgarri dira. Euskadik Europar Batasunean parte hartzen jarraitzeko eta Euskadik Europar Batasunean betetzen duen zeregina sendotzeko apustuaz gain, herrialde kideek aukera handiak eskaintzen dituzte gure industria-eskaintza, kultura-eskaintza eta turismo-eskaintza –besteak beste– sustatzeko.

Testuinguru horretan, Eskandinaviako herrialdeek (Danimarkak eta Finlandiak batez ere) gizarte-ongizateko estandar handiak eskaintzen dituzten sistemak dituzte, eta interes estrategikoko arloetan ikasteko eta jakintza elkartrukatzeko aukera ematen duten erreferentziazko eremu geografikoak dira. Era berean, Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia euskal esportazioen merkatu nagusiak dira, eta lehentasunezko herrialdeetat hartzen dira, euskal ondasun eta zerbitzuen merkaturatzearen ikuspuntutik zein esperientziak elkartrukatzeko aukeraren ikuspuntutik.

Eskualdeen arteko harremanek gero eta garrantzi handiagoa dute kanpoko proiektiorako eta interes komunak babeserako tresna gisa. Hori dela-eta, 2020ko Esparru Estrategia honen testuinguruan, Euskadi nazioartekotzeko interes handiko eremu geografikoak dira eskualdeak, Europako esparruan bereziki.

Hurbiltasun geografikoa eta lotura historiko, sozial eta kulturalak direla-eta, Lurralde Lankidetzarako Europar Taldearen bitartez harremanak eta lankidetzak-esparrua areagotzeko lehentasunezko bazkidetzat hartzen da Akitania. Era berean, Eskozia, Bavaria eta Flandria zuzeneko loturak ezartzeko eta jakintza elkartrukatzeko lurralde homologoak dira.

Amerikan, Estatu Batuak lehentasunezkoak dira ikasteko, euskal ondasun eta zerbitzuak esportatzeko, jakintza espezifikoak helarazteko eta Basque Country marka proiektatzeko. Herrialde hori munduko lehen potentzia eta euskal enpresa ugariaren xede-merkatua da, euskal komunitate handi bat biltzen du, eta erreferentzia da Eusko Jaurlaritzak diharduen jakintza-eremu askotan. Latinoamerika, berriz, gurekin lotura historiko garrantzitsuak dituelako eta zabalkunde ekonomikoko prozesuan murgilduta dagoen, baina oraindik erronka sozioekonomiko batzuei aurre egin behar dien (eta erronka horietan Euskadik badu nolabaiteko esperientzia) eskualde bat delako, jakintza, ondasunak eta zerbitzuak transferitu eta esportatzeko lehentasunezko eremu geografikotzat hartzen da. Latinoamerikako herrialdeen artean, Mexiko da interesik handiena sortzen duena, eta, haren atzetik, Brasil, Kolonbia eta Peru, herrialderik dinamikoena eta datozen urteetan garatzeko eta hazteko ahalmenik handiena dutenak baitira.

Asiari dagokionez, Korea eta Singapur munduko sailkapenetako lehen postuetan kokatu ohi dira Eusko Jaurlaritzarentzat interes estrategikoa duten jakintza-eremuetan, eta ikasteko eta konparatzeko lehentasunezko herrialdeak dira. Sortzen ari diren potentzien artean, India (bi ikuspegietatik) eta Txina (jakintza irakatsi eta elkartrukatzeko motibazioari lotuta) lehentasunen artean agertzen dira, bertako merkatuen ahalmena izugarria baita. Afrikari dagokionez, Euskadik kontinente horretan garatuko duen nazioartekotze-ekintza Hegoafrikako Errepublikan oinarrituko da.

Bigarren lehentasun-mailaren barruan, eta Europari dagokionez, Holanda eta Irlanda ikasteko eta jardunbide egokiak lortzeko herrialdeak dira, eta Errusia eta Turkia, berriz, Euskaditik jakintza eta aktiboak helarazteko eta euskal ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko ekonomia interesgarriak dira.

Amerikan, Eusko Jaurlaritzarentzat eta euskal agenteentzat Euskadiko industria-produkzioa, kultura-produkzioa edo produkzio zientifiko-teknologikoa eta egiten jakitea sustatzeko loturak ezartzeko garaian interesik handiena duten herrialdeak Argentina (kanpoko euskal komunitaterik handiena biltzen duen herrialdea) eta Txile (Latinoamerikako garapen-indizerik handienetako bat duen herrialdea) dira. Kanada, berriz, ikasteko eta konparatzeko interesa duen herrialdeetat hartzen da.


Asiari dagokionez, hego-ekialdeko herrialdeek aukerak eskaintzen dituzte Euskadiko ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko. Herrialde horien artean, Indonesia, Malaysia eta Vietnam azpimarratu behar dira. Japonia, bestalde, giza garapenari dagokionez maila handia eskaintzen duen herrialdea da, eta, beraz, EAEra transferitzeko moduko jardunbide egokiak lor daitezke herrialde horretatik.

Ekialde Ertainean, Israel ikasteko aukera emango duen bazkide lehenetsia da, eta Golkoko herrialdeek, beren dinamismoa eta erosteko ahalmena dela-eta, Euskadiko gaitasunak eta egiten jakitea erakusteko eremu geografiko bat osatzen dute.


Ondorengo bi mapetan, Euskadi nazioartekotzeko ardatz geografikoak irudikatu dira, bi ikuspegi desberdinetan oinarrituta:

- Lehen mapan, dagokion motibazioaren ikuspegiaren arabera lehentasun geografikoak agertzen dira (hau da, ikasi eta konparatzeko motibazioaren, jakintza irakatsi eta elkartrukatzeko motibazioaren edo bien arabera).
- Bigarren mapak, berriz, lehentasun-ordenaren arabera ardatz geografikoak (lehentasunezko lurraldeak eta lehenetsitako lurraldeak bereizita) eta Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sarea irudikatzen ditu.

3. grafikoa. Fokalizazio geografikoaren mapa, motibazioaren eta eremu geografiko estrategikoaren arabera



4. grafikoa. Fokalizazio geografikoaren mapa, lehenetasun-mailaren eta Eusko Jaurlaritzaren presentziaren arabera



4.1. Eginkizuna eta Helburu Estrategikoak

2013ko apirilaren 9an, Eusko Jaurlaritzak Lehendakartzaren eta horren idazkaritzen egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen (187/2013 Dekretua), eta, idazkaritza horien artean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia dago. Zehazki, lehendakariari Autonomia Erkidegoaren kanpo-harremanen estrategia politiko-instituzionala zehazten eta zuzentzen laguntzeko ardura esleitu zitzaion azken Idazkaritza horri.

Gainera, Eusko Jaurlaritzari nazioartekotzeko strategiaren konfigurazioan eta egikaritzean babesa eta aholkuak emateko eta sailen eta horien Sektore Publikoaren kanpoko proiektiorako jardunak sustatu, bultzatu eta koordinatzeko ardura du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.

Nazioartekotzearen arloko koordinazio- eta babes-funtzioak betetzeaz gain, eskumen propioen zati garrantzitsu bat osatzen duten lau ekintza-ildo espezifikoren garapena gidatzeko ardura duen organoa da Idazkaritza. Hona hemen lau ekintza-ildo horiek: Europako esparruko harremanak, kanpoko harremanak, kanpoko euskal komunitatearekiko harremanak eta garapenerako lankidetzak.

Esparru horren barruan, Europako Erkidegoko harremanen kudeaketa ikuspegi bikoitz batetik lantzen da. Alde batetik, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak jardun-politika zehaztu eta Europako erakundeekiko (eta, bereziki, Europar Batasunarekiko eta Europako Kontseiluarekiko) harremanen garapenari lotutako kudeaketak eta jarduerak egiten ditu, Euskadirentzat interes berezia duten gaitetan. Eremu horretan, honako alderdi hauek sartzen dira, besteak beste: zuzeneko parte-hartzea Erkidegoko araudia eta politikak lantzean eta aplikatzean, Europako erakundeen organoetan eta lan-taldeetan beharrezkoa den parte-hartzea, Europako Erkidegoko zuzenbidearen aplikazioa, eta Eusko Jaurlaritzaren komunikazio ofizialak Europako erakundeetara (eta, bereziki, Europako Batzordera) bideratzeko aukera. Bestetik, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzari lotutako jardun-esparrua zehazten du Idazkaritzak, eta Jaurlaritzaren ordezkari-lanak eta/edo aholkulari-lanak egiten ditu beste eskualde batzuekin lankidetzan jarduteko aukera ematen duten foro eta gunetan.

Kanpoko harremanen arloan, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanak eraginkortasunaren eta koherentziaren printzipioen arabera programatu, bultzatu eta koordinatzea, Euskadi eragile global gisa kokatzeko eta munduan euskal interesak babesteko helburu bikoitzarekin. Horretarako, Euskadi ordezkatu du erakunde-mailan, eta lotura egonkorrak ezarriko ditu beste herrialde, eskualde eta nazioarteko erakunde batzuekin.

Horrez gain, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia kanpoko euskal komunitatearekiko harremanen arloko politika kudeatu eta betetzen duen organoa da. Kanpoko euskal komunitatearen barruan, kanpoan bizi diren euskaldunak zein bere garaian hainbat arrazoiengatik Euskaditik joan zirenen ondo-

rengoak daude. Ildo horretan, gizatalde horietarako hurbilketa handiagoa sustatzeko, gizatalde horieki-ko loturak (lotura sozialak, kulturalak eta ekonomikoak batez ere) zabaltzeko, eta elkarren arteko kone-xioa erraztuko duten mekanismoak sortzeko funtzioa du. Eta euskal emigrazioaren memoria historikoa biltzeko funtzioa ere esleitu zaio jardun-eremu horretan.

Garapenerako lankidetzaren eremuan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez dihardu. 5/2008 Legea aplikatuz, garapenerako lanki-detzaren arloko politikaren plangintza, koordinazio, kudeaketa eta egikaritzeaz arduratzen den organoa da Agentzia hori. Eremu horretan, Eusko Jaurlaritzak nazioarteko elkartasunaren arloan egiten dituen ekintzak arautzeko estrategia espezifiko bati jarraitzen dio Agentziak.

Esleitu zaizkion eskumenak eraginkortasunez betetzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagu-siak hiru Zuzendaritza ditu: Europako Gaien Zuzendaritza, Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza. Gainera, Garapenerako Lankidetzaren Eus-kal Agentzia Idazkaritzari atxikita dago. Idazkaritzak, gainera, 5 ordezkari ditu atzerrian (Euskadiren Ordezkaritza Estatu Batuetan, Euskadiren Ordezkaritza Mexikon, Euskadiren Ordezkaritza Argentinan –Mercosur–, Euskadiren Ordezkaritza Txilen, Perun eta Kolonbian –bulegoak Santiagon eta Bogotan–, eta Euskadiren Ordezkaritza Europar Batasunean, Bruselan kokatua), baita Bulego bat ere Madrilan.

Eskema horren arabera, atal honetan azalduko dugun Kanpo Harremanetarako Plana egikaritzea eta abian jartzea dagokio Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari. Plan horrek honako eginkizun eta helburu estrategiko hauek ditu:

EGINKIZUNA

Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanak eraginkortasunaren eta koherent-ziaren printzipioen arabera programatu, bultzatu eta koordinatzea, Euskadi eragile global gisa kokatzeko eta munduan euskal interesak babesteko helburu bikoitzarekin. Horretarako, Euskadi ordezkatu du erakunde-mailan, lotura egonkorak ezarriko ditu beste herrialde, eskualde eta nazioarteko erakunde batzuekin, Europako erakundeetan zuzenean parte hartzeko aukera bultzatuko du, kanpoan den euskal komunitatearekiko loturak estutuko ditu, eta nazioar-teko elkartasuneko ekimenak abian jartzeko zeregina bideratuko du

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eginkizuna ekintza-esparru propio bati jarraiki egingo da, honako helburu estrategiko hauek betetzen laguntzeko jardunen bidez:

1. Euskadi munduan proiektatzea

Basque Country Estrategiaren lehen bektorearen arabera, Euskadi munduan eragile global eta bikaintasun-erreferentzia gisa proiektatzea funtsezkoa da euskal erakunde eta eragile sozioeko-nomikoek nazioartekotze-helburuak lortzeko.

Bizi garen testuinguru globalizatuan, nazioartean ospea eta aintzatespena duen marka baten babespean mundura irteteak lehiatzeko abantaila ematen du, argi eta garbi. Ildo horretan, Basque Country marka euskal gizartearen izaera dinamiko, moderno eta kohesionatuan, gure berezitasun eta balioetan eta metatutako jakintza-aktiboetan oinarritutako herrialde-irudia abian jartzeko eta nazioartean behar bezala kokatzeko tresna nagusia da.

Premisa horiekin, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak zeregin dinamiko bat bete behar du Basque Country marka finkatzeko garaian. Ildo horretan, marka hori zabaltzeko eta komunikatzeko jarduerak bultzatu eta garatuko ditu (jarduera eta ekitaldi presentzialen zein Interneten bitartez), eta euskal erakunde sorta handi bat markari atxikitzeko ahaleginak egingo ditu. Horrela, beraz, Basque Country marka nazioartean kokatzeko prozesua parte-hartzean oinarrituta egongo da, eta EAEko Administrazioa Orokorra –eta, bereziki, kanpoan dituen organoak– ez ezik, Euskadiko beste erakunde batzuk, Euskal Etxeen Sarea eta sektore pribatuko euskal agenteak ere inplikatu dira bertan.

Markarekin batera, bisitatzen gaituztenen iritziak eta zuzeneko jakintza beste bide bat dira kanpoan ezagutzera emateko eta nazioartekotzerako ingurune aproposa sortzeko. Horri dagokionez, eragin handiko nazioarteko ekitaldiak zein nazioartekotzearen esparru estrategikoan lehentasunezko zatitza eta lehenetsitako zatitza hartutako herrialde eta eskualdeetako pertsona garrantzitsuak Euskadira erakartzeko lan-bide bat ireki da.

Halaber, Euskadi kanpoan proiektatze aldera, euskal agenteen politikak, ereduak eta gaitasunak agertzeko aukera emango duten elkarriketa-ekimenak edo elkarriketa-mekanismoak garatu behar dira nazioarteko eragileekin. Horretarako, nazioarteko erakundeek EAEn dagoen expertisea zabaltzeko aldizka bultzatzen dituzten proiektzio globaleko foroak eta ekitaldiak baliatu behar dira.

2. Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorrean laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez

Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanak Euskadiko sektore anitzeko interesak beharrezkoa den lekuetan babestearen zerbitzura daude. Gaur egungo testuinguruan, gizarteek lortutako garapen-eta ongizate-maila bertako enpresek eta erakundeek sareetan eta balio-kate globaletan lortu duten integrazio-mailaren arabera da, eta, horretarako, lehiakortasun- eta desberdintasun-maila handiak behar dira. Hori dela-eta, euskal agenteak operazio-eredu berrietan txertatzeko aukera bultzatu, eta Euskadi liderra den sektoreetan eta sortzen ari diren lehentasuneko sektoreetan (hala nola garraioaren azpiegiturretan, ingurumenean, energian edo kulturean) nazioarteko proiektuak abian jartzeko aukera erraztu behar da.

Horretarako, eta eragin-ahalmen eta masa kritiko handiago izateko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak konpromisoa hartu du euskal errealitatearekin osagarritasunak dituztelako edota eremu jakin batzuetan liderrak direlako nazioarteko bazkide estrategikoak diren eskualdeekin lankidetzeta-hitzarmenak identifikatu eta ezartzeko. Horren bidez, baterako proiektuak garatu, posizio partekatutako babestu eta esperientziak elkartrukatu nahi dira, euskal agenteek nazioarteko merkatuan txertatzeko aukera handiago izan dezaten.

Horrez gain, eta betiere sektore anitzeko interesak sustatzeko helburuarekin, Euskadik nazioarteko erakundeen aurrean duen posizio estrategikoa sendotu nahi da. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanek orain arte erakunde horiekin izandako elkarrizketa eta elkarre-ragina areagotzea dute xede, eta, horretarako, besteak beste, lankidetzeta-hitzarmenak ezarri, alderantzizko misioak eta ohitzeko bisitaldiak antolatu, euskal agenteak identifikatu, eta agente horiek erakundeek bultzatutako sare tematiko sektorialetan txertatuko dira. Sare tematiko horiek lagungarriak izango dira kontaktuak, esperientziak, jardunbide egokiak eta jakintza elkartrukatzeko, eta erabakiak hartzen eta euskal gizartearen bilakaera bideratuko duten politikak diseinatzen diren instantzietan Euskadik duen posizioa indartzeko.

Logikoa denez, beste eskualde eta nazioarteko erakunde batzuekiko harremanak areagotzea ez ezik, herrialde estrategikoekin erakunde-harreman estuak ezartzea ere lehentasunezkoa da. Horrela, beraz, Euskadi nazioartekotzeko lehentasunezko eta lehenetsitako herrialdeetako erakunde, enbaxada eta ordezkariak kontsularrekiko harreman egonkorak ezartzen eta horiei eusten saiatuko da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia. Helburu hori lortzeko, eskuragarri dauden bitarteko eta baliabideak erabiliko dira. Horien artean, Euskadik atzerrian dituen ordezkariak azpimarratu behar dira, balio erantsirik handiena ematen duten tresnak baitira.

3. Europaren eraikuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea

Euskadi Europa da. Horren ondorioz, Euskadiren nazioarteko ekintzaren bazkide natural eta lehenetsia da Europar Batasuna. Subsidiarotasun-printzipioan oinarrituta egituratuko den eta ekintzaren ardatz gisa herritarrak izango dituen Europa bateratuago bat eraiki nahi dugu.

Eusko Jaurlaritzak hitza izan nahi du Europako proiektuan, eta zuzenean parte hartu nahi du gure autogobernua eraginpean hartzen duten gaiak eztabaidatu edo erabakitzen diren Erkidegoko organo eta estamentu guztietan. Horri dagokionez, euskal administrazioa etorkizunean gure eskumenei lotutako gaiak lantzen dituzten Europako Kontseiluaren taldeetan eta Batzordearen lan-batzordeetan egotea lehentasunezkoa da erakunde-mailako kanpo-harremanetarako. Era berean, Eskualdeen Batzordean zeregin aktibo bat betetzen jarraitu nahi da.

Bestalde, Euskadiko kanpo-harremanei lotutako jardueraren barruan, Erkidegoko zuzenbidearen arabeko legeria eta araudia zorrotz betetzeko beharrezkoak diren tresnak eta mekanismoak erabiltzea proposatzen da. Horrez gain, Eusko Legebiltzarrak, Lisboako Itunean bildutako xedapenetan oinarrituta, Europako Erkidegoko erakundeen legeria-ekimenen subsidiarotasun-printzipioa eta proportzionaltasun-printzipioa behar bezala kontrolatu ahal izateko helburuarekin lan egingo du Eusko Jaurlaritzak, ekimen horiek bere eskumenak eraginpean hartzen diren heinean.

Europaren eraikuntzan parte hartzeak eta erantzukizuna hartzeak, halaber, EAEren eta bazkide estrategiko potentzialen artean mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzeta sustatzea dakar, aldean garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako lagungarriak izango diren baterako jardunak egiteko helburuarekin. Akitaniari eta, horren barruan, Ipar Euskal Herriari, lehentasunezko arreta eskainiko zaie. Halaber, mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzarako foro edo elkarreetan (hala nola Pirinioetako Lan Erkidegoan eta Arku Atlantikoan) dugun parte-hartzea areagotu egin behar da, eremu horretako partenariatu berrietan inplikatzeko aukera baztertu gabe.

Europako esparruan lortutako integrazioa areagotzeko beste formula bat Europar Batasunak

finantzatutako proiektu eta ekimenetan parte-hartzearen maila handitzea da. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren babesarekin, Europako Erkidegoko finantza-esparru berriaren eta etorkizuneko programen ondorioz lankidetzari eta finantzaketari lotuta sortzen diren informazio, eduki eta aukeren zabalkundean lan egingo du. Halaber, aholkularitza eskainiko da proiektuak formulatzeko eta Europar Batasuneko instantzietan aurkezteko. Bestalde, Europar Batasuneko gorabeherak euskal herritarrei hurbiltzeko, lehenatasunez hartzen da Europaren eraikuntzaren eta horrek Euskadin duen eraginaren arloan egindako aurrerapenen inguruko sentsibilizazio-kanpainak eta eztabaidak bultzatzea.

4. Kanpoan den euskal komunitatearekiko loturak sakontzea

Basque Country Estrategia bat dator 2011. urtean egindako V. Mundu Batzarrean zehaztutako Erakunde Ekintzarako Lau Urteko Planean ezarritako helburuekin.

Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legean adierazten denez, euskal komunitatearekiko loturak gorde eta sustatu, Euskadi kokatuta dagoen leku guztietan Euskadiko errealitatearen jakintza proiektatu, eta harremanak bultzatu behar dira (harreman sozialak, kulturalak eta ekonomikoak bereziki). Kanpoan den euskal komunitatea Euskadi proiektatzeko eta munduan ditugun interesak babesteko aktibo bat da Eusko Jaurlaritzarentzat. Hori dela-eta, erreferentziatzko beste herrialde eta eskualde batzuetan egin den bezala, kolektibo horrekiko loturak identifikatu eta sendotzeko helburua du. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.

Kanpoan den euskal komunitatea, alde batetik, euskal etxeen eta federazioen inguruan antolatutako gizatalde batez osatuta dago, eta, bestetik, ehun herrialde baino gehiagotan barreiatuta dauden gero eta pertsona kopuru handiago batez. Kanpoko euskal komunitatea osatzen duten pertsonen profila aldatzen ari da. Gehienak egoera ekonomiko eta politiko gogor batzuetatik ihes eginez eta etorkizun hobe baten bila bere garaian Euskadi utzi zuten ondorengoak badira ere, beste herrialde batzuetara behin betiko edota aldi baterako joan diren pertsonen osatutako migrazio-errealitate berri bat dugu gaur egun.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak jakin badaki komunitate horrek balio handia ematen diola Euskadiren nazioartekotzearen garapeneri. Hori dela-eta, konpromisoa hartu du komunitatea osatzen duten pertsona guztiekiko loturari eusteko eta lotura hori sendotzeko erronkari aurre egingo dioten hainbat tresna diseinatu eta abian jartzeko. Lan-ildo horren barruan, kanpoko euskal komunitate osoa elkartuko duen sare global bat (Global Basque Network izenekoa) sortzeko proiektua nabarmendu beharra dago. Sare horren zati handi bat, zalantzarik gabe, Euskal Etxeen Sarea osatzen duten pertsonen osatuko dute (sare hori aspaldi hasi zen eratzen, eta dagoeneko 187 zentro daude ofizialki erregistratuta, 4 kontinenteko 25 herrialdetan).

Gainera, eta komunitate horrek duen ahalmen handia eta Euskadi nazioartean proiektatzeko egin duen ekarpena baliatzeko, dauden egitura horiek egokitzeko eta modernizatzeko beharrezkoak diren jarduerak bultzatuko dira, komunikazio-teknologiarik egokienak erabiltzeko aukera bultzatuko da (era horretan Euskal Etxeen komunitateari bizirik eta aktibo eusteko), eta bide hori lehenatasunez hartuko da euskal errealitatea nazioartera zabaltzeko garaian.

Era berean, ezinbestekoa da gizatalde horiek (horiek bakarrik ez, baina horiek bereziki bai) euskal herrian eta haren historia eta kulturen duten interesari eustea eta interes hori sustatzea. Beraz,

euskal diasporari buruzko azterlan eta argitalpenen sustapena babestean eta Euskadiren eta gizatalde horien arteko erakunde-harremanak, harreman ekonomikoak eta kultura-harremanak sendotzearen alde lan egitean datza gakoetako bat.

Epigrafe honen barruan, Eusko Jaurlaritzak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren esku-hartzearen bitartez, euskarria, arreta eta prestazioak lortzeko aukera eskainiko dizkie kanpoko euskal komunitatea osatzen duten eta premia larriko egoeran dauden emakume eta gizonei.

5. Mundu bidezkoago eta orekatuago bat eraikitzen laguntzea

Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen helburua da, halaber, euskal gizarteak elkartasunarekin hartu duen konpromisoa bideratzea, era horretan mundu bidezkoago eta orekatuago bat eraikitzen laguntzeko. Maila globalean, Euskadik nazioarteko garapen eta elkartasunarekin konprometitutako eragile izan nahi du, eta ekitate eta justizia sozialean oinarritutako gizarte-eraldaketarako alternatibak sortuko dituen lankidetzak bat sustatu nahi du.

EAEEn bultzatzen den lankidetzak, nolana ere, lankidetzak deszentralizatu izenekoan kokatuta dago. Estatuaz azpiko erakundeek eta toki-korporazioek egiten dute, eta gizarte zibilak inplikazio handiagoa du. Autonomia Erkidegoko eta tokiko administrazioekiko hurbiltasuna dela-eta, gizarte zibilak lankidetzak elkartasunaren eta giza garapenak behar duen arretaren printzipioetan oinarrituta egoteko eskakizuna helarazi die administrazio horiei.

Ilido horretan, Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez bideratzen du mundu justuago baten eraikuntzarekin duen konpromisoa. Agentzia hori Lehendakariari atxikitako erakunde publiko bat da, eta nazioarteko elkartasunaren eremuko ekintzak planifikatu eta kudeatzen ditu.

Agentziak toki-garapenean oinarritutako lankidetzak bat sustatu nahi du, lurraldekoa denarekiko afinitateagatik ez ezik, tokikoa denak garapenean duen garrantziagatik eta «zehaztasunetik» gizarte-eraldaketarako alternatibak (bizi-baldintzen hobekuntza orokorra kontuan hartuko dutenak) eta herritartasuna sortuko dituzten prozesuak garatzeko eskaintzen den aukeragatik ere bai. Euskal sektore publikoaren elkartasun eskuzabalari lotutako printzipio eta ekimen horiek Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak-eredu propioa zehazten duen 2007. urteko Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Legean jasota daude. Legeak hainbat jardun eta konpromiso finkatzen ditu, eta euskal gizarteak eta euskal erakundeek beren gain hartzen dituzte, herrien giza garapena eta garapen iraunkorra toki-mailan eta maila globalean sustatzeko (eta, bereziki, pobreziaren desagerraraztea, giza eskubideen betetzea eta justizian oinarritutako nazioarteko harremanak sustatzeko).

Era berean, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako garapenerako lankidetzaren esparruan abian jarritako ekimen, estrategia eta prozesu guztiak Agentziak berak landutako garapenerako lankidetzaren plan estrategiko eta zuzentzaileetan jasota daude, era koordinatu eta koherentean. Ilido horretan, Plan Estrategiko eta Zuzentzaile berria onartu nahi da 2014. urtean, eta, horregatik, garapenerako lankidetzaren inguruko ekintza zehatzik ez da bildu dokumentu honetan.

6. Kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Euskadiko kanpo-harremanen estrategia politiko-instituzionala zehazten eta koordinatzen lagundu behar dio lehendakariari, eta Eusko Jaurlaritzaren sailei zein gizarte zibila osatzen duten agente publiko eta pribatu guztiei egindako zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetu behar du. Horretarako, kanpo-harremanen

koordinazioa Idazkaritzaren tresnak sendotzearen bidez finkatzeko, egitura indartzeko eta Estatu administrazio orokorrarekiko zein euskal administrazio publikoekiko lankidetzaren optimizatzeko beharrezkoak diren mekanismoak erabiltzeko ahaleginak egingo dira.

Era berean, jardueraren zati handi bat atzerrian egiten duten euskal agenteei, Eusko Jaurlaritzaren saileri eta sektore publikoari nazioartekotzearen arloko balio erantsiko zerbitzuak eta informazioa eskaintzeko Idazkaritzak duen ahalmena hobetuko da.

Horretarako, beharrezkoa da eremu hori profesionalizatzea, hain zuzen ere Administrazio Publikoko profesionalen gaitasunak lotu eta sendotzera zein etorkizunean lehen mailako kanpo-harremanak ziurtatuko dituzten adituen belaunaldi berri bat prestatzera zuzendutako ekimenen bidez.

Era berean, garrantzitsutzat hartzen da Euskadiko ordezkartzekiko lankidetzaren estutzea eta, etorkizunari begira, antenak eta beste ordezkartza posible batzuk irekitzeko aukera aztertzea, koordinazio-kanal eraginkorragoak ezar daitezzen, eta agente sozialen eta Eusko Jaurlaritzaren sailen benetako premietara bideratuta egongo diren zerbitzuak eskain daitezzen.

4.2. Ekintza-ildoak eta Jardunak

Plan honetan zehaztutako ekintza-ildoak eta jardunak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren berezko helburuak lortzera zein Kanpo Harremanetarako Plan hau zehaztu aurretik egindako gogoeta-prozesuan parte hartu duten agenteen eta Eusko Jaurlaritzaren sailen eskakizunak betetzera bideratuta daude. Horrela, beraz, balio erantsia emateko eta 3.6 idatz-zatian islatuta dauden gobernu-ekintzaren eremuetan aurreikusitako nazioarteko jardunak abian jartzen lagunduko duen zerbitzu bat emateko asmoarekin planifikatzen du bere jardueraren Idazkaritzak.

Garapenerako Lankidetzaren kasu zehatzean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Idazkaritzari atxikita badago ere, dokumentu honek ez du kontuan hartzen ekintza-ildo eta jardun zehatzik eremu horretan. Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legeari jarraiki, arloko estrategia osatzen duten helburuak, tresnak eta proposamen operatiboak islatu behar dituen dokumentua lau urteko Plan Zuzentzailea da, betiere Eusko Legebiltzarrak urte anitzeko plangintza estrategikorako orientabide orokorrak onartu ondoren.

Ondorengo taulan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren jarduera zuzenduko duten ekintza-ildoen, Eusko Jaurlaritzarako identifikatutako nazioartekotze-bektore komunak eta X. Legegintzaldiko Gobernu Programaren helburu estrategikoen artean dagoen zuzeneko lotura dago islatuta. Taulak agerian uzten duenez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren lanaren muina osatuko duten jardunak eta zerbitzuak koherenteak dira, eta bat datoz Nazioartekotzeko Esparru Estrategiarekin.

5. taula.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren ekintza-ildoen, nazioartekotzearen bektore komunak eta nazioartekotzearen helburu estrategikoen arteko lotura

Kanpo-harremanen helburua	Ekintza-ildoak	Nazioartekotzearen bektore komunak	Nazioartekotzearen helburu estrategikoak
Euskadi munduan proiektatzea	EI1.1. Basque Country marka finkatzea	B1 / B2 / B3	H1/H2/H3/H4/H5/H6/H7/H8/H9/H10/H11/H12
	EI1.2. Nazioartekotzeko ingurune aproposa sortzea	B1 / B2 / B3	H1/H2/H3/H4/H5/H6/H7/H8/H9/H10/H11/H12
	EI1.3. Euskadik nazioartean duen tokia hobetzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H2/H3/H4/H5/H8/H9/H10/H11/H12
Sektore anitzeko interesak sustatzea	EI2.1. Euskadirentzat estrategikoak diren eskualdeekin harremanak ezartzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H2/H3/H4/H5/H6/H7/H8/H9/H10/H11/H12
	EI2.2. Euskadiren eta nazioarteko erakundeen arteko harremanak areagotzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H2/H3/H4/H5/H7/H8/H9/H10/H11/H12
	EI2.3. Euskadiren kanpoko erakunde-harremanak areagotzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H4/H5/H6/H7/H8/H9/H10/H11/H12
	EI2.4. Euskal agenteek sare tematikoetan parte hartzeko aukera sustatzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H5/H8/H9/H10/H11/H12
Europa eraikitzea	EI3.1. Euskadiren lidergoa sustatzea, Europan dituen interesak babesteko	B1 / B2 / B3	H4/H5/H8/H9/H10/H11/H12
	EI3.2. Mugaz gaindiko lankidetzak sendotzea	B2 / B3 / B4	H4/H5/H8/H9/H10/H11/H12
	EI3.3. Euskal agenteek Europar Batasuneko erakunde, proiektu eta ekimenetan behar duten parte-hartzea eta presentzia areagotzea	B1 / B2 / B3 / B4	H4/H5/H8/H10/H11/H12
	EI3.4. Europako Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazioaz arduratzea	B3	H5/H8/H9/H10/H11/H12
Kanpoan den euskal komunitatea	EI4.1. Kanpoan den egungo euskal komunitatea osatzen duten gizataldeak konektatzea	B1 / B2 / B4	H5/H7/H8/H11
	EI4.2. Euskal emigratio eta diasporaren inguruko alderdiei buruzko ikerketa eta jakintza sustatzea	B1 / B2 / B4	H7/H8/H11
	EI4.3. Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bitartez	B1	H7/H8/H11
	EI4.4. Kanpoan den euskal komunitatea osatzen duten pertsonen laguntzea	B1	H7/H8
Euskadiren eraginkortasun eta kalitatea kanpoan	EI6.1. Kanpo-harremanen koordinazioa finkatzea	B1 / B2 / B3 / B4	H5/H6/H7/H8
	EI6.2. Gizarteak Euskadi nazioartekotzeko prozesuan parte hartzeko aukera aktibatzea	B1 / B2 / B3 / B4	H1/H5/H8
	EI6.3. Euskadiren kanpo-harremanen lotutako ekintza profesionalizatzea	B1 / B2 / B3 / B4	H4/H5/H6/H7/H8
	EI6.4. Ordezkaritzeko koordinazioa finkatzea	B1 / B2 / B3 / B4	H5/H7/H8

Iturria: geuk egina.

Ondoren, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak abian jarri beharreko 2014-2016ko Kanpo Harremanetarako Planaren eduki osoa xehatuko dugu. Zehazki, 5 helburu estrategiko, 19 ekintza-ildo eta 70 jardun identifikatu dira. Ekintza-ildo bakoitzak, nolana ere, justifikazioa eta lortu nahi den helburua, inplementatu beharreko jardunak eta behar bezala egikarituko direla ziurtatuko duen organoa eskematikoki bilduko dituen fitxa bat du. Era berean, jardun bakoitzerako jarraipen-adierazleak, lortu beharreko helburuak eta 2014-2016ko aldiaren egiteko denbora-plangintza zehaztuta daude.



 HELBURU ESTRATEGIKOA	H1: Euskadi munduan proiektatzea	 H1-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA		 EI 1.1-AREN ARDURADUNA	Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>LBasque Country marka Eusko Jaurlaritzak nazioartekotzearen alde egindako apustuaren adierazgarri nagusietako bat da. Marka Euskadiren irudia munduan zabaltzeko tresna dela esan daiteke. Irudi hori, nolana ere, euskal gizartearen izaera dinamiko, moderno eta kohesionatua, kultura eta identitate propioan eta gure jakintza-aktiboetan oinarrituta egongo da.</p> <p>Komunikazio-zerbitzuekin lankidetzan, aurkezteko materiala landuko da hainbat euskarritan, eta marka era homogeen eta bateratua zabaltzeko bideak identifikatuko dira (internet barnean hartuta). Gainera, Eusko Jaurlaritzak kanpoan zabalduko du Basque Country marka, ordezkartzean eta markari atxikitzean asmoa duten agenteekin lankidetzan.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J1.1.1. Basque Country marka aurkezteko materiala lantzea, hainbat hizkuntza eta euskarritan	Landutako materialak	40	2016
J1.1.2. Eusko Jaurlaritzak Basque Country marka zabaltzeko betetzen duen zeregina koordinatzea	Eusko Jaurlaritzak antolatu dituen eta Basque Country markari eskainitako tarte bat duten ekitaldien kopurua	150	2016
J1.1.3. Interneten komunikatzeko estrategia bat garatzea	Bilatzaileetako kokapena hobetzea	% 50eko igoera	2016
J1.1.4. Ordezkaritzek eta euskal etxeek Basque Country marka zabaltzeko antolatutako ekintzak	Egindako zabalkunde-ekintzen kopurua	50	2016
J1.1.5. Euskal agenteak Basque Country markari atxikitzea	Atxikitako agenteen kopurua	100	2015eko 1. seihilekoa


 HELBURU ESTRATEGIKOA	H1: Euskadi munduan proiektatzea	 H1-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA		 EI 1.2-AREN ARDURADUNA	Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Ekintza-ildo hau datozen urteetan bisitatuko gaituzten pertsona garrantzitsuen iritzien eta zuzeneko jakintzaren bitartez Basque Country marka kanpoan behar bezala kokatzea zuzenduta dago.</p> <p>Horretarako, Idazkaritzak eragin handiko jardunak egingo ditu Euskadin. Jardun horiek nazioarteko eragileen parte-hartzea izango dute, eta nazioartean erreferentzia garen alderdiak (Euskadin finkatutako politikak, ereduak edo ahalmen espezifikoak) bereziki azpimarratuko dituzte. Ildo honen bidez, harremanak areagotu nahi dira interes komunak dituzten herrialde eta eskualdeetako «decision-makers» deitutakoekin.</p> <p>Herrialdea munduan proiektatzeko ingurune aproposa sortze aldera, lehentasunezko hartzen da behar bezala trebatutako langileak izatea eta kalifikazio handiko nazioarteko profesionalak hainbat eremutako euskal proiektuetan (hala nola ikerketaren eremukoetan) parte hartzeko aukera erraztea.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J1.2.1. Lehentasunezko herrialde eta eskualdeetako liderrekin «learning tour-ak» antolatzea	Antolatutako learning tour-en kopurua	5	2016
J1.2.2. Txandakako egoitza duten nazioarteko ekitaldiak erakartzea eta antolatzea	Antolatutako ekitaldien kopurua	4	2016
J1.2.3. Nazioarteko proiektzioa duen talentua eta jakintza erakartzeko eta horri eusteko aukerari euskarria ematea	Egindako euskarri-ekimenen kopurua	10	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H1: Euskadi munduan proiektatzea	 H1-AREN ARDURADUNA		
 EKINTZA ILDOA		EI1.3. Euskadik nazioartean duen tokia hobetzea	 EI 1.3-AREN ARDURADUNA Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Ildo honen bidez, jakintza-arlo jakin batzuetan liderrak diren herrialdeetako mapan kokatu nahi da Euskadi. Nazioarteko komunitatean presentzia irmoa eta zuzeneko izatea funtsezkoa da Euskadik duen tokia hobetzeko. Horretarako, euskal agenteek eragin handiko nazioarteko ekitaldietan txostengile gisa parte hartzera bideratutako politika aktibo bat inplementatuko da.</p> <p>Euskal agenteek Euskadiren proiektio global handiagoa dakarten nazioarteko programa, ekitaldi edo proiektu tematikoetan parte hartzeko aukera sustatuko du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak. Horretarako, nazioarteko erakundeetara hurbiltzeko lana egingo da, horiekiko elkarriketa aktiboa bultzatuko da, eta funtsezko foroak eta ekimenak identifikatuko dira.</p> <p>Era berean, Basque Country Estrategian lehentasunezko hartutako herrialde eta eskualdeetan jardungo da.</p>			
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA	
J1.3.1. Profesional euskaldunek Nazio Batuen sistemako ekitaldi tematikoetan parte hartzeko aukera sustatzea	Parte hartu duten profesionalen kopurua	25	2016	
J1.3.2. Nazioartean ospe handia izango duen Basque Country Saria sortzearen bideragarritasunari buruzko azterketa	Egindako bideragarritasun-azterketa	1	2015eko 2. seihilekoa	
J1.3.3. Euskal expertisea nazioartean sustatzea	Kanpoko euskal erakundeen sustapen-ekimenen kopurua	40	2016	










2. HELBURU ESTRATEGIKOIA

Ekintza-ildoak		Jardunak
EI2.1	Euskadirentzat estrategikoak diren eskualdeekin harremanak ezartzea	<ul style="list-style-type: none"> • J2.1.1. Eskualde estrategikoekin alde biko lankidetzak-akordioak ezartzea eta abian jartzea • J2.1.2. Euskadirentzat interes estrategikoa duten eskualde-sareetan parte hartzea • J2.1.3. Norabide biko bisitaldi instituzionalak antolatzea (Euskadirentzat interesa duten eskualdeetatik / eskualdeetara)
EI2.2	Euskadiren eta nazioarteko erakundeen arteko harremanak areagotzea	<ul style="list-style-type: none"> • J2.2.1. Nazioarteko erakundeekin lankidetzak-akordioak ezartzea eta abian jartzea, Euskadi erreferentzia deneko ereduak eta politika publikoak helarazteko • J2.2.2. Alderantziko misioak antolatzea • J2.2.3. Nazioarteko erakundeekin elkarriketa-foroak egitea eta/edo horietan parte hartzea, eta euskal agenteen parte-hartzea sustatzea • J2.2.4. Erakunde multilateraletarako bisitaldiak bultzatzea (ohitzeo bisitaldiak) • J2.2.5. Ordezkaritza izango duten nazioarteko erakundeak erakartzea
EI2.3	Kanpoan Euskadiren erakunde-harremanak areagotzea	<ul style="list-style-type: none"> • J2.3.1. Lehenetsuzko eta lehenetsitako herrialdeetan ordezkaritzen eta erakundeen arteko harreman egonkorrak gauzatzea • J2.3.2. Ordezkaritza diplomatikoekiko harremanak areagotzea, Euskadi barruan zein kanpoan • J2.3.3. Erakunde-bisitaldiak antolatzea, Euskaditik eta Euskadira
EI2.4	Euskal agenteek sare tematikoetan parte hartzeko aukera sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> • J2.4.1. Euskadiko agenteentzat lehentasunekoak diren interes-eremuetan sare tematiko garrantzitsuak identifikatzea • J2.4.2. Agenteak identifikatutako sareetan txertatzeko prozesuan erakundeen babesa lortzea • J2.4.3. Sare tematiko estrategikoetan Euskadiren lidergoa sustatzea

HE2: Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorrean laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H2: Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorrean laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez	 H2-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI2.1. Euskadirentzat estrategikoak diren eskualdeekin harremanak ezartzea	 EI 2.1-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Ekintza-ildo honen bidez, Euskadik dituen antzeko interesak dituzten eskualde liderrekiko aliantza-sare bat sortu nahi da pixkanaka. Parteneriatu horiek elkartruke kultural, teknologiko edo ekonomikoa sustatzeko, esperientziak partekatzeko edo posizioak elkarrekin babesteko baliagarriak izan behar dute. Alde biko akordioak bultzatzeaz gain, ahaleginak egingo dira Euskadik lantzen duten gaiagatik zein osatzen dituztenen ospeagatik garrantzitsuak diren eskualde arteko sare sektorialetan parte har dezan.</p> <p>Horretarako, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak lankidetzak-akordioak ezarri, eskualde arteko sareak identifikatu eta bisitaldi instituzionalak antolatuko ditu. Horien guztien bidez, bidea erraztuko zaie euskal agenteei honako hauek egiteko: i) Euskadi erreferentzia deneko jakintza, ereduak edo politika publikoak erakutsi eta/helarazteko, ii) erreferentziako beste eskualde batzuetan dagoen jakintzatik ikasteko, eta iii) nazioarteko lankidetzak-proiektuak egiteko.</p> <p>Lankidetzak-akordioei edo sareko lanari lotutako eremuak Eusko Jaurlaritzaren sailekin lankidetzak estuan zehaztuko dira.</p> <p>Eremu horretan, gainera, Euskadik lidergo-zeregina bete behar du deszentralizazio-prozesuetan murgilduta dauden eskualde eta herrialdeen aurrean, eta kanpoan dugun irudiari ospea emango dion erreferentzia-eredu bihurtu behar du.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J2.1.1. Eskualde estrategikoekin alde biko lankidetzak-akordioak ezartzea eta abian jartzea	Politika publikoen euskal ereduak helarazteko izenpetutako akordioen kopurua	8	2016
J2.1.2. Euskadirentzat interes estrategikoa duten eskualde-sareetan parte hartzea	Parte hartu duen sareen kopurua	7	2016
J2.1.3. Norabide biko bisitaldi instituzionalak antolatzea (Euskadirentzat interesa duten eskualdeetatik / eskualdeetara)	Egindako lankidetzak-proiektuen kopurua	35	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H2: Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorrean laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez	 H2-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI2.2. Euskadiren eta nazioarteko erakundeen arteko harremanak areagotzea	 EI 2.2-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Euskal gizarteak gaur egun dituen erronketako asko globalak dira, eta, beraz, toki pribilegiatua hartzen dute nazioarteko organismo eta erakunderik garrantzitsuenen agendan. Erakunde horiekin zuzenean hitz egitea oso garrantzitsua da, lantzen dituzten arloetako asko euskal erakundeen eskumenekoak baitira.</p> <p>Ekintza-ildo honen bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira: i) Euskadik nazioarteko erakundeetan duen posizio estrategikoa indartzea, gure interesak hobeto babesteko, ii) besteak beste industria-politikaren, osasunaren, ingurumenaren, genero-berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko euskal aktibo diferentzialak ezagutzera ematea, eta iii) gure gizartea eraginpean hartzen duten erronketarako irtenbide globalak ematea.</p> <p>Hori guztia lortzeko, beharrezkoa izango da EAEn adierazitako erakundeei dagokienez egindako ekintza egituratzea eta ekintza horri koherentzia eta sistematika handiagoa ematea.</p> <p>Horretarako, euskal agenteen ekintza koordinatua eta bateratua sustatuko du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak nazioarteko erakundeei dagokienez, eta erakunde horien politika publikoak, esperientzia eta jakintza zabaltzen lagunduko du. Ildo horretan, Idazkaritzak aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak eskainiko dizkie Eusko Jaurlaritzaren sailei eta sektore publikoari zein zerbitzu horiek eskatzen dituzten Euskadiko beste eragile batzuei, publikoei (udalei, aldundiei eta abar) zein pribatuei.</p> <p>Horretarako, honako jardun hauek aurreikusi dira: nazioarteko erakundeekin lankidetzak-akordioak ezartzea, alderantzizko misioak eta bidaiak antolatzea erakunde horien prozedura espezifikoeekin eta operatibarekin ohitzeko, euskal agenteak eskualdeetako elkarriketa-foroetan parte hartzea, eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia sare horizontaletan txertatzea.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J2.2.1. Nazioarteko erakundeekin lankidetzak-akordioak ezartzea eta abian jartzea, Euskadi erreferentzia deneko ereduak eta politika publikoak helarazteko	Izenpetutako lankidetzak-akordioen kopurua	6	2016
J2.2.2. Alderantzizko misioak antolatzea	Egindako alderantzizko misioen kopurua	5	2016
J2.2.3. Nazioarteko erakundeekin elkarriketa-foroak egitea eta/edo horietan parte hartzea, eta euskal agenteen parte-hartzea sustatzea	Euskadiren parte-hartzea izan duten foroen kopurua	12	2016
J2.2.4. Erakunde multilateraletarako bisitaldiak bultzatzea (ohitzeko bisitaldiak)	Egindako bisitaldien kopurua	20	2016
J2.2.5. Ordezkaritza izango duten nazioarteko erakundeak erakartzea	Euskadin ordezkaritza duten nazioarteko erakundeen kopurua	2	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H2: Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorren laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez	 H2-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI2.3. Euskadiren kanpoko erakunde-harremanak areagotzea	 EI 2.3-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Zalantzarik gabe, herrialde estrategikoein erakunde-harreman estuak izatea oso lagungarria da herrialde horietan askotariko proiektuak abian jartzeko. Hori dela-eta, euskal interes sektorial ugari biltzen dituzten eta Basque Country Estrategian lehenetsuzko edo lehenetsizat hartu diren herrialdeekiko erakunde-loturak ezarri eta sakondu nahi dira lan-ildo honen bidez.</p> <p>Ekintza-ildo honen bidez, gainera, Euskadiren kanpo-harremanetarako lehenetsuzkoak diren herrialdeekin harreman egonkorak ezartzeko eskuragarri dauden bitartekoak eta baliabideak aktibatu nahi dira. Logikoa denez, Euskadik atzerrian dituen ordezkariak dira herrialde horietan alde biko harremanak sendotzeko tresna naturalak.</p> <p>Era berean, ordezkariak diplomatikoeikiko harremanak tresna ezin hobeak dira dagozkien herrialdeetan proiektuak abian jartzeko.</p> <p>Azkenik, erakunde-bisitaldiak ere tresna egokiak dira alde biko harremanak zabaltzeko, harreman horiei eusteko eta, era horretan, estrategikotzat hartutako herrialdeekiko elkartruke ekonomikoa, kulturala eta/edo jakintza-arlokoa bultzatzeko.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J2.3.1. Lehenetsuzko eta lehenetsitako herrialdeetan ordezkariak eta erakundeekin arteko harreman egonkorak gauzatzea	Ordezkaritzek antolatu dituzten eta toki-erakundeekin parte-hartzearekin egin diren ekitaldien kopurua	100	2016
J2.3.2. Ordezkaritzak diplomatikoeikiko harremanak areagotzea, Euskadi barruan zein kanpoan	Ordezkaritza diplomatikoeikiko Euskadira egindako bisitaldien kopurua	80	2016
J2.3.3. Erakunde-bisitaldiak antolatzea, Euskaditik eta Euskadira	Antolatutako agenden kopurua	50	2016



 HELBURU ESTRATEGIKOA	H2: Euskadiren garapen jarraitu eta iraunkorrean laguntzea, bertako sektore anitzeko interesak kanpoan sustatzearen bidez	 H2-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI2.4. Euskal agenteek sare tematikoetan parte hartze-ko aukera sustatzea	 EI 2.4-AREN ARDURADUNA Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Eusko Jaurlaritzaren sailek eta beste agente batzuek sare tematikoetan parte hartzea funtsezkoa da kontaktuak, esperientziak, jardunbide egokiak eta jakintza eskuratu eta elkartrukatzeko. Halaber, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzak zuzeneko eskumenak dituen sektore eta jardun-eremuen bilakaera baldintzatuko duten erabakiak hartzen eta politika publikoak diseinatzen dituzten instantzien aurrean Euskadik duen posizioa sendotzeko.</p> <p>Ildo horretan, euskal agenteek sare sektorialetan parte hartzearen bidez, helburu bikoitza lortu nahi da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gai sektorial zehatzari dagokionez nazioartean nagusi diren planteamendu estrategikoak zuzenean eta ahal bezain laster ezagutzea, Euskadi abangoardiako taldearekin etengabe konektatuta egoteko. - Euskal proposamenak proiektatzea, nazioarteko foroetan iritzi-korronteetan txerta daitezen <p>Horrela, beraz, ekintza-ildo honen bidez, intereseko sare tematikoak identifikatzen eta horietan txertatzen lagundu nahi zaie sailei eta euskal agenteei. Gainera, Euskadi sare horietako batean liderra izatea lortu nahi da, gai estrategiko batean sare berri bat sortzearen bidez, edota sortuta dagoen sare batean zeregin garrantzitsu bat betetzearen bidez.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J2.4.1. Euskadiko agenteentzat lehentasunezkoak diren interes-eremuetan sare tematiko garrantzitsuak identifikatzea	Identifikatutako sare tematikoen kopurua	12	2016
J2.4.2. Agenteak identifikatutako sareetan txertatzeko prozesuan erakundeen babesa lortzea	Ezarritako eta sailei eskainitako kontaktuak	60	2016
J2.4.3. Sare tematiko estrategikoetan Euskadiren lidergoa sustatzea	Euskadi liderra den edo zeregin garrantzitsua betetzen duen sare tematikoen kopurua	6	2016










3. HELBURU ESTRATEGIKOAK








Jardunak	
Ekintza-ildoak	Jardunak
<p>EI3.1</p> <p>Euskadiren lidergoa sustatzea, Europan dituen interesak babesteko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • J3.1.1. Lobby politiko-instituzionalaren ekintzak bultzatzea • J3.1.2. Euskadik Europako erakunde eta organoetan duen parte-hartzea sendotzea • J3.1.3. Estatu Administrazio Orokorraren eta Euskadikoaren arteko alde biko Batzordea Europako gaietan eta kanpo-harremanetan berriz aktibatzea • J3.1.4. Europar Batasunean eta Euskadirentzat lehentasunezkoak diren arloetan interes komunak babesteko partentariatuak ezartzea
<p>EI3.2</p> <p>Mugaz gaindiko lankidetzaren sendotzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • J3.2.1. Akitaniarekiko harremanak sendotzea eta Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa lantzea • J3.2.2. Mugaz gaindiko lankidetzan diharduten Frantziako Errepublikako erakundeekiko loturak sendotzea • J3.2.3. Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzarako foro edo elkarteetan parte hartzea
<p>EI3.3</p> <p>Euskal agenteek Europar Batasunaren erakunde, proiektu eta ekimenetan behar duten parte-hartzea eta presentzia areagotzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • J3.3.1. Europar Batasunari lotutako edukiak zabaltzeko zerbitzuen plataforma birtuala eguneratzea eta sendotzea • J3.3.2. Europako politketako profesionalen informazio-saiok antolatzea • J3.3.3. Europaren erakuntzaren eta horrek Euskadin duen eraginaren arloan egindako aurrerapen inguruko sensibilizazio-kanpainak eta eztabaidak bultzatzea • J3.3.4. Eusko Jaurlaritzaren sailekin koordinatzea eta lankidetzan jardutea, interesa duten Europako politika publikoei jarraipena emateko • J3.3.5. Euskadin jardunbide egokiak zabaltzeko programa eta jardunaldietan parte hartzea
<p>EI3.4</p> <p>Europako Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazioaz arduratzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • J3.4.1. Jaurlaritzaren ekintza koordinatzea eta horretarako aholkularitza ematea, Europako Erkidegoko zuzenbidearen ondoriozko betebeharrak betetzeko • J3.4.2. Estatu Administrazio Orokorrarekin hitz egitea • J3.4.3. Subsidiarotasun-printzipioa eragin-kortasunez aplikatzen laguntzea

HE3: Europaren erakuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H3: Europaren erai-kuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea	 H3-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA		 EI 3.1-AREN ARDURADUNA	Europako Gaiien Zuzendaritza
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Europar Batasuna Euskadiko erakundeen kanpo-harremanetarako bazkide natural eta lehenetsia da. Euskadi Europar egotearen helburua honako hau da: Europaren eraikuntzan laguntzea, eta euskal interes sozioekonomikoak, sektorialak eta profesionalak Europako erakunde eta organismoen aurrean babestea (hala nola Europako Kontseiluaren, Batzordearen eta Eskualdeen Batzordearen aurrean).</p> <p>Ekintza-ildo honen bidez, euskal erakundeek Europako esparruan Euskadiren eskumenak eta interesak babesteko ordezkaritza eta parte-hartze handiagoa izatea lortu nahi da. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak babeska emango du eta bideak irekiko ditu Euskadi Europar Batasunaren barruan dituen eskumen, interes eta asmoei lotutako gaiak eztabaidatzen edo erabakitzen dituzten Europako Erkidegoko organo eta estamentu guztietan egon dadin.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J3.1.1. Lobby politiko-instituzionalaren ekintzak bultzatzea	Sustatutako ekimenen kopurua	12	2016
J3.1.2. Euskadik Europako erakunde eta organoetan duen parte-hartzea sendotzea	Europako erakundeekin egindako bilera edo saioen kopurua	60	2016
J3.1.3. Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskadikoaren arteko alde biko Batzordea Europako gaietan eta kanpo-harremanetan berriz aktibatzea	Euskadik partaidetutako Europako Ministro Kontseiluen kopurua	4	2016
J3.1.4. Europar Batasunean eta Euskadirentzat lehentasunezkoak diren arloetan interes komunak babesteko parteneriatuak ezartzea	Aurkeztutako baterako proposamenen kopurua	4	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H3: Europaren erai-kuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea	 H3-AREN ARDURADUNA Europako Gaiien Zuzendaritza	
 EKINTZA ILDOA	EI3.2. Mugaz gaindiko lankidetzaren sendotzea	 EI 3.2-AREN ARDURADUNA Europako Gaiien Zuzendaritza	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Europaren erai-kuntzan parte hartzeak eta erantzukizuna hartzeak Euskadiren eta bazkide estrategiko nagusien arteko mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzaren sustatzea dakar.</p> <p>Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak etapa berri bat irekiko du orain arte Akitaniaren eta Euskadiren artean garatutako mugaz gaindiko lankidetzaren. Horretarako, Euroeskualeko Plan Estrategiko bat zehaztuko da. Plan horretan, batera jarduteko lehentasunezko eremuak identifikatuko dira, Europako esparruan hobeto kokatuta eta kohesionatuta egongo den guneko sozial, ekonomiko eta harreman-arloko bat antolatzea. Plan horrek bereziki azpimarratuko du hurbileko mugaz gaindiko lankidetzaren sustapena, era horretan Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekiko (eta, bereziki, bertako euskal lurraldeekiko) loturak sendotzeko.</p> <p>Akitaniak eta Euskadik osatzen duten Euroeskualeak, gainera, Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniako Eskualde Kontseiluak sinergiak eta osagarritasunak baliatzen dituzten sare eta proiektuetan lankidetzaren jarduteko eta batera parte hartzeko aukera bultzatzen lagunduko du, lurralde-kohesioan aurrera egiteko eta Europako esparruan hobeto kokatuta egoteko.</p> <p>Era berean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, bidezko sailekin lankidetzaren, Euskadik mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzaren sustatzen duten beste foro batzuetan parte hartzeko aukera bultzatuko du, hala nola Pirinioetako Lan Erkidegoan edota Itsasoko Eskualde Periferikoetako Kontseiluaren Arku Atlantikoan.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J3.2.1. Akitaniarekiko harremanak sendotzea eta Akitania-Euskadi Plan Estrategikoa lantzea	Finantzatutako mugaz gaindiko proiektuen kopurua	200	2016
J3.2.2. Mugaz gaindiko lankidetzaren diharduten Frantziako Errepublikako erakundeekiko loturak sendotzea	Egindako erakunde-bisitaldien kopurua	12	2016
J3.2.3. Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzarako foro edo elkarteetan parte hartzea	Parte hartu den foroen kopurua	6	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H3: Europaren eraikuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea	 H3-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI3.3. Euskal agenteek Europar Batasuneko erakunde, proiektu eta ekimenetan behar duten parte-hartzea eta presentzia areagotzea	 EI 3.3-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Euskadiko interesak Europar Batasunean babestearekin lortu nahi diren helburuetako bat euskal agente guztiek Europako Erkidegoko proiektu eta ekimenetan duten presentzia eta parte-hartzea neurri handian areagotzea da.</p> <p>Adibidez, Kohesio Politikaren programazioaldi berriak (2014-2020) eta duela gutxi I+G+Ba babesteko onartutako Esparru Programak (Horizon 2020) aukera ugari eskaintzen dituzte finantzaketa gehigarriari eta beste herrialde eta eskualdeetako agendekiko lankidetzari dagokionez. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak ahaleginak egingo ditu euskal agente guztien artean Europar Batasunaren finantza-esparru berriaren ondoriozko informazioa, edukiak eta lankidetzak eta finantzaketa-aukerak zabaltzeko.</p> <p>Bereziki, inplikaturako sailen eta agente publiko eta pribatuen artean koordinazio handiagoa ahalbidetzen saiatuko da, jardun koherente eta koordinatuagoen bidez emaitza hobekiago lortu ahal izan daitezkeen.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J3.3.1. Europar Batasunari lotutako edukiak zabaltzeko zerbitzuen plataforma birtuala eguneratzea eta sendotzea	Eguneratutako plataforma	1	2015eko 1. seihilekoa
J3.3.2. Europako politiketako profesionalekin informazio-saioak antolatzea	Antolatutako saioen kopurua	40	2016
J3.3.3. Europaren eraikuntzaren eta horrek Euskadin duen eraginaren arloan egindako aurrerapenen inguruko sentsibilizazio-kanpainak eta eztabaidak bultzatzea	Egindako kanpainen kopurua	3	2016
J3.3.4. Eusko Jaurlaritzaren sailekin koordinatzea eta lankidetzan jardutea, interesa duten Europako politika publikoei jarraipena emateko	Egindako kontsulten kopurua	200	2016
J3.3.5. Euskadin jardunbide egokiak zabaltzeko programa eta jardunaldietan parte hartzea	Detektatutako, dokumentatutako eta zabaldutako jardunbide egokien kopurua	12	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H3: Europaren erai-kuntzan parte hartzea eta erantzukizuna hartzea	 H3-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI3.4. Europako Erkidegoko Zuzenbidearen aplikazioaz arduratzea	 EI 3.4-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Euskadi Europar Batasunari atxikita dagoenetik, Europako Erkidegoko Zuzenbidearen ondoriozko lege eta arauak zorrotz betetzeko beharrezkoak diren tresna eta mekanismo publikoak jarri dira abian kanpo-harremanen arloan.</p> <p>Eusko Jaurlaritzak, halaber, bere eskumenen eremuan, Erkidegoko Zuzentzauek eta erregelamentazio teknikoaren transposizioa bermatu eta babestu du, eta sailen arteko lana koordinatu du beharrezkoa izan denean.</p> <p>Horrez gain, aholkularitza eman zaio Eusko Legebiltzarrari subsidiariotasun eta proportzionaltasunaren printzipioaren dimentsio deszentralizatua betetzeko, Europako Erkidegoko lege-ekimenek EAekin partekatutako eskumenak har baitzitzaizketen eraginpean.</p> <p>Ekintza-ildo honen esparruan, inplikaturako Europako instantziekiko eta, hala bada, gorkio, estatu eta eskualdeetako instantziekiko lankidetzak, elkarrizketa eta koordinazioa areagotu nahi dira, Europako Erkidegoko Zuzenbidearen ondoriozko betebeharrak egokiro eta eraginkortasunez betetzeko.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J3.4.1. Jaurlaritzaren ekintza koordinatzea eta horretarako aholkularitza ematea, Europako Erkidegoko zuzenbidearen ondoriozko betebeharrak betetzeko	Egindako koordinazio-bileren kopurua	16	2016
J3.4.2. Estatuko Administrazio Orokorrarekin hitz egitea	Elkarren arteko komunikazio formalen kopurua	80	2016
J3.4.3. Subsidiariotasun-printzipioa eraginkortasunez aplikatzen laguntzea	Ezarritako printzipioa aplikatzeko estrategia edo jardun-protokoloa	1	2015eko 2. seihilekoa

4. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ekintza-ildoak		Jardunak
E14.1	Kanpoan den egungo euskal komunitatea osatzen duten gizataldeak konektatzea	<ul style="list-style-type: none"> J4.1.1. Kanpoan den euskal komunitatea lotuko duen sare bat zehaztea eta abian jartzea: Global Basque Network J4.1.2. Euskal jatorriko pertsonak eta Euskadirekin afinitatea dutenak identifikatzea J4.1.3. Euskal jatorria duten eta nazioartean jakintza eta/edo posizio garrantzitsua duten pertsonak identifikatzea eta elkarrekin lotzea J4.1.4. Kanpoan den euskal komunitateko kideekin aldizkako topaketa bat egitea Euskadin
E14.2	Euskal emigrazioaren eta euskal diasporaren inguruko alderdiei buruzko ikerketa eta jakintza sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> J4.2.1. Euskal emigrazio eta diasporari buruzko azterlanak eta argitalpenak babestea J4.2.2. Unibertsitatearen eta ikerketaren eremuan adituak diren pertsonekin lankidetzan, euskal emigrazio eta diasporari buruzko nazioarteko mintegiak eta topaketak egitea J4.2.3. Euskal emigrazio eta diasporaren ahozko testigantzen base dokumental bat sortzea J4.2.4. Diasporari eta emigrazioari buruzko erakusketak egitea
E14.3	Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bitartez	<ul style="list-style-type: none"> J4.3.1. Euskal Etxeek euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa betetzen duten zeregina sendotzea J4.3.2. Euskal Etxeen eta horien herrialdeetan finkatuta dauden beste diaspora batzuen arteko lankidetzaz sustatzea J4.3.3. Euskal Etxeek dauden herrialdeetako gizarteetan egiten dituzten jarduerak sustatzea J4.3.4. Euskal Etxeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartzeko aukera sustatzea J4.3.5. Euskal Etxeen bizitzan gazteen eta emakumeen presentzia sustatzea J4.3.6. Euskal Etxeen sarea zabaltzea, helmuga berrietan bereziki
E14.4	Kanpoan den euskal komunitatea osatzen duten pertsonen laguntzea	<ul style="list-style-type: none"> J4.4.1. Premia larriko egoeran dauden familia-unitateei laguntza ematea J4.4.2. Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei eta euskal jatorrikoeh aholkularitza eta babesa ematea

HE4: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H4: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea	 H4-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI4.1. Kanpoan den egungo euskal komunitatea osatzen duten gizataldeak konektatzea	 EI 4.1-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Orain arte ofizialki aintzatetsita dauden 187 euskal etxeek 30.000 kide inguru dituzte, eta gehienak euskal jatorriko pertsonak dira. Horiez gain, arrazoi akademikoengatik, enpresa-proiektuen edo garapenerako lankidetzako ekimenen esparruan edo beste arrazoi batzuegatik ehun herrialde baino gehiagotan finkatuta dauden euskaldunen kopuru handi bat dago (kopuru zehatza ezezaguna bada ere).</p> <p>Pertsona horietako askok Euskadirekiko loturari eutsi nahi diote, eta euskal errealitatea proiektatu nahi dute dauden lekuan. Ezin da ukatu, gainera, pertsona horiek bizi diren eta lan egiten duten herrialdeetako jakintza funtsezko aktiboa dela, eta nazioartekotzeko proiektu asko abian jartzen lagun dezakeela.</p> <p>Hori dela-eta, kanpoan den euskal komunitateko kideak eta euskal munduarekin afinitatea sentitzen duten pertsonak elkarren artean eta EAerekin konektatzeko sare bat jarriko da abian legegintzaldi honetan. Halaber, pertsona horien arteko topaketak bultzatuko dira, eta beren herrialdean duten posizio garrantzitsuagatik Basque Country Estrategia abian jartzeko funtsezkoak izan daitezkeen beste pertsona batzuk identifikatuko dira.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J4.1.1. Kanpoan den euskal komunitatea lotuko duen sare bat zehaztea eta abian jartzea: Global Basque Network	Sarearen abian jartzea	1	2014
J4.1.2. Euskal jatorriko pertsonak eta Euskadirekin afinitatea dutenak identifikatzea	Identifikatutako pertsonen kopurua	40.000	2016
J4.1.3. Euskal jatorria duten eta nazioartean jakintza eta/edo posizio garrantzitsua duten pertsonak identifikatzea eta elkarrekin lotzea	Lotutako pertsonen kopurua	100	2016
J4.1.4. Kanpoan den euskal komunitateko kideekin aldizkako topaketa bat egitea Euskadin	Egindako ekimenen kopurua	3	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H4: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea	 H4-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI4.2. Euskal emigrazio eta diasporaren inguruko alderdiei buruzko ikerketa eta jakintza sustatzea	 EI 4.2-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>1999. urtean, Gasteizen Euskal Gizataldeen II. Mundu Batzarra egin zenean, William A. Douglass antropologo estatubatuarrek gure diasporaren memoria historikoaren bilketa-lanarekin hasteko eskatu zien euskal agintariei, denboraren halabeharrezko joanagatik iturri asko galtzen ari baitziren.</p> <p>Handik lau urtera, III. Mundu Batzarrari begira, munduko euskal komunitaterik adierazgarrienen historia biltzen duen Urazandi bildumako lehen hamabost liburukiak aurkeztu ziren. Urte batzuk geroago, XIX. mendearen amaieratik aurrera hainbat herrialdetan atera ziren ehun euskal argitalpen baino gehiagoren zenbaki guztiak digitalizatu ziren.</p> <p>Azken urteotan, erakusketa interesgarriak egin dira zenbait herrialdetan, hala nola «Euskal aztarna Argentinan», «Hidden in Plain Sight: the Basques» eta beste batzuk. Halaber, gure inguruneke unibertsitateekin lankidetzan, euskal diasporari buruzko urteko mintegiak antolatu dira, hala nola hamargarren edizioa bete duen Euskal Herria Mugaz Gaindi mintegia.</p> <p>Euskadiko historiaren zati garrantzitsu bat gordetzen eta ezagutzera ematen jarraitzeko helburuarekin, euskal emigrazio eta diasporari lotutako alderdien inguruko hainbat ikerketa- eta zabalkunde-jardun egin nahi dira ekintza-ildo honen bidez.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J4.2.1. Euskal emigrazio eta diasporari buruzko azterlanak eta argitalpenak babestea	Argitalpen kopurua	20	2016
J4.2.2. Unibertsitatearen eta ikerketaren eremuan adituak diren pertsonekin lankidetzan, euskal emigrazio eta diasporari buruzko nazioarteko mintegiak eta topaketak egitea	Bertaratuen kopurua	500	2016
J4.2.3. Euskal emigrazio eta diasporaren ahozko testigantzen base dokumental bat sortzea	Bildutako testigantzen kopurua	200	2016
J4.2.4. Diasporari eta emigrazioari buruzko erakusketak egitea	Bertaratuen kopurua	5.000	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H4: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea	 H4-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI4.3. Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bidez	 EI 4.3-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Plan honen indarraldian, Euskal Etxeek betetzen duten zeregina sendotzeko eta Euskal Etxeen barne-koheresia, belaunaldi-aldaketa eta elkarre-ekintzen eraginkortasuna bermatzeko lanean jarraituko du Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak. Euskal Etxeen egungo sarea sendotzeaz gain, migrazio-helmuga berrietara zabaldu nahi da.</p> <p>Ekintza-ildo honen bidez, Eusko Legebiltzarrean talde politikoei aho batez onartu zuten Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpo Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 1.a) artikuluan ezarritakoa bete nahi da.</p> <p>Ildo horretan, Legeari jarraiki, loturak gorde eta sustatzera, Euskadiko errealitatea euskal gizataldeak kokatuta dauden lekuetan proiektatzera eta harremanak bultzatzera (harreman sozialak, kulturalak eta ekonomikoak bereziki) bideratutako jardunak egingo dira.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J4.3.1. Euskal Etxeek euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa betetzen duten zeregina sendotzea	Euskal Etxeek antolatutako jardueren kopurua	6.000	2016
J4.3.2. Euskal Etxeen eta horien herrialdeetan finkatuta dauden beste diaspora batzuen arteko lankidetzaren sustatzea	Elkarrekin egindako jardunen kopurua	30	2016
J4.3.3. Euskal Etxeek dauden herrialdeetako gizarteetan egiten dituzten jarduerak sustatzea	Beste agente batzuekin egindako jardunen kopurua	500	2016
J4.3.4. Euskal Etxeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartzeko aukera sustatzea	Erabilitako komunikazio-kanalen kopurua	200	2016
J4.3.5. Euskal Etxeen bizitzan gazteen eta emakumeen presentzia sustatzea	Ardurak dituzten gazteen eta emakumeen kopurua	500	2016
J4.3.6. Euskal Etxeen sarea zabaltzea, helmuga berrietan bereziki	Eusko Jaurlaritzak ofizialki erregistratutako Euskal Etxe berrien kopurua	10	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H4: Euskadiren eta kanpoan den euskal komunitatearen arteko harremanak sustatu, babestu eta areagotzea	 H4-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI4.4. Kanpoan den euskal komunitatea osatzen duten pertsoneri laguntzea	 EI 4.4-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Kanpoan den euskal komunitatea osatzen duten eta premia larriko egoerak bizi dituzten pertsonetikiko eta Euskadira itzultzeko interesa duten pertsonetikiko elkartasunez, gizatalde horri laguntzeko lanean jarraituko da.</p> <p>Helburu horiek 8/94 Legean bertan ezarrita daude, hain zuzen ere 1.e) artikuluan (bertan honako helburu hau ezartzen da: «ordenamendu juridikoaren esparruaren eta aurrekontu-baliabideen barruan, kanpoan bizi diren euskal jatorriko pertsoneri laguntza eta babesa ematea») eta 11. artikulua 2. eta 3. puntuetan (itzulerari dagokionez).</p> <p>Era berean, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeak onartutako 2012-2015eko Erakunde Ekintzarako Lau Urteko Planaren 3. eta 8. puntuek jasotzen dutenez, programa horiekin jarraituko da, mundu osoko Euskal Etxeen sorrerako helburu nagusia elkarri laguntzea baita.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J4.4.1. Premia larriko egoeran dauden familia-unitateei laguntza ematea	Lagundutako familia-unitateen kopurua	200	2016
J4.4.2. Euskadira itzultzen diren euskal herritarrei eta euskal jatorrikoei aholkularitza eta babesa ematea	Aldeko erantzuna jaso duten eskaeren kopurua	50	2016

6. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ekintza-ildoak

Jardunak

HE6: Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea

IE6.1

Kanpo-harremanen koordinazioa finkatzea

- J6.1.1. Erakundeen arteko komunikazio eta lankidetzarako mekanismoak sendotzea
- J6.1.2. Erakunde-bisitaldiei lotutako aukerak identifikatzea eta helaraztea
- J6.1.3. Sailen arteko komunikazio eta koordinaziorako mekanismoak sendotzea

IE6.2

Gizarteak Euskadi nazioartekotzeko prozesuan parte hartzeko aukera aktibatzea

- J6.2.1. Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea
- J6.2.2. Euskal paradiploiazia finkatzea
- J6.2.3. Euskadiren kanpo-harremanak gizaritari helarazteko Komunikazio Integraleko Estrategia bat garatzea

IE6.3

Euskadiren kanpo-harremanei lotutako ekintza profesionalizatzea

- J6.3.1. Sailetan kanpo-harremanetarako profila duten espezialistak ezartzeko aukera bultzatzea
- J6.3.2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikarientzako etengabeko prestakuntza kanpo-harremanen eta diasporari buruzko azterlanen esparruan
- J6.3.3. Administrazioan lan egiten duten pertsonentzako mugikortasun- eta/edo elkartruke-programa bat diseinatzea (nazioarteko gobernu eta erakundeekin)
- J6.3.4. Kanpo-harremanei lotutako beketarako deialdia egitea

IE6.4

Ordezkaritzekiko koordinazioa finkatzea

- J6.4.1. Antena espezializatuak jartzeko alde zuzeneko azterlan bat egitea
- J6.4.2. Interneten presentzia izateko estrategia bat garatzea
- J6.4.3. Ordezkaritza berriak eta/edo kanpoan erakunde-presentzia izateko modu berriak zabalitzeko azterketa egitea
- J6.4.4. Kanpoan den euskal komunitatearekin batera ekimenak egitea

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H6: Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea	 H6-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA		 EI 6.1-AREN ARDURADUNA	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak lehendakariari lagundu behar dio Euskadiren kanpo-harremanen estrategia politiko-instituzionala zuzentzen, eta estrategia hori koordinatu behar du. Ildo horretan, Idazkaritzaren funtzioen barruan, Jaurlaritzaren eta euskal gizartearen zerbitzura egongo diren kanpo-harreman eraginkorrak eta efizienteak garatzea lehentasunezko helburua da.</p> <p>Horretarako, Idazkaritzaren tresnak indartu, haren egitura sendotu, eta Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen koordinazioa optimizatzeko beharrezkoak diren mekanismoak prestatu nahi dira ekintza-ildo honen bidez. Gainera, beste administrazio publiko batzuekiko lankidetzaz bultzatuko da interes komunekiko proiektuetan.</p> <p>Era berean, jardueraren zati handi bat atzerrian egiten duten euskal agenteei, Eusko Jaurlaritzaren sailei eta sektore publikoari nazioartekotzearen arloko balio erantsiko zerbitzuak eta informazioa eskaintzeko Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak duen ahalmena hobetuko da.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J6.1.1. Erakundeen arteko komunikazio eta lankidetzarako mekanismoak sendotzea	Egindako erakunde arteko batzordeen kopurua	3	2016
J6.1.2. Erakunde-bisitaldiei lotutako aukerak identifikatzea eta helaraztea	Identifikatutako eta sailei helarazitako aukeren kopurua	15	2016
J6.1.3 Sailen arteko komunikazio eta koordinaziorako mekanismoak sendotzea	Egindako jarraipen-bilera teknikoaren kopurua	40	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H6: Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea	 H6-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI6.2. Gizarteak Euskadi nazioartekotzeko prozesuan parte hartzeko aukera aktibatzea	 EI 6.2-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>X. Legegintzaldiko Gobernu Programak gizarte osoaren esku-hartzea behar duen herrialde-proiektutzat hartzen du Euskadiren nazioartekotzea.</p> <p>Ildo horretan, Euskadiren kanpo-harremanak diseinatzeko eta abian jartzeko prozesuan gizarte zibilak parte har dezan lortu nahi da (eta, bereziki, nazioarteko jarduera gehien abian jartzen ari diren sektoreek). Gainera, arreta berezia eskainiko zaio Basque Country eredia kanpoan zabaltzeko prozesuan gizarte zibilak zeregin aktiboa betetzeko aukerari.</p> <p>Premisa horretan oinarrituta, «euskal paradiplozmazia» osatzen duten euskal gizarte zibileko agenteak, profesionalak eta iritzi-liderrak egiten diren ekimenetan txertatze-ra bideratutako ekintzak egitea hartzen du kontuan ekintza-ildo honek, betiere Euskadi nazioartekotzeko helburu komunarekin.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J6.2.1. Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea	Kontseiluaren sorrera	1	2015eko lehen seihilekoa
J6.2.2. Euskal paradiplozmazia finkatzea	Antolatutako elkarrizketa-mahai / jardunaldi / ekitaldietara joan direnen kopurua	500	2016
J6.2.3. Euskadiren kanpo-harremanak gizarteari helarazteko Komunikazio Integraleko Estrategia bat garatzea	Kanpo-harremanen komunikazioaren arloan egindako ekintzen kopurua: <ul style="list-style-type: none"> · Irekia · Webguneak / sare sozialak · Baliabideak · Zabalkunde-materiala · Beste batzuk 	100	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H6: Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea	 H6-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA		 EI 6.3-AREN ARDURADUNA	Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Kanpo-harremanen arloa oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoan eta erakunde-ekintzan, eta kalifikazio handiko profesionalak behar ditu behar bezala egikaritzeko. Kanpo-harremanen eremuan prestatutako pertsonak izatea funtsezko premisa da Basque Country Estrategia eta Kanpo Harremanetarako Plana abian jartzeko.</p> <p>Ekintza-ildo honen bidez, euskal administrazioak gaur egun eta etorkizunean kanpo-harremanei lotutako ekintza profesional bat egiteko dituen gaitasunak indartu nahi dira. Horretarako, gaur egun nazioarteko harremanei lotuta dauden Administrazio Publikoko profesionalen gaitasunak indartzera (profesional horien jakintza-arloa edozein izanik ere) eta etorkizunerako lehen mailako kanpo-harremanak ziurtatuko dituzten adituen belaunaldi berri bat prestatzera zuzendutako ekimenak jarriko dira abian.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J6.3.1. Saitetan kanpo-harremanetarako profila duten espezialistak ezartzeko aukera bultzatzea	Erreferentziazko pertsonak, kanpo-harremanetako espezialista gisa, sailetan	40	2016
J6.3.2. Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko teknikarientzako etengabeko prestakuntza kanpo-harremanen eta diasporari buruzko azterlanen esparruan	Emandako prestakuntza-saioen kopurua	5	2016
J6.3.3. Administrazioan lan egiten duten pertsonentzako mugikortasun- eta/edo elkartruke-programa bat diseinatzea (nazioarteko gobernu eta erakundeekin)	Adostutako Mugikortasun Programaren diseinua	1	2015eko bigarren seihilekoa
J6.3.4. Kanpo-harremanei lotutako beketarako deialdia egitea	Bekadunen kopurua	25	2016

 HELBURU ESTRATEGIKOA	H6: Euskadiren kanpo-harremanen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea	 H65-AREN ARDURADUNA	
 EKINTZA ILDOA	EI6.4. Ordezkaritzekiko koordinazioa finkatzea	 EI 6.4-AREN ARDURADUNA	
 DEKINTZA ILDOAREN DESKRIBAPENA	<p>Euskal agenteek beren nazioarteko jarduera egiteko babes-mekanismo gisa hobekien balioetsi dituzten tresnak (Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren tresnen artean) Euskadik kanpoan dituen ordezkariak dira. Ordezkaritza horien sorkuntza eta garapena funtsezko mugarrria izan da Euskadiren kanpo-harremanen sakontze eta eraginkortasunerako.</p> <p>Balioespen positibo horrek iraun dezan, ordezkariaren gaitasunak indartzera eta ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren sailekin, sozietate publikoekin eta nazioartekotzeko proiektuak dituzten agenteekin duten lotura sendotzera zuzendutako jardunei eta kanpoan den euskal komunitatearen sareko lanari emango zaie lehentasuna.</p> <p>Testuinguru horretan, zenbait jarduna aurreikusi dira, hala nola interneten presentzia izateko estrategia bat zehaztea eta kanpoan den euskal komunitatearekin batera jarduerak egitea. Halaber, dauden ordezkarietan antena espezializatuak jartzea edota ordezkariaren sarea beste leku batzuetara zabaltzea komeni den ala ez aztertuko da.</p>		
 JARDUNAK	 ADIERAZLEAK	 HELBURUAK	 PLANGINTZA
J6.4.1. Antena espezializatuak jartzeko alde aurreko azterlan bat egitea	Egindako azterlana	1	2015eko lehen seihilekoa
J6.4.2. Interneten presentzia izateko estrategia bat garatzea	Interneten presentzia izateko estrategia	1	2015eko bigarren seihilekoa
J6.4.3. Ordezkaritza berriak eta/edo kanpoan erakunde-presentzia izateko modu berriak zabaltzeko azterketa egitea	Egindako azterketa	1	2015
J6.4.4. Kanpoan den euskal komunitatearekin batera ekimenak egitea	Ordezkaritzek kanpoan den euskal komunitatearekin lankidetzan egindako ekimenen kopurua	15	2016

GOBERNANTZA EREDUA, JARRAIPENA ETA AURREKONTU ESPARRUA



5.1. Gobernantza-eredua

Nazioartekotzeko jardueren garapenean inplikaturik dauden agenteen ugaritasuna dela-eta, kanpo-harremantza koherenteak eta iraunkorrak ziurtatuko dituzten koordinazio- eta lankidetzaren mekanismoak sortu behar dira.

Testuinguru horretan, Basque Country Estrategiak gobernantza-mekanismo batzuk ezarri ditu (Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak dinamizatuko dituenak), Estrategia zein Kanpo Harremanetarako Plana bera behar bezala egikaritzeko direla ziurtatzeko. Gobernantza-ereduak Eusko Jaurlaritzaren eta haren sektore publikoaren zein Basque Country Estrategia abian jartzen lagundu nahi duten beste euskal administrazio publiko batzuk (aldundiak eta udalak) hartzen ditu eraginpean.

5.1.1. Basque Country Estrategiaren gobernantza-eredua

Basque Country Estrategiaren helburuak lortzeko, Eusko Jaurlaritzaren sail guztien eta haren sektore publikoaren ahalegina behar da. Horietako bakoitzak estregia komunari egiten dion ekarpena koordinatzeko asmoz, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak horretarako topaleku formala (hots, Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea) dinamizatuko du, eta batzorde horretarako deialdia egingo du aldizka.

Zehazki, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak gutxienez urtean bitan egingo du Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzorderako deialdia. Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea arautzen duen 127/2007 Dekretuari jarraiki, Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko nazioarteko jardueraren koherentziaz eta eraginkortasunez koordinatu eta planifikatzeko organo gisa jardungo du Batzorde horrek. Batzordeko presidentea Idazkaritzako titularrak izango da. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak ordezkatuko dituzten goi-karguek osatuko dute Batzordea. Foro horretan, Euskadiren nazioartekotzearen helburuak era koordinatuan lortzen lagunduko duten ekimenak proposatu eta aztertuko dira, sinergiak eta lankidetzan egin daitezkeen jardunak identifikatuko dira, eta eskuragarri dauden baliabideen erabilera eraginkorra bermatzeko neurriak aztertuko dira.

Gainera, Idazkaritzaren ustez, beharrezkoa da Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea Jaurlaritzaren sail guztiek Basque Country Estrategiaren esparruan egindako jardueraren jarraipena egiteko organo izatea.

Arestian adierazi dugunez, herrialde-erronka bati egin nahi zaio aurre Basque Country Estrategiaren bidez. Hori dela-eta, euskal erakunde guztiak gonbidatuta daude Estrategiarekin bat egitera eta Euskadi kanpoan neurri handiagan proiektatzeko ahaleginak batzera.

Hori horrela izanik, Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren eta kanpoko proiektuak egiten dituzten euskal erakunde arteko lankidetzako organo gisa jardungo du. Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordea arautzen duen 52/2008 Dekretuari jarraiki, Batzorde horren helburu nagusia Euskadiren nazioartekotzearen arloko proiektuak, jakintzak, premiak eta interesak bateratzea da. Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, eta Kanpo Harremanetarako Kanpo Idazkaritzak zuzenduko du. Batzordea osatuko dutenak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzeko ordezkari bat (sailburuordearen maila izango duena), foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bat (foru-diputatuaren maila izango duena), hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetako alkateak eta EULEko presidentea.

Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordeari dagokionez, etorkizunean kideei eskatutako ordezkari-mailari eta osakerari buruzko gogoeta bat egitea planteatu da, foroa eraginkorragoa izan dadin.

5.1.2. Kanpo Harremanetarako Planaren gobernantza-eredua

Basque Country Estrategiarekin gertatzen den bezala, Kanpo Harremanetarako Planaren helburuak lortzeko beharrezkoa da, Idazkaritzak egiten duen lanaren izaera horizontala dela-eta, Jaurlaritzaren beste arlo batzuekin eta Jaurlaritzaz kanpoko agenteekin lankidetzan jardutea. Ildo horretan, sailekiko eta sektore publikoarekiko lotura sendotzeko mekanismoak behar dira, informazioa arin, denbora errealean eta eraginkortasunez elkartrukatzeko delako berma dadin.

Maila formalean, arestian aipatutako Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordea ere Kanpo Harremanetarako Planaren gobernantza-elementu bat da. Horrela, beraz, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak egindako jardueren eta lorpenen berri emango du Batzorde horretan.

Era berean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak sailen arteko komunikazio- eta lankidetzako mekanismo informalek sendotu nahi ditu, eta, horretarako, sailekiko etengabeko kontaktuak bultzatu eta kanpo-harremanetarako profila duten espezialistak ezarriko ditu sailetan.

Kanpo Harremanetarako Planaren gobernantza-eredua Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Kontseiluarekin osatzen da. Aholku Kontseilu hori 234/1995 Dekretuak arautzen du, eta Euskadiren eta kanpoko gizatalde eta Euskal Etxeen arteko harremanak babestu eta areagotzea, eremu horretako erakunde-ekintza koordinatzea eta fenomeno horren inguruan euskal gizartearen sentsibilizazioa sustatzea ditu helburu nagusi. Kontseilua urtean behin biltzen da ohiko izaeraz, eta honako hauek dira osatzen dutenak: lehendakaria, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia ordezkatzeko duen pertsona bat, euskal gizataldeekiko harremanen arloko arduraduna, Kultura, Turismo, Lan, Gizarte Segurantzak, Hezkuntza, Etxebizitza, Ogasun, Industria eta Merkataritzako arloak ordezkatzeko di-

tuen pertsona bat, Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari bat, euskal udalak ordezkatzeko dituen pertsona bat, Eusko Legebiltzarra ordezkatzeko duten bi pertsona, Euskal Herriko Unibertsitatea ordezkatzeko dituen pertsona bat, Euskal Etxeak ordezkatzeko dituzten hiru pertsona (Euskal Gizataldeen Batzarrak izendatuak) eta Euskaltzaindia ordezkatzeko dituen pertsona bat.

Kontseilu horren bitartez, kanpoan diren euskal gizataldeei dagokienez adierazitako aldirako ekintzen proposamena jasoko duen lau urteko plan bat landuko du Idazkaritzak, era horretan gizatalde horiek Kanpo Harremanetarako Planean txerta daitezzen eta euskal administrazio publikoen beste organo batzuek egindako jarduerekin lotura bat izan dezaten.

Horrez gain, Kanpo Harremanetarako Aholku Kontseilua sortzea hartzen da kontuan. Kontseilu hori hainbat esparrutan diharduten (esparru sozialean, akademikoan, kulturean, teknologikoan eta enpresa-esparruan, besteak beste) eta nazioarteko eremuan jakintza handia duten administrazio publikotik kanpoko euskal agenteek osatuko dute. Aholku Kontseilua baliagarria izango da gizarte zibila Jaurlaritzaren kanpo-harremanetan inplikatzeko. Ildo horretan, gizartearen ikuspuntuak azalduko ditu, eta gizarteak Basque Country Estrategiarako lehentasunezkoak diren eremu tematikoei dagokienez dituen interesak helaraziko ditu. Era berean, X. Legegintzaldiaren esparruan, adierazitako Aholku Kontseilua-ren funtzionamendu-erregelamendua ezarri, eta antolamendua, osaera eta operazio-eredua zehaztuko ditu Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.

5.2. Jarraipen- eta Ebaluazio-sistema

Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategiaren helburu estrategikoak eta jardunak behar bezala garatu eta egikaritzeko direla bermatzeko, Basque Country Estrategiaren garapenean zein Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Kanpo Harremanetarako Planaren helburuen lorpenean egindako aurrerapenen berri emateko aukera emango duen jarraipen-sistema bat ezarri da.

5.2.1. Basque Country Estrategiaren jarraipen-sistema

Basque Country Estrategiaren aplikazioan izandako lorpenak Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak X. Legegintzaldiaren amaieran egingo duen Basque Country Estrategiaren Amaierako Txostenaren bitartez jakinaraziko dira. Eusko Jaurlaritzak eta haren sektore publikoak Basque Country Estrategiaren babesean egindako nazioarteko jardunaren mugarririk garrantzitsuenen berri emango du dokumentu horrek.

Horrez gain, euskal erakunde guztiek Europar Batasunean egindako jardunei buruzko informazioa emango dio Idazkaritzak Eusko Legebiltzarrari urtean behin.

5.2.2. Kanpo Harremanetarako Planaren jarraipen-sistema

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Kanpo Harremanetarako Planaren egikaritze-maila neurtzeko, jarraipen-sistema bat ezarriko da, prozesua erraztuko duen aginte-koadro batekin batera. Tresna horrek Planaren jardunetarako adierazleak, bakoitzarekin lortu beharreko helburua eta hori betetzeko plangintza edo denbora bilduko ditu. Horrela, beraz, Planaren aurrerapen-maila neurtu behar denean eta jardunak behar bezala egiteko eta aurreikusitako helburu estrategikoak lortzeko beharrezkoak diren doikuntzak egin behar direnean, aginte-koadro hori izango da oinarria.

Gainera, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2014-2016ko Kanpo Harremanetarako Planaren jarraipen- eta ebaluazio-ereduaren osagai gisa, honako txosten hauek aurkeztuko dira:

- **Egikaritze-txostena**

Txosten horretan, Planaren helburuen egikaritze- eta betetze-maila ebaluatuko da berehala, eta urteko helburuak finkatzeko oinarria izango da.

- **IKanpo Harremanetarako Planaren amaierako txostena**

Plana amaitutzat eman ondoren, haren indarraldiko jardun nagusiak laburbilduko dituen txosten orokor bat landuko da. Dokumentu horrek, nolana ere, finkatutako helburu estrategikoen betetze-maila eta Basque Country Estrategiari egindako ekarpena aztertuko ditu, eta hurrengo Kanpo Harremanetarako Planaren abiapuntua izango da.

Bestalde, arestian adierazitako jarraipen-jarduerekin gain Kanpo Harremanetarako Planarekin 2014-2016an lortutako helburuak aztertuko dituen ebaluazio independente bat egiteko aukera ez da baztertzeko.

Azkenik, eta proposatutako jarraipen-sistema osatzeko, Eusko Jaurlaritzaren kanpo-harremanen eragina neurtzeko duen sistema bat diseinatzeko gogoeta-prozesu bat hasiko da. Izan ere, gaur egun Euskadin ez dago horrelako sistemarik, eta nazioartean ere ez dago erreferentzia garbirik. Barne-ekimen horren bidez, Euskadik munduko eragile global gisa duen posizioa eta herrialde gisa lortu duen nazioartekotze-maila neurtuko duten adierazleen multzo bat identifikatu edo diseinatu nahi da. Jarraipen-sistema horrek, gainera, Basque Country Estrategiaren bigarren fase batean, Jaurlaritzaren eremu bakoitzeko jardun sektorialak neurtu eta ebaluatzeko aukera emango du.

5.3. Ekonomia- eta aurrekontu-esparrua

5.3.1. Basque Country Estrategiaren ekonomia- eta aurrekontu-esparrua

Aztergai duguna bezalako esparru-estrategia baten aurrekontuko diru-izendapen zehatza kuantifikatzea zeregin konplexua da, Estrategiaren barruko jardun sektorialak beti ez baitaude lotuta argi eta

garbi identifikatzeko moduko aurrekontu-programa batzuekin. Bestalde, Jaurlaritzaren nazioarteko ekintzaren barruko plan sektorial batzuk zehazteko eta kuantifikatzeko daude (Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea, adibidez).

Nolanahi ere, 2014. urtean Eusko Jaurlaritzak Euskadi nazioartekotzeko izendatutako gutxieneko aurrekontua hogeita hamabost milioi eurotik gora izan da. Horietatik, hogeita hamar milioi kanpo-harremanen eta enpresen nazioartekotzearen eremuetakoak dira, Euskadi 2020: Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programak jasotzen duenez, eta horiei turismoaren eta kulturaren eremuetako bost milioi baino gehiago gaineratu behar zaizkie. Horrela, beraz, Basque Country Estrategiaren 4 osagai nagusiei dagozkien aurrekontuez osatuta dago gutxieneko zuzkidura.

Aurreikusitako urteko aurrekontu-igoera % 2 izango da 2015ean zein 2016an.

Osagaia	2014
Kanpo-harremanak	7.570.000
Enpresen nazioartekotzea	22.500.000
Turismoa	1.500.000
Kultura	3.608.357
GUZTIRA	35.178.357

5.3.2. Kanpo Harremanetarako Planaren ekonomia- eta aurrekontu-esparrua

2014-2016 aldian Kanpo Harremanetarako Plana egikaritzeko aurrekontua zazpi miloi bostehun eta hirurogeita hamar mila euro da 2014. urterako, eta urteko % 2ko igoera izango da 2015. eta 2016. urteetan.

